


ARARTEKOAREN TXOSTENA
EUSKO LEGEBILTZARRARI
1989. URTEA

Vitoria-Gasteiz

1990.eko Martxoa

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Azala, heliotropo, kartulinaz.
Paper erreziklatua.
D.L.: BI-1968-90.
I.S.B.N.: 84-87122 - 12 - 4



ARARTEKO

EUSKO LEGEBILTZARRARI
TXOSTENA
1989

AURKIBIDEA

ARARTEKOAREN URTEKO TXOSTENA-1990

AURKIBIDEA	7
I. ATALA.—ARARTEKOAREN AURKEZPENA	13
II. ATALA.—TXOSTENAREN METODOLOGIA	21
III. ATALA.—ARARTEKOAREN IHARDUKETA NABARMENENAK ..	25
3.1. IHARDUERAK	27
3.2. OFIZIOZKO IHARDUKETAK	31
IV. ATALA.—ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK	33
4.1. IKERKETA	35
4.2. BITARTEKOTZA	36
4.3. ORIENTAZIOA	36
4.4. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK	36
V. ATALA.—KEXAREN ITER-A	39
5.1. HASIERA ETA AURKEZPENA	41
A) Hasiera eta aurkezpena	41
B) Barne-prozedura	42
C) Onartzea eta ez onartzea	42
5.2. TRAMITAZIOA ETA AZTERKETA	43
A) Administrazionari informazioa eskatzea	43
B) Laguntzeko obligazioa	44
C) Informazioaren balorazioa egitea eta erantzuna gertatzea	44
D) Erizpena eta onespina	45
5.3. ARARTEKOAK HARTU BEHARREKO NEURRIAK	46
VI. ATALA.—ARARTEKOA ETA LEGEBILTZARRAREN ARTEKO HARREMANAK	47
VII. ATALA.—KEXEN SAILKAKO BANAKETA	53
7.1. LEHENDAKARITZA ETA JUSTIZIA	55
A) Sarrera	55
B) Kexen aukeraketa	56
7.2. HERRIZAINGOA	60
A) Sarrera	60
B) Kexen aukeraketa	60

7.3. HERRIOGASUNTZA	63
A) Sarrera	63
B) Kexen aukeraketa	63
7.4. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA	67
A) Sarrera	67
B) Kexen aukeraketa	68
7.5. KULTURA ETA TURISMOA	79
A) Sarrera	79
B) Kexen aukeraketa	79
7.6. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA	81
A) Sarrera	81
B) Kexen aukeraketa	81
7.7. OSASUNKETA ETA KONTSUMO	84
A) Sarrera	84
B) Kexen aukeraketa	85
7.8. INDUSTRIA ETA MERKATARITZA	101
A) Sarrera	101
B) Kexen aukeraketa	102
7.9. NEKAZARITZA ETA ARRANTZUA	102
A) Sarrera	102
B) Kexen aukeraketa	103
7.10. GARRAIO ETA HERRILANA	103
A) Sarrera	103
B) Kexen aukeraketa	104
7.11. HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIROA	105
A) Sarrera	105
B) Kexen aukeraketa	105
7.12. GESTIO EZBERDINAK	113
A) Sarrera	113
B) Kexen aukeraketa	113
VIII. ATALA.—ESTATISTIKA	121
8.1. OHAR OROKORRAK	123
8.2. ESTATISTIKA PROZEDIMENTALA	126
8.3. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA	129
8.4. UKITUTAKO ADMINISTRARITZAREN ARABERAKO ESTATIS- TIKA	130
8.5. LURRALDEEN ARABERAKO ESTATISTIKA	133
8.6. SAILEN ARABERAKO ESTATISTIKA	133
DIAGRAMAK	137

IX. ATALA.—IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK. AZKEN ONDORIOAK	157
9.1. IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK	160
A) Administraritzaren geldikeria. Administraritza-isiltasuna	160
B) Herri-Administaritzaren gehiegizko formalismoa eta informaziorik eza	163
C) Ibilgailuen zirkulazioaren santzio-eskubide ezarpena	164
D) Iharduketa gogaikarriak eta zaratengatiko kutsadura	166
E) Kirola arriskuentzat babesa	166
F) Derrigorrezko desjabetzapena eta eragindakoen eskubideen errespeta	167
G) Hirigintza planeamendutik eraikuntzara eta lurraren erabileraz ..	169
9.2. AZKEN ONDORIOAK	170

I. ATALA

ARARTEKOAREN AURKEZPENA

Euskal Herria ez da enbor bitxi bat Europako mendebaldean.

(Telesforo de Aranzadi)

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeari jarraiki, Eusko Legebiltzarrak 1989ko martxoaren 2an Ararteko izendatu ninduen, eta hil beraren 8an jabetu nintzen karguaz. Eusko Legebiltzarraren Lehendakari den Jesus Egiguren jaun txit gorenak kargu jabetza ekitaldiko agurrezko hitzetan honako hau azpimarratu zuen: "Legebiltzarrak Konstituzioaren I Idazpuruak dakartzan eskubideak legeak dioenez bermatuz aldeztu, eta Autonomia Estatutuaren 9. atalak dakartzan demokrazia-zko oinarri-erizpide orokorrak bete daitezenez arduratzeko jarritako Goi-Karguduna da Arartekoa. Ildo horretatik, herritarrak agintari eta agintaritz-gehiagikerietatik eta euskal herri-Arduralaritzaren utzikerietatik babestea du bere xede nagusia."

Ekitaldi hartako nere hitzaldia laburra izan zen: "Legebiltzar hau osatzen duzuen pertsonok eskertzen zaituztet nigan jarri duzuen uste onagatik. Autonomia herrialde honetan legezko baldintzaz eskatzen zaidan ahalmen eta eginkizuna zinez niregan hartzen dut; aldiz, zainduko ditut agintearen gehiegikeriak, arautegiak ematen didan eskubidez, eta hiritarrak babestuko hutsune edo akatsik aurkituko banu horiek hobekuntzara zuzenduz; herriarenganako zerbitzuan, nirea eginaz Protagorak *Egiari buruz-ko (Aleetheia)* liburu hartan formula sofistikoaz agerrerazi zuena: 'Gizona da gauza guztien neurria'."

Horrela, gure herrian tradizio eta oinarrizko abiapunturik gabeko Erakunde berri baten buru jarri nintzen; eraberean historikoki ere aldentuta foru garaiko Sindiko Prokuradore edo Herriaren Prokuradore haren esku zeuden ahalmen eta eginkizunetatik. Beroriek famili-tradizioz bait ziharduten Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban, eta herritarrak jauntxoeren menpetasunaren aurrean aldezte xede zuten erakundeak bait ziren, gaurregun historia baizik ez direnak.

Demokrazia garaian abiatuturik, oraingo honefan ardura handiko postu honetatik, herria zerbitzeko aukera egokitu zait berriro. Atzera geratu ziren, azkenik, betirako baloreen defendatzaile mesianikoen aldarrikapen eta oihu arranditsu eta gloriosoak. Ni, ordea, bizitzaren egunerokotasun garratzera jeitsiko naiz, poeta ohia naizen honen ahots xumeaz, promesa hutsalik gabeko asfaltora:

*Gizon bat bezala,
gizonkiago izan dedin.
Nere anaiaren arimara nahi nuke iritsi,
nere anaiaren arimara
bide berri hartatik,
zapaldu gabeko bidetik,*

inoiz izan ez duan
sentipen berri bat sortarazteko.
Maitasunik garbienean,
eta hauts bihurtu baino lehen.
Sentipen maitakor batean.
Eta, bere eta nere dan gogo izatean sakondu,
nere dantasuna beretu arte;
elkarren muina urtu arte,
elkarkidetzan.
Aingeru bat bezala, ez;
baizik, gizon bat bezala,
gizonkiago izan dedin.

Bizi garen eremu txiki honetatik, unibertso korapilotsuaren aniztasuna ulertu behar dugu, alderdikierietatik at, eta Erakunde honetatik gizatasunari lehentasuna emanaz, legearen babesean, eta niri dagokidan heinean gure gizartearen aurrerakuntzarako lankidetzan itxaropentsu, helburu instituzionalaren bidetik urrundu gabe, zuzenak eta okerrak egingo ditudan arriskuaren jakitun, lanari ekiten diot hurrengoetan hobetzeko esperantzan, demokrazia zaleok jomuga dugun zuzenbidezko gizartearen barruan gure Erakunde hau sendotu asmoz.

1989. urtea Erakunde honen abiapuntutzat jotzen dugu, eta hasiera guztietan bezala, zailtasunak gertatu ere gertatu dira, baita neurri handi batean konpondu ere, emaitzak onesgarriak izan direlarik. Gaurregun, Erakundea Autonomia Komunitatean aski ezaguna dela esan dezakegu, eta hirikide franko datorkigu euskal Administrazitza buruzko kezak aurkeztera.

Beraz, eta Legebiltzarrak hala egiaztatu ahal izango duen bezala, balantzea faboragarria dela esango nuke, eta Erakunde hau euskal Autonomia Komunitatearentzat onuragarria, bai gizartearekikoan bai ekonomikoki, zenbait arazori bilatu diogun irtenbidearen nolakotasuna ikusita.

Lehen Txosten honetan, esker ona luzatu beharrean nago espainiar Estatu-ko gainontzeko Nerekideei emandako laguntza eta aholkuengatik. Hasteko, "Defensor del Pueblo" den Alvaro Gil Robles jauna eskertu nere karguaren jabetza ekitaldira etortzeaz adierazitako adeitasunagatik, eta lehen urte honetan zehar jasotako gomendio guztiak ere. Gogoan ditut halaber, kargu honetan izendatu berria nintzelarik, Sevillan antolaturiko Ombudsman-en IV Ihardunaldiak; Manuel Conde-Pumpido ("Defensor del Pueblo Andaluz") jaunaren gidaritzape ezin hobean, anaiarteko giroan ospaturiko ihardunaldi haiek aukera paregabea izan ziren Ombudsman-gai honentzat. Nere eskerrak "Diputado del Común de Canarias" den Luis Cobiella jaunari ere, nere eginkizunean, beste zera guztien buru, Konstituzioaren I Idazpuruak dakartzan gizaeskubideen berma nagusitzearen beharra azpimarratu bait zidan. Frederic Rahola ("Síndic de Greuges de Catalunya") jaunari, edonolako arazoetan pakearen bidezko konponketak bilatzen saiatzea gomendatu zidan eta. Baita "Justicia de Aragón" den Emilio Gastón jaunari ere, berezko duen poeta senarekin gizatasunez bete bait ninduen, eta hasieran genuen behin behineko egoitzara bisitan etortzeko ohorea egin ere. Guztiek parte hartu zuten lanaren antolakuntzan, nere galdekizunei erantzunez eta uneoro bere babes baldingabea eskeiniz. Maixu-aholkuak denak, Nerekide zein haien Ondoko eta laguntzaile guztiei bihotzez eskertu beharrekoak.

Estatu eta Autonomia Komunitateetako Legebiltzar Ordezkarri Gorenek nere-
kiko adierazi zuten guztiaren ordainetan, bidezkoa neritzon beren egoitzetara

abiatu eta bisitatzeari. Horrela, zuten antolakuntza eraz jabetu nintzen eta beharrezko dokumentazio eta materialeak eskuratu nituen. Zer esanik ez, horrelako laguntzarik ezean, ezin izango genuen burutu lortu dugun aurrerakada.

Erakundearen aurrekontuen onarpenaren luzamena izan zela eta, tamalez, Salzburgon, urriaren 21ean, Ombudsman-en Erakunde Europarrak antolaturiko Ohiz-besteko Osoko Bilkuraren ekitaldian parte hartzeko aukera galdu genuen, Ararteko Erakunde hau ere bazkide izaki. Okasio paregabea zatekeen gure kide europarrekin harremanak indartu eta gure lanari buruzko gaietan sakontzeko.

Lehen urtean urratu dugun bidearen berri ematen duen Txosten honetan ez genituzke ahaztu nahi gurekin lankidetzan ihardun duten erakundeak, besteak beste, "Emakunde" Emakumearen Euskal Erakundea, Kontsumitzaile Elkarteak eta Giza Eskubideen Aldeko Elkartea.

Hasiera hasieratik oldean zetorkigun kexa pilo haren tramitazio lanari aurre egiteko beharrezkoak ziren giza-bitartekoen osaketak atzerapen garrantzitsua jasan zuen, 1989ko Erakundearen aurrekontuen onarpen luzamenduarengatik batez ere. Eusko Legebiltzarrak oinarrizko administrarritza-zereginak beteko zituen behin behineko langilegoa eskuratu zidan arren, laster bueltatu behar izan zuen zegokion zereginetara, Legebiltzarraren ohizko lan dinamikak ala behartuta. Gora-behera guzti horien zioaz, denera zortzi lagunek osatutako lan taldeaz baliatu behar izan dugu. Egoera horretan, zenbait kexaren konplexutasunak berekin zekarren aholkularitza lan eskergea Erakundetik kanpoko abokatuen laguntza burutu dugu.

Giza-bitartekoen osaketa burutzeaz batera, garrantzitsuak kontsideratzen nituen oinarrizko jokabide edo portaeren ardatz nagusiei eragiten saiatu naiz: alde batetik pertsonen arteko komunikazioa eta erlazioak bultzatu, eta era berean ere, bai kexa bai kexadunei buruzko isilpekotasuna mantenerazi, erreklamazioen tratamenduaren onerako, eta ustez jasandako injustiziengatik larriturik Erakundera jotzen zuten kexatzaileekiko tratamenduaren onerako ere.

Talde-lanaren kontzientzia suspertzearren, arduratu naiz halaber, hasiera batean txandaka alor guztietan ihardun zezaten, geroago norbere egokitasunaren neurrian eginkizun espezialduagoetara heltzeko. Eta gaurregeren funtzionamenduan izan diren ondorioak ikusita, bide zuzenetik abiatu naizelakoan nago; Orixeren esaerak dioten bezala, "Etxeak behar eta bideak ekarri".

Oinarrizko asmoei jarraiki, langilego elebiduna edukitzen ahalegindu naiz, eta bi hizkuntzei zor zaien begiramendua gorde dezaten saiatu naiz, Salvador Espriú poeta kataluniarraren ondoko bertsoetan isladatzen den izpirituaren arabera: "Diversos són els homes i diverses les parles, i han convingut molts noms a un sol amor" (Orotarik dira gizakiak eta orotarik dira mintzairak, baina maitasun soilean izen asko bildu dira); zeren eta erizpide hauetan oinarriturik lortuko bait dugu, egokitu zaigun bizitza honetan, tolerantzia, adikortasunez eta errespetuz jokatzeko. Cervantes idazleak bere Don Kixoteren hitzetan esana duen bezala: "Homero no escribió en latín, porque era griego; ni Virgilio escribió en griego, porque era latino. En resolución: todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase al poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno que escribe en la suya." (...Homerok ez zuen latinez idatzi, grekoa bait zen; Virgiliok ere ez zuen grekeraz idatzi, latinoak bait zen. Horren ondorioz: aintzineko poeta guztiek bularretik hartu zuten hizkuntzan idatzi zuten, eta ez ziren

atzerritarren bila joan beren konzeptuen gorena aldarrikatzeko; eta hori horrela izanik, legezkoa litzateke ohitura hori nazio guztietan zabaltzea, eta ez dezatela gaitzetsi poeta alemana bere hizkuntzan idazten duelako, ezta gaztelarra, ezta berean idazten duen bizkaitarra ere.) (Kix., II, 16).

Lehenengo urte honetan burututako eginbeharra ezinezkoa zatekeen Erakundearen Ondoko den Jesus M.^a Arteaga Izagirre jaunaren laguntza gabe; zuzenbidearen alorrean soberan frogatutako esperientzia duen aditua izaki, otsailaren 27ko 3/85 Legearen 8.3 atalak ematen didan ahalmenaz, Eusko Legebiltzarren aurretiko adostasunaz eta Erakunde eta Barnezaingo Batzordeak eman zuen aldeko erizpenarekin, martxoaren 16an Ondoko izendatu nuen, hil beraren 28ko Ebazpenaren bidez. Betebeharren zamarik pisutsuenari aurre egin dion antolatzailer trebe honek gorespen handienak merezi ditu.

Erakundearen iharduketaren jarraipideari dagokionez, bidezkoa iruditu zait lehentasunezko arreta gizatalderik ezinduenei ematea. Horren arabera burutu dira ospitale eta zahar egoitzen gaineko ofizio iharduketak, Gasteizko Ortiz de Zarate Ospitaleari buruz zertu den bitartekotza kasu, subkontratatua zen entrepresako garbiketa zerbitzuko langileen greba garaian sortu ziren arazoaren zioaz. Azpimarratzekoak dira halaber Arantzazuko Ama Osasun Egoitzan eta Donostiako Gurutze Gorriko Ospitaleari buruz gauzatutako ofiziosko bitartekotzak, urteoroko Salve Nagusia bukatutakoan jazotako istiluen ondorioz ospitaleratutakoak bisitatuz; era berean, ordena publikoari atxikitako arazoetan ere egin dira eskuhartzeak, egoeraren larritasuna eta hirikideen ustezko egoera babesgabea ikertuz.

Bizkaiko Foru Zuzenbideak bizi izan zuen unerik gailenean, Batzar Nagusiek euskal hiritarrekiko justizia egiteko Erregeak emandako ahalmena bazuten ere, lurraldearen mugen barruan zein kanpoan, gaurregun, aldiz, justizia alorrean aurkezturiko kekek Defensor del Pueblo-ri igorri beharrean gaude, alor hau Erakunde honek duen bere ardurapeko iharduntze-eremutik at geratzen bait da.

Eusko Legebiltzarreko hirugarren solairuan kokaturiko egoitzan, kexen bide-raketak eta Erakundearen antolaketa lanak osatzen duten lan bikoitzari ekin diogu. Ararteko hau beti egon da legebiltzar taldeekiko lankidetzarako prest, eta ateak zabalik egon dira iradokizunak eta parlamentariak aurkeztu nahi izan dituzten kexadunak hartzeko, behin baino gehiagotan gertatu den moduan.

Arartekoak bere poztasuna agertu nahi du, informazio eskakizunen aurrean Administaritzak adierazitako arretagatik, inoiz aipatu informazioa berreskatu egin behar izan badugu ere; pasadizo legez, gogoan dugu behin egunkarrietan kexa bati buruzko berri bat plazaratu zela zegokion udaletzeko errola zenbakia eman aurretik, era iraingarri eta lotsagarrian idatzirik bai Erakunde honentzat bai berriaren sortzailearentzat ere.

Oroitagiri honetan, besteak beste, alorrez alor aurkezturiko kekarik aipagarrienen laburpena eta datu xehetasun estatistikoak aurkezten dira, guzti hauek euskal herri-Administaritza eta Erakunde honen funtzionamenduaren adierazgarri direlarik. Gure Erakundearen ikuspuntutik ondorioak onuragarriak izan dira. Bukatutzat ematen dut, beraz, lehen urteko iharduera, nahi baino kexa gutxiago itxi baditugu ere hurrengoetarako itxaropentsu, eta esperientziaz ikasitakoarekin aurreratzeko prest, gure ihardueraren hedakuntzan ondorio hobeen eta Erakundearen sendotze esperantzan.

Aurkezpen honen amaieran nere eskerrik beroenak eman nahi dizkiot berriro Erakunde honetan Ondoko den Jesus Maria Arteaga Izagirre jaunari, eta berarekin batera, taldea osatzen duten gainontzeko laguntzaileei ere: Iosune

Oyarbide Antia, Miren Kerejeta Rekalde, Lorea Arrieta Zubillaga, Nati Monforte Diaz de Otazu eta Arantza Larrea Sarasola. Beraien lanari esker jarri ahal izan bait dugu Erakunde hau ihardunbidean, eta Txosten hau gauzatu.

Azkenik beharrezkoa iruditzen zait gehitzea Arartekoa, portaera arau moduan harturik, alderdikierarik gabe eta orekatasunean jokatzeko ahalegindu dela, objektibitatea eta egia ardatz dugularik, beti ere Erakundearen izen on eta ospearen alde, hirikidearen defentsan, gureak eginik Salvador Espríuren hitzok:

*Direm la veritat, sense repòs,
per l'honor de servir, sota els peus de tots.*

*(Egia esango dugu, atsedunik gabe,
ohorez zerbitzeko, guztien oinpean).*



ARARTEKOA
JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

II. ATALA

TXOSTENAREN METODOLOGIA

Ararteko Erakundearen bere lehen urteko ihardunbidean egindako gestioari dagokion aginduzko Txostena aurkezten da Legebiltzarraren aurrean.

Edozein erakunde hastapenari berarizko zaion giza eta material-baliabideen urritasuna kontutan hartuz, azaltzeko ahal zen prozedura bakarra erabili da, azalpena ahalik eta argien izan dadin eta Txostenaren edukiari dagokionez legeak agindutakoa bete nahian, hurrengo aurkezpenetan metodologia hobetuz joango delako ustean.

Txostena bi zatitan egituratzen da. Lehen zatiaren helburua, lehen urtealdi honetako Ararteko Erakundearen iharduerak adieraztea da, nahiz ordezkari eta instituzional izaerazko iharduerak, nahiz ofiziozkoak.

Bigarren zatiaren helburua, izaera teorikoa duen horrena, Erakundearen berarizko betekizunak eta kexaren prozedurazko iter-a ezagutaraztea da. Lehenengo urtea izanik, zein diren betekizun horiek eta kexen tramitazio eta azterketarako jarraitzen den prozedura adieraztea lortu nahi da, Erakundearen funtsezko betekizuna adieraztea alegia. Ondoren, sail bakoitzean aurkezturiko kexei buruzko azaleko azterketa egiten da, eta halaber kexen aukeraketa bat. Kexak sailkatzeko jarraitu den erizpidea, gaien arabera ez baina, erizpide organiko bati jarraiki egin da, hau da, eragindako herri-Administraritzaren Sailen arabera.

Halaber, azterketa estatistiko bat gehitu da, zenbaki eta datuen ulergarritasuna errazteko asmoz, grafiko eta diagramak lagunduta agertzen delarik.

Azkenik, zenbait iradokizun eta gomendio ezarri da, zehatzegiak izan gabe ere, herri-aginteen ihardupidean aurkitu diren hutsuneak isladatu, eta ondorio gisa balantze orokor labur bat eman nahian.

III. ATALA

**ARARTEKOAREN IHARDUKETA
NABARMENENAK**

3.1. IHARDUERAK

Erakundearen eginkizun eta kompetenzien eremu barruan, bai Arartekoa bai Ondokoa ekitaldi publiko frankotan aurkeztu dira, batzuk besteak baino protokolo handiagokoak, eta elkarrizketatu eta harremanetan jarri dira goren mailako pertsonalitate kopuru handi batekin hala gure Autonomia Komunitatekoekin nola bestekoekin ere, kasu guztietan Erakundeari, eta nola ez, bere ordezkoei eman zaien harrera guztiz goraipatzekoa izan delarik.

Nahiz eta pertsonal ezak iharduera gehiago egiterik galerazi badu ere, azpimarratzekoa da egin den ahalegin handia une bakoitzean interesa sortarazi duten ekitaldi, instantzia edo jardunaldietara joateko, Erakundearen funtzionamendu egokiaren kaltetan gabe.

Esandakoa laburbilduz, Erakundeak eta konkretuki Arartekoak eta Ondokoak 1989 urtean zehar parte hartu duten iharduera ugari eta garrantzitsuen zerrenda kronologikoa agertzen da ondoren:

— **Martxoak 17.** Donostia. Arartekoak, Jesus Maria de Leizaola Lehendakari-ohiaren hileta-elizkizunetan parte hartzen du.

— **Martxoak 28.** Arartekoak, Jesus Maria Arteaga Izagirre jaun txit argia Arartekoaren Ondoko izendatzen du, Legebiltzarreko Erakunde eta Barnezaingo Batzordeak martxoak 16an egindako bilkuran aho batez hartutako aldeko erizpenaren ondoren. Azkenik, apirilak 6ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean (64 zka.) argitaratu zen izendapena.

— **Apirilak 24.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoak, Euskal Herriko Giza Eskubi-deen Aldeko Elkartearen bisita hartzen du. Lehen harreman honetan, presidentea den Juan Luis Ibarra jaunak elkartearen filosofia eta ihardun eremuak azaldu zituen. Aldi berean, bere zerbitzuak eskaini eta Erakunde honek beharrezkotzat jo dezakeen guztian elkarlaguntza emankorra izango denaren itxaropena azaldu zuen.

— **Apirilak 27-30.** Sevilla. Arartekoak eta Ondokoak, Lurralde Autonomoetako Herri Defendatzaile eta Ombudsman-en IV. Jardunaldietan parte hartu zuten, kasu honetan antolatzailea "Defensor del Pueblo Andaluz" bera izan zen eta bertan parte hartu zuen baita Portugaleko Provedor de Justiça-k ere.

Ohizko jardunaldi hauetako lan saioak, urtero nazio eta autonomietako Herri Defendatzaileen artean egiten direnak, esperientzien elkartrukaketarako oso baliagarriak dira, Erakunde hauek egiten dutenaren azalpen eta eztabaidan oinarritzen direlako.

Jardunaldiek lau egun iraun zuten eta partaideak, Parlamentuko Presidenteak, Juntako Presidenteak, Diputazioko Presidenteak, Gobernuaren Delegatuak Andaluzian eta Sevillako Alkateak hartu zituzten.

EXPO'92 ospakizunetarako barrutia ere bisitatu zuten Juntako Obra Publiko eta Garraioetarako Kontseilariaren laguntzarekin, eta Huelvako Industria Garapenerako Poloa ere bisitatu zuten.

— **Maiatzak 4.** Arartekoak, bere gogoz, Eusko Legebiltzarreko Erakunde eta Barne Batzordearen aurrean azalpenak eman zituen, Erakunde honen lehen berrogei egunetako lanaren berri azaldu zuelarik.

— **Maiatzak 5.** Arartekoaren lehen bisitaldi ofiziala Madrilgo Defensor del Pueblo-ri.

— **Maiatzak 12.** Vitoria-Gasteiz. HAEEK antolatutako Arartekoaren Jardunaldietan parte hartzea. Amaiera ekitaldian, beste pertsonai batzuren artean, ondoko hauek parte hartu zuten: Lehendakariak, Estatuko Defensor del Pueblo-k, Síndic de Greuges-ek, Arartekoak, Justicia de Aragón-en Aholkulari Buruak, Funtzio Publikoko Kontseilariordeak eta HAEEKo Zuzendariak.

— **Maiatzak 20-29.** Erakunde honen aurrean erreklamazioak aurkezteko jarraitu beharreko prozeduraz hirikideentzat interesgarria zen informazioa eman zen komunikabideetan.

— **Maiatzak 23.** Bilbo. Erakundeko titularrak, Euskal Lurralde Autonomoko Justizia Epaitegi Gorenaren Konstituzio Ekitaldian parte hartu zuen.

— **Maiatzak 24.** Oñati. Arartekoaren Ondokoak, Jesus Maria Arteaga Jau-nak, Soziologia Juridikoaren Institutoaren inauguraketan hartu zuen parte.

— **Maiatzak 25.** Arartekoa, "Síndic de Greuges de Catalunya" Erakundera joan zen bisitaldi ofiziala eginez; halaber, Parlamentuko Presidentearekin elkarrizketatu zen.

— **Maiatzak 29.** Vitoria-Gasteizen egiten da Estatu osoko Defendatzaileen Adjuntoen lehen bilera, oraingoan Ararteko Erakundeak antolatutak.

Lan saioen tartean, euskal Lurralde Autonomoko Legebiltzarreko Presidentearen eta Lehendakariaren errezepzioak egin ziren.

— **Ekainak 2.** Madril. Arartekoak, TVEko "La Noche" programan parte hartu zuen Estatuko beste pareko karguekin, erabili zen gai bakarra Espainian "Ombudsman" Erakundea izan zelarik.

— **Ekainak 5.** Vitoria-Gasteiz. Ingurugiroaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroaren Sailak luzatutako gonbitari erantzunez, Arartekoak "Linea Verde/Hari Berdea" (900-411111) delakoaren inauguraketan parte hartu zuen. Zerbitzu hau Ingurugiroaren Kontseilariordeak sortu zuen ingurugiroari dagozkion gaietan hirikideen eta erakundeen artean tartekaritza lanak egiteko.

— **Ekainak 6.** Arartekoaren Ondokoak hitzaldi bat eman zuen Ataungo (Gipuzkoa) San Martin auzoko Eliz Aretoan.

— **Ekainak 7.** Ekainaren 7, 8 eta 9an, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak antolatutako, Gasteizko Villa Suso Jauregian egin ziren Justizia Alternatiboari buruzko Nazioarteko Jardunaldien barruan, Arartekoaren Ondokoak gonbidatu gisara parte hartu zuen, eta Erakunde honen lanaren eta jardunaldietako gai orokorraren artean dagoen erlazioaz hitz batzuk esan zituen.

— **Ekainak 7.** Luciano Rinconek TVE-Telenorteko bere “En su rincón” programarako egindako elkarrizketa eman zen. Bertan, Erakundearen titularrak egiten den lana aurkeztu eta laburtu zuen alde batetik, eta bestetik, une horretararte aurkeztutako kexen ezaugarri nagusiak azaldu zituen.

— **Ekainak 8.** Erakunde honen ihardun eremuaz, eskaerak egiteko moduez eta beste zenbait azalpen praktikoz osatu eta eginiko informazio txostena argitaratu zen, Udaletan, Foru Diputazioetan, Eusko Jaurlaritzako Sailetan eta orohar Administraziopeko erakunde guztietan zabaldu zelarik.

— **Ekainak 20.** Txostenak eta Agiriak sortako “Drogomenpekotasunen Eskubideak-legeak eta Legebiltzarreko Lanak” liburuaren aurkezpenean parte hartu zuen titularrak Legebiltzarreko prentsa aretoan.

— **Ekainak 28.** Arartekoak, Irunen, Bidasoako Eskualde Ospitalaren inauguraketan parte hartu zuen.

— **Uztailak 4.** Bartzelona. Arartekoak, “Síndic de Greuges de Catalunya” kargurako berrautatua izan zen Frederic Rahola i D’Espona J. txit gorenaren kargu hartzean parte hartu zuen. Ekitaldiaren buru, Catalunyako Parlamentuaren Presidentea izan zen.

— **Uztailak 14.** Erakundearen titularra Zaragozara joan zen “Justicia de Aragón” den Emilio Gastón J. txit gorenarekin elkarrizketatzeko. Protokolozko lehen bisitaldi honen barruan Aragoiko Parlamentuko Presidenteordeak egin zion harrera azpimarratu behar da.

— **Uztailak 26.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoa, Emakumearen Euskal Erakunde “Emakunde” Zuzendari gorenarekin elkarrizketatu zen.

— **Abuztuak 15-18.** Canarias. Arartekoaren eta Ondokoaren bisitaldia Canariasetako beraien kideei. Bileraren ondoren Santa Cruz de Tenerifeko Alkateak hartu zituen.

— **Irailak 14.** Zaragoza. Estatuko eta Autonomietako Herri Defendatzailen Adjuntoen II Bilera egin zen. Bilera hauetan ohizkoa denez, Erakunde hauen zereginen koordinazioa aztertu zen. Aragoiko Gobernuako Presidenteak eta Presidenteordeak eta Parlamentuko Presidenteak hartu zituzten.

— **Irailak 20-21.** Madril. Arartekoa Defensor del Pueblo-rekin elkarrizketatu zen. Madrilgo titularrarekin egin ohi dituen bileren barruan egin zen hau ere.

— **Urriak 6.** Bilbo. Arartekoak Bilboko Hotel Ercillan hitzaldi bat eman zuen Euskal Herriko Kontsumitzaile Elkarteek antolatutako jardunaldien barruan.

— **Urriak 7.** Oñati. Bertako Unibertsitatean Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena onartze ekitaldira joan zen Arartekoa.

— **Urriak 11-14.** Justicia de Aragón-ek, Emilio Gastón J. txit gorenak, Eusko Legebiltzarra eta Erakunde hau bisitatu zituen. Beste ekitaldi batzuen artean, Legebiltzarreko Presidenteordea den Francisco Ormazabal J. txit gorenak hartu zuen.

— **Urriak 25.** Gernika. Arartekoak Gernikako Juntetxean egin zen Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren X. Urteurrenaren ospakizun ekitaldian parte hartu zuen gonbidatu modura.

— **Azaroak 3.** Zaragoza. Erakundeko titularra Zaragozara joan zen Pignatelli Zentruan egin ziren Pakerako Ikerketa Mintegiko hitzaldietan parte hartzeko.

— **Azaroak 4.** Zaragoza. Arartekoak, Justicia de Aragón-ekin, Nazio Batuen Espainiako Zuzendaria den Jose Rodriguez Elizondo jaunarekin eta Pignatelli Zentruko Zuzendaria den Alemani jaunarekin bilera egin zuen.

— **Azaroak 17.** Donostia. Arartekoak Donostiako San Telmo Museoa egin zen Remigio Mendiburu eskultorearen lanaren erakusketa antologikoaren inauguraketan hartu zuen parte.

— **Azaroak 27.** Madril. Defensor del Pueblo-k, Club Siglo XXI-n eman zuen hitzaldira gonbidatu zituen Arartekoa eta Ondokoa.

— **Abenduak 5.** Arartekoak eta Ondokoak euskal kulturaren patriarka den Jose Miguel de Barandiaran jauna bisitatu zuten Ataunen, beraien begirunea aurkezteko eta hil horretako 31an ehun urte betetzen zituenez opari bat eskeintzeko.

— **Abenduak 9.** Durango. Euskal Liburuaren Azoka. Juan San Martin jaunak, Iokin Zaitegik euskaratu eta Juan San Martin berak hitzaurreretutako Platonen lanen aurkezpena egin zuen.

— **Abenduak 22.** Bilboko Erakus Azokan eratutako Gabonetako Haur Parkera bisitaldia, beste urteetan bezala, Gasteizko Legebiltzarraren aretoaren berdina den “stand” bat bait zeukan jarrita Eusko Legebiltzarrak. “Stand” honetan, eskolumeak ikastetxeka eraturik, beraientzat garrantzitsuak diren gaien inguruan beraiek prestatutako eztabaidetan parte hartzen dute. Oporretan, “Parlamentu Txikia” deitua burutzen dute haurrek, urte honetan Arartekoaren, Ondokoaren eta Erakundeko langileen partaidetza gauza berria delarik. Goizeko eta arratsaldeko saioen amaieran Arartekoak hitz batzuk luzatu zizkien partaideei eta parlamentari gaztetxoek egiten zizkioten galderei atseginez erantzun zien. Era berean, egun horretako saioetan parte hartu zutenei kredentzialak eskuratu zizkien.

Azpmarragarria da haurrek “stand” barruan burutzen ziren saioetako eztabaidetan jarri zuten arreta, berdin “Parlamentu Txikia”-ren prentsa stand-ean

ume kazetariak egiten zuten lanean ere. Haurrentzat biziki erakargarria gertatu ziren Ararteko bezala zuela gutxi sortutako Erakundea eta Legebiltzarreko ihardunak duen funtzionamendua azaltzen zuten bideo-jolas eta sariketen instalazioak, guztia Gasteizko Legebiltzarreko zerbitzuek eratu eta koordinatzen zutelarik.

Gabonetako Haur Parkeak zabalik iraun zuen beste egunetan Ondokoak beste bisitaldi batzuk egin zituen bertara.

— **Abenduak 24.** ETB-2an, “Palabra de Ley” izeneko programako ekipoak grabatutako erreportai bat eman zen, bertan adierazten ziren Erakundean jasotako eskaerekin jarraitzen den bideraketa prozesua, Arartekoaren behin behineko egoitza, bertan lanean diharduen pertsonala, etab.

3.2. OFIZIOZKO IHARDUKETAK

Lehen urte honetan ofiziozko iharduketa gutxi burutu dira, batez ere Erakundearen ihardueraren hasieran azpiegitura arazoak izan ditugulako, artean ez zegoen erakunde berri baten sorrerak berarekin dakartzan antolamendu arazoak eta pertsonal eza, alegia.

Hala eta guztiz ere, arazo larriren bat sortu eta premiak hala eskatu izan duenean, bertara joan da Arartekoa; horren ondorioz, bederatzi ofiziozko iharduketa izan da guztira, Erakundeak bereziki larriak eritzi dituen arazoan lehen sondeo bat bezala har daitezkeenak. Eta hau horrela egin da arazoak, defentsarik gabeko giza kolektiboak eragiten dituelako, edo arazoek epe motzera edo erdira komunitatearentzat arriskua sortzen dutelako. Bereziki, Lurralde Autonomoko ospitale, eritegi eta zaharrentzako babes etxeen egoera eta funtzionamendua ikertzera bideratu dira iharduketa gehienak.

Jakingarri bezala azalduko dugu Gasteizko Txagorritxun Ortiz de Zarate Ospitalerako Osakidetzak kontrataturik zituen garbiketa enpresetako langileen hobekuntza soziolaboralen eskean, martxoaren 30ean hasi zuten huelgaren ondorioz sortu zen garbitasun egoera larria. Egoera honi gehitu zitzaizkion Gurutze Gorriarekin izan zituzten istiluak eta Zuzendaritzarekin akordioak lortzeko gero eta zailtasun handiagoak ziren. Guzti honen ondorioz egoera erabat larria zen eta Erakundeak arazoan esku hartu behar izan zuen.

Beharrezko informazioa eskuratu ondoren, Erakundeak eskudun agintariei jakinarazi zien gertatzen zena, arazoan eskudun zirenen arteko elkarriketak suspertzeko premia azpimarratuz. Azkenik, apirilaren 20an huelga bertan behera utzi zen langileen batzordeak Osakidetzak aurkeztutako proposamena onartzearekin.

Defentsarik gabeko egoeran dauden giza kolektiboek lehenetsun erizpidez eragindako beste iharduketa bat aipatuko dugu ondoren, Donostiako San Jose izeneko Asistentziako Zahar Egoitzan, Foru Diputazioko Osasunketa eta Giza Ongune Sailarekin kontzertatua den horretan burututako ofiziozko iharduketa hain zuzen. Asistentziako Zahar Egoitza horrek adindun jendea onartzen du gaisotasunez ezinduek, edo luzaro mugitu gabe edo adinagatik edo beste arrazoiengatik mugitzeko ez ezik, beren eguneroño garbiketa eta behar orok egiteko arazo larriak agertzen dituztenak.

Egonaldia ordaintzeari dagokionez, aipatu Foru Diputazioko Sailak, egoiliarren jatorrizko Udalak eta babestuak berak diru disponibilitatearen arabera ordaintzen dute. Egoitzak 53 ohe ditu, baina 38 adindun daude bertan, bentila-

zio eta espazio erabilgarritasunak orokorrean mota horretako egoiliarrengan sortarazten duten arazoetatik.

Beharrezko informazioa eskuratu ondoren eta egoitza egoeraren baldintzak "in situ" ikuskatu ondoren, Arartekoak zegokion Administraritzza Sailari ezinbestekotzat jo zituen ohar eta iradokizunak igorri zizkion. Horietan azpimarratu zenez, egoitzaren baldintzak onak baziren eta adindunei emandako asistentzia egokia bazen ere, beharrezkotzat jotzen ziren azpiegiturako berrikuntza lanak egitea, halanola, espazioaren berrikuntza eta zabalkuntza, bentilazio handiagoa batez ere jangela zonaldean e.a., zeren ordurarteko espazio banaketa eta egitura ez zen egokiegia aipatu ezaugarriak agertzen duten adinduen asistentziarako.

Administraritzza Zahar Egoitzaren berrikuntza beharraz jabetu zen, eta Arartekoaren iradokizunak jasoz, aipaturiko egoitza integratuta dagoen Matia Calvo Fundazioari diru laguntza ematea erabaki zuen.

Ofiziozko beste ekintza guztietan osasun-etxe, zaharrentzako egoitza eta udal kalabozo ezberdinen ihardunbidea eta egoera bertatik bertara egiaztatzen da.

Eskuhartze hauen balorazioa eta ondorioak, herritarren eskubideei dagokionez eraginik haundiena duten alorrei buruzko gai bakarreko azterlanak eginez, datozen ekitaldietan egin-asmo den azterketa osoagoaren zati izango dira. Herri-bakeari buruzko zenbait kasutan, horien larriagatik Erakunde honen ekintza beharrezko izan denetan ere, ofiziozko eskuhartzeak beharrezko izan dira.

IV. ATALA

ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK

Arartekoa sortu eta arautzen duen Legearen 1. atalak argi adierazten du Ararteko Erakundearen eginkizuna Konstituzioaren I. Tituluan jasotzen den hiri-kideen askatasun eta oinarrizko eskubide guztiak defendatzea dela, eta baita Autonomia Estatutuaren 9. atalean datozen gizarte demokratikoaren printzipio orokorrak betetzen direla begiratzea ere, horien titularrak Euskal Herriko Autonomia Komunitateko hirikideak direlarik. Eta xede horrekin begiratu eta iker dezake Arartekoak Administaritzaren iharduketa. Eman zaion egitekoa iristeko, Arartekoak honako baliabideak erabil ditzake:

4.1. IKERKETA

Eusko Jaurlaritz, Foru Aldundien eta Udalen menpeko Administaritzen egintza, ebazpen eta iharduketak ikertzea da bere eginkizun behinen eta oinarrizkoena. Administaritza horien zerbitzura dauden langile eta funtzionariak ez ezik, Arartekoak iker ditzake partikularrak ere, hauek administaritza-lan jakin bat burutuz, zerbitzu publikoren bat betetzen dutenean. Hala, herri-Administaritzaren organismoen egintza eta ebazpenak nahiz Administaritzaren zerbitzura dauden pertsonen "jokabidea" iker dezake.

Behin kexa tramitera onartutakoan edo ofiziozko espedientea hasitakoan hasten da ikerketa, une horretan, Arartekoak behar diren neurriak hartuko ditu kexaren xedea argitzeko. Ikertzea eta argitzea dira, beraz, begiratu eta zaintzeko, Arartekoak duen ahalmenaren bi alderdiak, eta beharrezko erizten badio, Legearen 27, 28 eta 29. ataletan aurrikusten diren neurriak hartzera eraman dezakete horiek. Aurrerago ikusiko dira zer dioten aipatu atalek.

Arartekoaren Legeak ahalmen ugari ematen dizkio, kexa eragin duen arazoa onez ikertu eta argi dezan. Legearen 23. atalak ezartzen du Administaritzak, eta, oro har, bere menpeko botere publiko denak, behartuta daudela Arartekoari bere ikerketan laguntza ematera, lehentasun eta presazko izaerarekin.

Arartekoak ikertzeko dituen ahalmenak agintariak, funtzionariak eta Administaritzaren menpeko langile eta pertsonal denak Arartekoari, edo bere ordekoari, informazioa ematera behartzen ditu, eta behartuta daude, era berean, behar duen laguntza eskaintzera, eta eskatzen duen entitate, organismo, zentru edo Sailera sarrera erraztera, eta baita bere esku jartzera ere lana ondo burutzeko behar izango dituen datu, espediente eta beste dokumentuak. Iharduketa hauek erabateko zuhurtasun eta isiltasunaz burutu behar dira, halere, Arartekoak komenigarria dela erizten badio, horien edukina Legebiltzarrari aurkeztu beharreko txostenetan sartu ahal izango du.

Laguntza ukatzen bazaio, Legearen 27, 28 eta 29. atalek Arartekoari zigortzeko halako ahalmen moduko bat ematen diote. Ez da zuzenki zigortzeko

ahalmena, Arartekoa ez bait da epaile, eta ez bait du indar beterazlerik, baina baditu ahalmen batzuk; kasu jakin batean laguntza ukatzen bazaio, argitara eman bait dezake bere lanari oztopoak jarri dizkion pertsona, organismo, entitate edo sailaren izena eta oztopatzailea nabarmen ager daiteke Legebiltzarreko urteko txostenean, edo Giza Eskubide Batzordeari jakineraz diezaioke bestela.

Era berean, eskatzen zaien informeak, dokumentuak eta espedienteak tramitatzera ukatuz eta Erakundearen ikerketaren aurrean jarrera oztopatzailea erakutsiz, Arartekoaren iharduketa galerazten duten Administraritzako pertsonalari edo agintariei erantzukizun penala ezarri ahal izango zaie, Arartekoak eraginda, desobediencia delituagatik. Eta hor ikusfen bada arrazoizko kriminalitate-zantzua Ministeritza Fiskalari jakitera emango zaio.

4.2. BITARTEKOTZA

Beste eginkizun oso garrantzitsua bitartekotzarena da, bera bait da ardatz eta muin elkar ulertzeko tresna eta Administraritzaren eta hirikideen arteko zubi izan nahi duen erakunde batentzat. Elkarrizketa irekia, etengabea eta eraginkorra izan dadin lan egiten du Arartekoak, elkar hizketa eta elkar ulertzearen bidez arazoei irtenbidea aurkitzen saiatuz. Izan ere, horixe esan nahi bait du “Ararteko” hitzak, bitarteko, tarteko, bien arteko zubia, alegia.

Arartekoak duen itzal haundia, lanean duen berdintasun eta ekitate zentzua, sortzen duen konfidantza eta batez ere inpartziala izatetik datorkion ospea dela eta, egoera paregabea du aldeak adiskidetu eta elkar ulertzea sustatu eta bideratzeko. Arartekoak izan du jadanik hainbat gatazketan esku hartzeko parada, horietako batzuetan oso emaitza onak lortu dituelarik.

4.3. ORIENTAZIOA

Hirugarren eginkizuna hirikidea informatzea eta orientatzea da; oinarritzakoa eta funtsezkoa da hau ere biztanleriaren zati haundi batek herri-Administraritzarekiko oso informazio gutxi duela kontutan hartzen bada. Hirikideak dituen eskubideez eta horiek defenditzeko bidez informazioa ematen du Erakundeak.

Informazio falta oso haundia da, hasteko ez bait da aski ezaguna Arartekoaren irudia bera, oso gutxi dakitelarik egon badagoenik ere, eta are gutxiago ezagutzen da esku hartzeko dituen posibilitateak. Hori dela eta, gure bulegoetan, eskatzen duten hirikideei, Arartekoaren kompetentziei buruz informatzen zaie eta baita kexa bat aurkezteko moduz ere, eta, era berean, jakinerazten zaie zer egoeratan dagoen aurkeztutako kexa baten tramitazioa.

Interesatuari etengabe ematen zaio informazioa kexaren tramitazioan zehar eta berdin kexari ezetza eman bazaio edo tramitera onartu ez bada ere, zeren eta jakinerazi egin behar bait zaio ez onartzeko izan diren arrazoiak; eta bere arazoa konpontzeko orientazioak ematen saiatu behar da.

4.4. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

Azkenik, Arartekoak gomendio eta iradokizunak emateko eginkizuna ere badu, eta egintza eta eabazpen administratiboak sortzeko Administraritzak erabili-

tako erizpidean aldaketak sustatzeko eginkizuna har dezake bere gain eta iradoki ditzake aldaketak indarrean dauden arauetan ere. Espediente edo keza baten ikerketatik Arartekoak ondorioa ateratzen badu arauzko xedapenen aplikazioak emaitza kaltegarri edo bidegabeko batera daramala, gomendatu edo iradoki ahal izango die bai Legebiltzarrari, Jaurlaritzari, Biltzar Nagusiei, Foru Aldundiei, Udalei edo horien menpeko entitate eta organismoei, arauzko testuetan sar dezaten berari beharrezko iruditzen zaizkion neurri edo aldaketak, Administratzairen iharduketak eta zerbitzu publikoek beharrezko objetibitatea eta eraginkortasuna izan ditzaten, hiritar guztion eskubideen berma eta garantia gisa.

V. ATALA

KEXAREN ITER-A

5.1. HASIERA ETA AURKEZPENA

A) Hasiera eta aurkezpena

Arartekoak emango dio hasiera prozedurari, bai ofizioz bere bideetatik egoera irregular baten berri jakiten duenean, edo bai alderdi baten eskariz.

Legebiltzarrak, Giza Eskubide Batzordearen bitartez, edo Ikerketa edo Inkesta Batzorde baten bidez, edota parlamentariak beren aldetik proposatu ahal izango diote Arartekoari ikerketa bat hastea, eta hortik ateratzen den ondorioa Legebiltzarrari jakineraziko zaio txosten arrunt baten bitartez.

Edozein pertsona fisiko edo juridiko, inolako murrizketarik gabe, zuzendu ahal izango zaio Arartekoari, honek botere publiko baten aurrean ihardun dezan eskatuz; eta hala, oso zaila da topatzea beste erakunde bat bertara iristeko hain bide zuzena ematen diona hirikideari, horretarako ez bait da eragozpena —besteak beste— ez nazionalitatea, ez adingabetasuna, ez legezko ezgaitasuna, eta ezta gartzelan edo giltzapean egotea ere.

Zerbitzua dohain da, Arartekoaren iharduketa orok hala direlako pertsona interesatuarentzat, eta ez da beharrezkoa abokatua bertan egotea eta ezta prokuradorea ere.

Kexak ahoz nahiz idatziz aurkez daitezke, euskaraz nahiz gazteleraz.

Baldin eta kexa bat ahoz nahi bada aurkeztu, prozedura erraza da; behin kexa jarri nahi duenak Erakundearen egoitzara agertzen denean, zeinak Vitoria-Gasteizko Dato kaleko 20. zenbakian 3. ezkerretara dagoen, Erakundeko pertsonalak azaltzen duen kexa entzungo dio eta ondoren, berak aukeratu duen hizkuntzan, hitzez hitz idatziko da horretarako propio prestatu den inprimaki batean, idatzitakoa irakurriko zaio, eta ados baldin badago, kexa izenpetuko du.

Kexak honako betebeharrak hauek kunplutuz aurkeztu behar dira:

a) Interesatuak aurkeztu behar ditu, idazki baten bidez arrazoiak emanaz —kexaren gaiarekiko bidezko interesa agertu behar du—, eta garbi adieraziz zein den bere nahia. Eta idazkiarekin batera kasua argitzeko balio izan dezaketen agiriak ere aurkeztu beharko ditu.

b) Kexaren gaia den gertakaria edo egintza jazo zenetik Arartekoari aurkeztu zaion bitartean ezin du igaro urte bete baino gehiago.

Estatuko beste Ordezkarri Parlamentariak egin dutenaren antzera, ez zaie ezarri azkeneko baldintza hau Erakundearen funtzionamenduko lehendabiziko hilabeteetan jaso diren kexei. Aldiz, Arartekoak berak ofizioz ekiten dionean iharduketaren bati, berau ez dago inolako preklusio-eperen menpe eta hala, epetik kanpora aurkeztutako kexek Erakundearen iharduketa eragin dezakete, Arartekoak ofizioz hastea erabakitzen badu.

B) Barne-prozedura

Prozedura hirikideek aurkeztutako dokumentuak hartzearekin batera hasten da. Dokumentuak aurkezteko bi modu daude, edo Erakundearen egoitzan zuzenean edo postaz bidaliz bestela, azkeneko bide hau delarik ohizkoena.

Dokumentazio hori Arartekoak eta bere Ondokoak berehala aztertuko dute eta dokumentuak datatu eta erregistratu egingo dira, eta kexaren hasierako idazki bat baldin bada, espediente bat irekiko da bere karpetaarekin eta baita fitxa bat ere, non jasoko diren kexaren tramitazioan zehar egin diren iharduketa orok.

Ondoren, eskaera egin duenari hartuagiriaren ofizio bat bidaliko zaio, non jaso eraziko den kexaren edo eskari-idazkiaren harrera, izendatu zaion zenbakia-ekin, oharteraziz kexaren aurkezpenak ez dituela inoiz geldieraziko legetan aurrez ezarrita dauden epeak bide administratibo nahiz jurisdikzionalerrekurtsoa egiteko, eta ez duela ere geldieraziko dagozkion egintza edo ebazpenak betetzea. Gainera, hartuagirian jar eraziko da kexa aztergai dagoela, onartzen den ala ez den erabakitzeko.

Ondoren Ondokoak, Arartekoarekin koordinazioan, kexaren lehen irakurketa egingo du, den gaiaren arabera, kexari buruzko auziak banatuta dauden Administaritza-arloetako bati behin-behinean esleitzeko. Era berean, kexaren tramitazioa Arartekoari dagokiona den ala ez begiratu du, eskaera egin duenaren legitimazioa, betebeharrak formalak bete diren, presa handikoa den berehalako tramitazioa hastearren, eta egiaztatuko du ea auzia Autonomia Komunitatean dagoen Estatuko herri-Administaritza Sailen baten kompetentzia den, zeren eta hala balitz Estatuko Defensor del Pueblo-ri igorri beharko bait zaio, bera delarik, kexa bidezkoa bada, tramitatu behar duena Estatuko Administaritzaren aurrean. Horrez gainera, kexa partikularren arteko auzia den aztertuko du, eta hala izatera berehalatik emango zaio ezetza.

Espedientea aholkularitza pasako da informe eta tramiterako, hor Aholkularitza Buruak gaiaren arauera banatuko du kexa, dagokion arloko aholkulariari esleitu diola.

Baldin eta aurkeztu diren dokumentuak ez badira argiak edo behar hainbestekoak kexaren behin-behineko kalifikazio bat egiteko, eskaera egin duenari idazki bat bidaliko zaio, datu gehiago emateko eskatuz eta, bitartean, iharduketa denak geldieraziko dira.

C) Onartzea eta ez onartzea

Kexa bat ez da onartuko balizko kasu hauek ematen direnean:

a) Izenik gabe aurkezten diren kexak, eskaera denak idatziz eta interesatuak izenpetuta aurkeztu behar bait dira, izena, abizena, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia adieraziz.

b) Kexa aurkeztean interesatuaren aldetik asmo txarra dagoela nabari denean, edo somatzen denean prozedura gehiegikeriaz erabiltzen dela, Administaritza geldierazi edo asaldatu asmoz.

c) Kexak bidezko eta legezko interesik agertzen ez duenean.

d) Kexak funtsik edo helbururik gabeak edota eritzi pertsonal hutsak direnean. Horregatik, interesatuak aurkezten duen izkribuak motibatua egon behar du, eta gutxieneko arġudiaketa eman, kasua egituratzen duten gertakarien azalpena jasotzen duela, eta aldi berean aipatu ere egin beharko ditu ustez urratu diren oinarrizko askatasun edo eskubideak.

e) Arazo juridiko-pribatua —partikularren artekoa— denean. Kasu hauetan Arartekoa eskugabeko da, Erakundearen eginkizuna Administraritzak hirikideekiko duen portaera eta iharduketa begiratzea bait da, eta ez partikularrek elkarrekiko dutena.

f) Kexa azterturik, ikusten denean lehenago dagokion organismo kompetentearen aurrean ez dela planteatu.

Alde batetik, ez da Arartekoaren eginkizun ez kompetentzia Administraritzako organoak ordezkatzea; eta bestetik, Administraritzak eskubidea du alde zuzenetik hirikideen asmo eta nahiak aztertzeko, izan ere, ezin bait da ulertu Administraritzaren aldetik iharduketa irregular bat egon dela, honek halakorik ezagutzeko aukera ere izan ez duenean. Kasu honetan, eskaera egin duenari jakineraziko zaio non eta nola balia daitekeen eskubideaz eta hala Administraritzak bertako barne-kontrolako mekanismoen funtzionamendu normala bideratuko da.

g) Azkenik, Arartekoak ezin ditu ikertu erabaki judizialaren zain dauden kexak. Eta behin ikerketa bat hasita dagoela, pertsona interesatuak demanda edo errekurtsioa jarriko balu tribunaletan, Arartekoak bere iharduketak eten ahal izango ditu.

Kexa ez bada onartzen, interesatuak erantzun bat izateko eskubidea du Erakundearen aldetik; honek ezetza emateko izan dituen arrazoi edo arrazoiak azaldu beharko dizkio eta bere eskubideak defendatzeko bide egokienak zein izan daitezkeen informatuko dio; dena den, interesatuak bere aldetik ustez egokienak diren bideak erabil ahal izango ditu.

Arartekoaren erabaki eta ebazpenak ezin dira berez errekurritu, baina ez du ezerk galerazten Arartekoak lehen ametitu ez den kexa bat onar dezan, baldin eta, bere erizpiderako, kexa behin-betirako onartua izan dadin, interesatuak datu eta oinarri berriak aurkezten baditu.

Kexa-espeditenteen tramitazioa, Administraritzak Jardunbiderako Legearen menpe dagoen herri-Administraritzan ez bezala, erabat informala eta sumarioa da; beraz, edozein unetan har daitezke erabakiak, edo kexa zuzen ebazteko beharrezko izan daitezkeen ikerketak egin.

5.2. TRAMITAZIOA ETA AZTERKETA

A) Administraritzari informazioa eskatzea.

Behin kexa tramitera onartzen denean edo ofiziozko espeditentea hasita dagoenean, Arartekoak beharrezko iruditzen zaizkion ikerketa-neurriak hartuko ditu auzia argitzeko.

Dagokion administraritzza Sail, organismo, entitate edo bulegora errekurritu ahal izango du, epe laburrean goi-mailako nagusiek txosten idatzi bat igor diezaioten. Eta kexa Administaritzaren zerbitzura dauden pertsonen portaerari buruzkoa bada, kexa eragin duenaren hierarkiazko nagusiari jakineraziko dio, eta hala komeni bada, baita pertsonal-buruari ere, eta aldi berean kexa eragin duenari eskatuko dio kexa edo espedientearen objektu diren gertakari edo ingurukoei buruz, ezarriko dion epean, idatziz erantzun dezala, eta horrekin batera bidali ditzala beharrezko derizkion dokumentu edo aitorten osagarriak. Arartekoak kexa eragin duenari errekeritu ahal izango dio pertsonalki agertu dadin informatzera.

Ikusten denez, kexa bat Administaritzako sail edo organismo baten iharduketari buruzkoa izan daiteke, baina bere zerbitzura dauden pertsonen zuzenduta ere joan daiteke, Administaritzan betetzen duten lanarekin erlaxionatuta dauden kasuetan beti ere, eta gerta daiteke balizko bi kasuak batera jazotzea ere.

Normalean Autonomia Komunitateko menpean dauden sailen iharduerari buruzko informazio-eskaerak Idazkaritza Orokor Tekniko eta Parlamentuarekiko Harremanetarako Zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta hau arduratuko da eskara tramitatzeaz eta eskatutako informazioa jasotzeaz. Lurralde historikoetako administaritza organoetako iharduketari buruzko berri-eskaerak, gaiaren arauerara, dagokion Foru Diputatuari zuzendu behar zaizkio eta toki-Administaritzazkoak Alkateei edo dagokion entitateetako buruei.

B) Laguntzeko obligazioa

Ararteko Erakundearen ihardun eremuaren barnean dauden administaritza organoak behartuta daude legez, lehenetsun eta presakako izaeraz, eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten edo argibide denak ematera.

Funtzionario edo entitatearen baten ezetza edo zabarkeria, edo Arartekoari Administaritzako dokumentaziora iristeko bidea galerazi edo oztopatzen duen beste edozein jarrera hartzea bere lanaren trabatza hartuko da eta portaera horren berri emango zaio goi-mailako nagusiari.

Baldin eta funtzionarioak edo organismoak bere horretan jarraitzen badu, trabak eta oztopoak jarriz, informe berezi bat egin ahal izango zaio, eta gainera, nabarmen agertuko da Legebiltzarren aurrean aurkeztu beharrekoa den urteko txostenean, dagokion atalean, eta hala bere izen-abizena eta portaera argitaratuta agertuko da Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean eta baita argitaratuko den txostenean ere.

Azkenik, Arartekoak egoeraren larritasuna neurtuz, erantzukizuneko akzio judiziala burutu ahal izango du funtzionarioaren kontra; eta kriminalitate arrazoizko zantzuak agertuko balira, behartuta dago Ministeritza Fiskalari jakinerazteko.

C) Informazioaren balorazioa egitea eta erantzuna gertatzea

Behin Administaritzatik informazioa jasotzen denean —batzutan ahoz aho lortuta eta bestetan txosten idatziaren bidez— arloko aholkulariak aztertu eta baloratu egingo du, eta behar beste argia erizten badiu, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Aholkularitza Batzarrari, Arartekoak erabaki egokiena har dezan, honako erizpide hauen arauerara:

a) Administraritzaren erantzunak kexan biltzen diren gorabeherak argitzen baditu, kexak oinarririk ez zuela ikusten den moduan, Arartekoak halaxe jakineraziko dio alegazioa egin duenari, adieraziz Erakundeak espedientearen artxibatu duela. Era berean, kexaren xedea zen administraritzaren organoari ere jakineraziko zaio, eta, bidezkoa bada, eskainitako laguntzagatik eskerrak emango zaizkio. Iharduketa hauek espedientearen tramitazioari bukaera emango diote, beraz, segidan artxibatu egingo da.

b) Administraritzaren erantzuna aski ez dela erizten bada —bai ikerketaren punturen bat argitzen ez duelako, bai erdizka eta ilun diharduelako— organismoari izkribu berri bat igorriko zaio, eskatuz puntu ilunak argi ditzala edo osatu ditzala falta direnak ahalik eta azkarren.

c) Administraritzaren erantzunak aitortzen baldin badu tramitatu den kexak oinarria eta funtsa baduela, orduan bi kasu bereizi behar dira:

a') Administraritzak kexaren funtsa onartzen duen aldi berean, iragartzen du salatu den lege-urratze edo okerra zuzentzeko, behar diren erabaki eta neurriak hartu dituela. Kasu honetan, erantzunaren berri emango zaio erreklamazio egileari eta administraritzaren organismoari jakineraziko zaio Arartekoak bere iharduketak geldieraziko dituela, salatu den okerra zuzendu dela ziurtasunez jakin zain gelditzen delarik.

b') Administraritzak kexa oinarria baduela aitortu arren, adierazten du arazoa eraginkortasunez eta behar bezala ebazteko formula juridiko egoki baten beharra dagoela, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan oraindik ez dagoena. Kasu honetan Arartekoak Legearen 11 c) atalak aipatzen dituen gomendioak egin ditzake, urteko txostenean iradokizun gisa jasotzeaz gainera. Gomendio horiek zuzendu ahal izango zaizkie Eusko Legebiltzarrari, nahiz Jaurlaritzari, Foru Aldundiei, Udalei, edo horien menpeko erakundeei.

D) Erizpena eta onespina

Planteamenduaren mesederako kexaren tramitazioan zehar erabaki bat hartzeko premia duten arazoak planteatzen direnean, Aholkularitza Batzarra elkartuko da era informalean, eta eztabaidatu ondoren espedientearen tramitazioan zehar aholkulariei zalantzak sortu dizkieten kontzeptu edo tramiteko arazoei buruz erabakiak hartuko dituzte.

Behin aholkulariak kexaren ebazpenaren proposamena landu duenean, Aholkularitza Buruak gainbegiratu du eta honek beharrezko iruditzen zaizkion aldatetak edo zuzenketak egin ahal izango dizkio.

Aldizka, era informalean bilduko da Aholkularitza Batzarra deiturikoa, Arartekoak, Ondokoak eta aholkularitzako kideek osatzen dutena bera. Han, aholkulariek, astean zehar landu diren kexen erantzunak azaldu eta planteatuko dituzte, berauek aurrez Aholkularitza Buruaren oneritzia dutelarik.

Batzar honetan kexaren soluzioaren proposamena eztabaidatuko da, kasu bakoitzean egon daitezkeen aukera posibleak baloratuko dira, eta azkenik erantzun-erizpen bat onartuko da, eta Arartekoari aurkeztuko zaio, honek onespina eman eta sina dezan. Sinadura ekitaldi honetan burutuko da, aholkulariak landu duen

proposamenari aldaketak eranstea beharrezko ez baldin bada, edo biharamu-
nean bestela, behin erantzunaren izkribua Batzarrak adierazitako ildotik birlandu
denean.

Bakantea, aldi bateko ausentzia edo ezintasun fisikoa gertatzen bada, Arar-
tekoaren funtzio erabakiorrak Ondokoak hartuko ditu bere gain.

5.3. ARARTEKOAK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Arartekoak, behin ikerketa aldia bukatuta eta Administraritzak eta interesa-
tuak emandako informazioaren argira, hainbat neurri hartzea proposa dezake.

Esaterako, Sail, organismo edo entitate afektatuari adiskidetze edo akordio-
formulak proposatu ahal izango dizkio, kexen ebazpen baikor eta azkarra bidera-
tuko dutenak.

Administraritzak legalitatearen barnean ihardun behar duelarik, uste due-
nean haren iharduketak bidezko ez den ondorio batera eramaten duela, arrazoiz-
koa ez dena eta beharbada bai diskriminatorioa, Arartekoak honako neurriak
har daitezten proposa dezake:

a) Direlako egintza edo ebazpenak sortzeko erabili diren erizpideen aldake-
ta iradokitzea Administraritzari.

b) Aurrekoa nahikoa ez bada, hirikideentzat kaltegarri edo bidezkoak ez
diren iharduketak sorterazi duten edo ahal duten arau legal edo erreglamenduz-
koen aldaketa iradokitzea Administraritzara edo Legebiltzarrari.

Gogoan izan behar da Arartekoak beharrezko erizten dion guztietan formu-
latu ahal izango dituela, espediente edo kexa baten ebazpen eta ikerketa fun-
tzioen egikaritzan, autoritateei eta herri-Administraritzaren zerbitzura dagoen per-
sonalari legezko obligazioei buruzko oharpide, gomendio eta iradokizunak, nahiz
eta inolako kasutan ezin dituen aldatu edo deuseztu Administraritzako egintza
edo ebazpenak.

Arartekoak badu, beraz, ahalmenik Administraritzako funtzionari eta autori-
tateen aurrean, konpetentzia-eremuaren barnean, era guztietako gomendioak
egiteko. Arartekoaren gomendio hauek uzi edo pretentsio bat agertzen dute,
Administraritzaren aldetik beteko delakoan. Uzi horrek ez du zertan bat etorri
beharik derrigorrean eskaeragileak egin duenarekin, Arartekoak aberastu edo
aldatu ere egin bait dezake, bere erizpidearen arauera bidezko eta beharrezkotzat
jotzen badu.

VI. ATALA

**ARARTEKOA ETA LEGEBILTZARRAREN
ARTEKO HARREMANAK**

Bai Ararteko Erakundeak bai Eusko Legebiltzarrak Erakunde bien arteko harremana arautzeko premia agertu zuten. Horretarako Erakundeon ordezkarien adostasunez, arautegi labur bat burutu zen, Legebiltzarreko Lehendakariak 1989ko azaroaren 23an emandako ebazpenaz onartu zena eta interesgarria delakoan ondoren azaltzen duguna:

1. atala. Arartekoaren txostenak eta adierazpideak.

Ararteko eta Legebiltzarreko ihardutze-sail guztien arteko adierazpide oro Legebiltzarreko Lehendakariaren bitartez egingo da. Halaber, Arartekoak Legebiltzarrera igorri ditzan idazki guztiak, bertako Lehendakariari zuzenduko dizkio.

2. atala. Urteko txostena.

1. Urtero Arartekoak txostena aurkeztuko du Legebiltzarraren aurrean, haren gutxieneko edukia indarreango legediak ezartzen duena izango delarik. Txostena Mahaiaren aurrean aurkeztuko da egutegi-urte bakoitzeko lehen hiruhilabetealdian.

2. Txostena jaso, eta behin zermugatu eta bere bideak egin ditzan onartu ondoren, Mahaiak Gizaeskubide Batzordera igortzea erabakiko du; Batzorde horretako lehendakariak bilkura bateko gai-zerrendan ezarriko du, beti ere Batzordeko erroldan sartu zenetik hurrengo hilabete barruan izango den bilkuran.

3. Gai honek Batzordean izango duen biderapena honako hau izango da:

- a) Arartekoak txostenaren azalpen orokorra egingo du.
- b) Legebiltzar talde bakoitzak hamar minutuko txanda izango du, galderak egin edo argipideak eskatzeko.
- c) Arartekoaren erantzuna.

4. Geroago, urteko txostena Legebiltzar Osoko Bilkuran aurkeztuko da, honako ihardunbidea jarraituz:

- a) Arartekoak txostenaren laburpena azalduko du, ondoren bilkuratik irten-go delarik.
- b) Legebiltzar talde bakoitzak hamabost minutuko txanda izango du bere jarrera finkatu ahal izateko; txostenaren aurkezpena dela eta, ez dute

erabaki-salorik egiterik izango, nahiz eta ohizko araupideari ekin badiezaiote ere.

3. atala. Txosten bereziak.

1. Arartekoak, gaiaren presa edo larritasuna dela eta, bere kabuz ohizbesteko txostenik aurkez dezanean, horren biderapenerako ihardunbidea honako hau izango da:

a) Bere bideak egin ditzan onartu eta gaiaren garrantzia aztertu ondoren, Gizaeskubide Batzordera edo Osoko Bilkurara igorriko da.

b) Mahaiak ihardutze-erakunde eskuduna izendatuko du eta honek aurreko atalean aurrikusitako ihardunbideari jarraiki, gaiaz jabetuko da, onartu zenetik hamabost eguneko epea bete baino lehen.

2. Arartekoak txostenarekin batera igorriko duen idazkian espreski azaldu beharko du horren ohizbesteko izakera, baita zermugapen hori egiteko, bere ustez, dauden arrazoiak ere. Halaber, Osoko Bilkurara nahiz Gizaeskubide Batzordera bidal dezateneko gomendioa egiterik izango du.

4. atala. Arartekoaren bestelako txosten eta adierazpideak

1. Arartekoak bere argipideketen ondorioa jakinarazi beharko dio Legebiltzarrari ohizko txosten baten bitartez, argipideketa horiei ekitea Gizaeskubide edo Azterpide edo Argipide Batzorde batek eska ditzanean.

2. Halaber, beste edozein Batzordek Arartekoaren agertzea eska dezake, edo bere kabuz ager daiteke, beti ere Eusko Legebiltzarreko Arautegiaren 37. atalean aurrikusitako ihardunbideari jarraiki.

3. Halaber, Arartekoak Legebiltzarrari adierazpideak bidaltzerik izango du honako helburu hauekin:

a) Legediaren hutsuneak azaltzeko, beti ere, azaltze hori urteko txostenaren aurkezpena baino lehen egitea bidezkoa eta premiazkoa deritzanean.

b) Jaurlaritzak bere argipideketak egiteko beharrezko agiriak ukatuko balizkio, Gizaeskubide Batzordeari jakitera emateko.

c) Defensor del Pueblo-rekin egindako orotariko hitzarmenak direla eta, Gizaeskubide Batzordearen bitartez Legebiltzarraren onarpena eskatzeko.

5. atala. Legebiltzarrak Arartekoa eskuartez osatzea.

1. Arartekoak Erakunde horretako diruaurrekontuen egitasmoa urrian aurkeztu beharko du Mahaiaren aurrean, Legebiltzarrekoan sartu ahal izateko.

2. Arartekoaren diruaurrekontuen egitasmoa, egitura eta diru-atalen izenen aldetik, Legebiltzarrarena egiteko jarraitzen diren arauetara egokituko da.

3. Arartekoak diruaurrekontuen egitasmoan espreski azalduko du Legebiltzarreko lanarietatik behar duen eskuartea.

VII. ATALA

KEXEN SAILKAKO BANAKETA

Txostenaren atal honetan Sail bakoitzean aurkezturiko kexei buruzko azaleko azterketa egiten da, eta halaber kexen aukeraketa bat.

Sailen egituraketari dagokionez, gaiaren araberrako erizpidea ez baino, erizpide organiko bat jarraitu dela azpimarratu behar da. Hau da, Eusko Jaurlaritzako eta gainontzeko herri-Administraritzako organigramak eragin du gure aukeraketa, zenbaitetan kexaren kokaperenako zalantzak sortu direlarik, batez ere, arloren bat amankomunean edo gai bat baino gehiago hartzen dituzten kexak sailkatzeko.

Bestalde, kexen aukeraketari dagokionez eta halakoetan suertatu ohi den bezala, ez daude diren guztiak eta ez dira dauden guztiak.

Erabili den erizpidea izan da bukatu rik dauden espedienteak besterik ez azaltzea, halere, zenbait kasu bakanetan, tramitean izan baina interes bereziren bat sortarazi duten zenbait kexa ere ezartzea komenigarritzat jo da. Hautatze horren ondorioz, azaltzen diren kexak, dagoeneko burutuak direnak, zenbaitetan errazenak eta berehalako konponbidea eman zaienak dira, eta beste zenbaitetan, Administraritzak oker jokatu edo, aldiz, arrazoirik gabeko kexak direla berehala antzeman direnak, edo berebiziko larritasuna eta premiatasunezkoak izan eta irtenbide azkarra eskatzen zutenak.

Era berean, eta bigarren ondorio bezala, kexarik konplexuenetako zenbait tramitean daude, bai arazoaren irtenbidea korapilatsuagoa delako, bai azterketa sakonago bat eskatu edo inplikaturiko sektoreak ugari direlako, eta beraz, hurrengo txostenean izango dira aztergai.

7.1. LEHENDAKARITZA ETA JUSTIZIA

A) Sarrera

Sail honetan 29 kexa aurkeztu dira, eta hau, guztira aurkeztutakoen %6a da.

Estatistikazko banaketa, eragindako Administraritzaren arabera, hau da:

— Eusko Jaurlaritza	10
— Diputazioak	3
— Udalak	16

Sail honetan aztertu diren kasurik gehienak funtzio publikoaren gaiari dagozkie, bai estatutu erregimen orokorrari (proba selektiboak, lanpostuen hornikuntza, administraritza karrera, diziplina erregimena) eta baita soldata eta eskubide pasiboei ere.

Funtzio publiko doze eta osasunetari dagozkien kexak, hauen bereiztasunagatik, Hezkuntza eta Osasun Saileran sartu dira.

Bestalde, II Errepublikaren garaian lehen Eusko Jaurlaritzako Euskal Herriko Administrazio Autonomoan lanean jardun ziren langileen eskubide pasiboak buruzko eskariak aurkeztu dira.

Era berean, Administrazian euskararen erabileraz dagoen arautegia ezarri ez delako edo prozedurazko arazoengatik ere aurkeztu dira kexak.

Justizia azpisailari dagokionez, aurkeztu diren kexa batzuk eskuera mailakoak dira, abokatuak prozesua eraman duen moduarekin ados ez daudelako. Kasu hauek, abokatuaren ihardun okerraren kontra dauden iharduera legalak edo dagokion Abokatu Kolegioaren aurrean arazoa aurkezteko aukera azaldu zaie.

Bestalde, zenbait justizia eskuera prozeduren garapenean edo justizia erabakiak betetzeko epeetan eman diren atzerapenak planteiatu dira.

Kasu hauek, Erakundea sortu eta arautzen duen Legearen 9.2. artikuluan dio: "Arartekoak Justizia Administrazion funtzionamenduari dagozkien kexak jasotzen dituzenean, ikertzeko edo erabakitzeko ahalmena duen organuari eskuratuko dizkiola".

Horregatik, kasu horiek Defensor del Pueblo-ri eta kasu batzutan Ministerio Fiskalari igorri zaizkie.

Justizia Administrazion dagokionez esan behar da, bitarteko materialen zuzkidura aurrerapauso handiak eman badira ere, prozeduren iraupena gehiegizkoa dela eta honek justiziarengan mesfidantza sortarazten duela eta hirikideen eskubideak larriki eragiten dituela justizia prozesuak arrazoirik gabe luzatzen direlako, eta zenbait kasu larritan, Karta Magnako 24. artikuluan konstituzionalki jasotako jeezen eta epaitegien babes eraginkorrerako eskubidea hausten dutela uler daiteke.

B) **Kexen aukeraketa**

Euskal Autonomia Komunitatera itzuli nahi duen funtzionaria. (63/89)

Honako kexa hau, Ararteko Erakundean aurkeztu diren beste zenbait kexaren adizgarriztat har dezakegu.

INSERSOko funtzionari bat, lantokia Bizkaian zuena, lantoki aldaketarako lehiaketaren bidez Burgosera aldatu zen. Geroztik, INSERSOren ahalmenak gure Autonomia Komunitateak eskuratu zituen.

Pertsona honek orain Bizkaira itzuli nahi du lantoki-aldaketa bat dela medio, baina zenbait gestio egin ondoren ezer ez zuela lortzen ikusi, eta Ararteko Erakundera jo zuen.

Hemen gaia aztertu eta konplexotasun handikoa zela antzeman genion. Euskal Autonomia Komunitateak INSERSOren ahalmenak abenduaren 10eko 376/87 Dekretuaren bitartez eskuratu zituen. Geroxeago eta Lurralde Historikoei buruzko Legeari jarraiki, ahalmen horiek lurralde historikoetara pasa ziren, eta gure kasuan, hau da, Bizkaiko lurralde historikora, abenduaren 30eko 387/87 Dekretua dela medio pasa zen.

Funtzio Publikoaren Erreformatarako Presazko Neurrien 30/84 Legeak, eta Estatu Administrazion Funtzionarioen Administrazio-Egoeren Araudiak zera

ezartzen dute, funtzionari horiek Autonomia Komunitateetako funtzio publikoan erabat sartuko direla, eta haien administrarritza-egoera doakion Autonomia Komunitatean zerbitzu aktiborena izango dela.

Halaber, Estatu Administarritzako funtzionariak, lehiaketaren bitartez Autonomia Komunitateko lanpostuak betetzera pasatzen direnak, hau da, kexadunaren kasuan daudenak, Autonomia Komunitateko estatutu eta lege-araudiaren menpe geratzen dira, nahiz eta Estatu Administarritzako funtzionari izateari utzi ez.

Baina legediak, eta konkretuki gure Euskal Funtzio Publikoaren Legeak bere 57. atalean, Administarritza ezberdinen artean funtzionarien mugikortasuna bermatzen badu ere, aurretik lanpostuen zerrenda (bakoitzaren ezaugarriak, bete-beharreko baldintzak, ordain-osagarriak e.a. agertuko duena), eta dagokien balorazioa onartzea eskatzen du.

Legeak jasotzen duen asmo hori ez da oraindik gauzatu, ez gure Autonomia Komunitateko Administarritzan ez gainerako Administarritza gehiengoan; beraz, gure Autonomia Komunitatetik kanpo dauden funtzionariak eta bertara pasa nahi dutenek, lehen aipatutako zerrendak egin eta erlazioak eta balorazioak onar daitezzen itxaron beharko dute (kexadunaren kasua), horrek eta ez beste ezerk emango bait dio bide dagokion lantoki aldaketarako lehiaketari. Kexadunari guzti horren berri eman zitzaion bere egoera eta aukerakotasunak zehazki ezagutu zitzaiz, eta espedienteak itxi egin zen.

Lege hauspena behin-behineko lan kontratazioa dela eta. (440/89)

Kexadunak bidalitako idazkian, Gueñesko Udalak bi hilabetetarako administrarritza-laguntzaile lanpostu batetarako atera zuen deialdian eta geroko kontratazioan ere, indarreango legea hautsi zuela adierazten zuen.

Hauxe da gertatutakoa: Udaleko Gobernu-batzordeak 1989ko apirilak 17an egindako saioan, bi hilabetetarako administrarritza-laguntzaile bat kontratatzea erabaki zuen. Bertan aukeratze-azterketak ezarri ziren, hau da, makinazko idazketa, toki-Administarritzari buruzko gai bat eta euskarazko azterketa. Halaber, froga bakoitzaren balorazioa ezarri zen, funtzio publikoan sartzeko eskatu ohi diren eskakizunen araberakoa. Lanpostu horretarako deialdia apirilaren 18an atera zen Udaletxeko iragarki-taulan eta eske-idazkiak aurkezteko epea apirilaren 29an bukatu zen.

Kexaduna froga horietara aurkeztu zen, eta aukeraketa ez zuzena iruditu zitzaionez (berak zioenez lagunen artekoa) maiatzaren 4ean errekurtsua jarri zuen Alkatearen aurrean, honako akats hauek salatuz:

— Deialdia egiteko era eta eske-idazkiak aurkezteko epea (11 egun).

— Epai-mahaia; berez Gobernu-batzordeak osatu behar zuen, baina, azkenean Alkateak eta beste lau zinegotzik eman zuten puntuaketa, zinegotzi horietako hiru Batzordekoak ez zirelarik.

— Azterketen puntuaketa; hiru azterketetatik bat ez ezik, euskarazkoa alegia, besteak espezialistak ez ziren pertsonen puntuatu zituzten. Horretaz gain, ez zen funtzionarien ordezkaririk izan.

Errekurtso hori atzera bota zioten. Bestalde, hiru azterketa ikustea eskatu zuen, berea eta beste bi pertsonena, eta ez zioten erantzun, administrarritza-isiltasuna ezarriz.

Erakunde honek kexa hartu eta gaiari buruzko informazioa eskatu zuen. Behin informazio guztia aztertu ondoren, Udalaren prozedura ez zela zuzena atera zuen, ez epeari, ez epai-mahaiaren osaketari ez eta azterketak ikustea ukatzeari zegokionez alegia.

Aztertutakoaren arabera, idazki bat bidali genion Gueñesko Alkateari gure gomendioarekin, eta beste bat kexadunari gure ikerketaren emaitzarekin.

Alkateari bidalitako idazkiak zera dio:

“Kexadunak Erakunde honetan aurkeztu duen kexa aztertu ondoren, Udal horrek ateratako Administrarritza-laguntzaile baten behin-behineko kontratazioari buruzkoa alegia, eta Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 26. atalak ematen digun agintepidez, honako hau gogorarazi beharrean gaude:

“1. Behin-behineko pertsonalaren aukeratze azterketetarako deialdiak behar bezainbeste zabal daitezzen, gutxienez 15 eguneko epea izan behar dute, eta Buletin Ofizialean ezartzea ezinbestekoa ez den kasuetan, egunkarietan bederen argitaratuko dira.

“2. Epai-mahaia, osatuko dutenen espezialitate erizpidez eratuko da.

“Halaber, gogorarazi beharrean gaude, Administrarritza orok eskatzen zaizkion argipide guztiak eman eta erraztu behar dituela, eta agiriak eskatzen zaizkionean, behar badira kopiak ere emango dituela, eta guzti hori ahal den azkarren.”

Egun erdiko lanerako aldikako-kontratua duten udal garbitzaileek kontratua gehitzea eskatzen dute. (36/89)

Tolosa Udaleko Pertsonal Batzordeko idazkariak kexa-idazki bat bidali zuen Ararteko Erakundera, Udaletxeko garbitzaileei buruzkoa.

Kolektibo horrek egun erdiko lanerako aldikako kontratua izan du hasieratik. Udaletxeko aretoak gehitzean, garbitzaileen lana ere gehitu egin zen, baina Udalak garbiketa-enpresen zerbitzuak kontratatu zituen, aipaturiko langileek eskatzen zuten kontratuaren gehikuntza haintzakotzat hartu gabe.

Idazkiaren sinatzaileak adierazten zuenez, Udalbatzarrak 1989. urteari dago-kion Euskadiko toki eta foru Administrarritzaren zerbitzura dagoen pertsonalgoaren enplegu baldintzak erregulatzen dituen IX Akordioa hausten zuen, konkretuki 22. atala, zera adierazten duena: “enplegatu publiko guztiak urteko 1.692 ordulan egiteko eskubidea daukate”.

Kexa onartu eta behin aztertu eta gero, zera atera zen, Udalak ez zuela kexadunak eskuratzen zion obligazioa, hau da, lege ez zuela zertan enplegatu horien lansaioa gehitu behar eta dedikazio osoko enplegatu bihurtu alegia.

Lehen aipaturiko 1989. urteari dago-kion Euskadiko toki eta foru Administrarritzaren zerbitzura dagoen pertsonalgoaren enplegu baldintzak erregulatzen dituen IX Akordioak, bere 22.1. atalean zera ezartzen du: “langilearen dedikazio

banakakoa eta espezifikoki ordutegi murriztua duten kasuetan salbu, enplegatu publiko guztiek urteko 1.692 ordulan egiteko eskubidea daukate”.

Bestalde, aldikako kontratua duten langile fijoen egoera, udal langileen kasua, azaroaren 21eko 2104/84 Errege Dekretuak arautzen du, bere 11. atalak horrela definitzen dituelarik: “aldikako lansaioak edo ziklikoak burutzeko kontratatzen diren langileak dira... urteko egun guztietan aritzea eskatzen ez duten horietarako.”

Enplegu baldintzak erregulatzen dituen IX Akordioak, langileen negoziaketa kolektiborako eskubidea jasotzen du, eta beraz, enplegu baldintzei dagokien gutzia eta pertsonalgo gaian bidezko arazo guztiak negoziatzeko eskubidea.

Arartekoak udal Administraritzaren ihardupidean irregulartasunik aurkitu ez zuenez, kexadunari erantzun, eta espedientea itxi egin zen.

Gurasoekiko bizikidetasun-egiaztagiria eskatzen zuen. (293/89)

Kexadunak idazki bat igorri zuen Ararteko Erakundera, IRPF aitortpenean kenketa egiteko gurasoekiko bizikidetasun-egiaztagiria behar zuela, eta Udalean ematen ez ziotela salatzen zuena.

Esan bezala, aipaturiko egiaztagiria Udaletxean eskatu zuen, eta udal-errolan agertzen ziren datuak eta Udaltzaingo Buruzagitzak egindako txostenaren arabera ukatu egin zioten. Kexaduna ez zen gurasoekin bizi, beste helbide batean baizik, beraz, ez zegoen bizikidetasunik, eta horretan, hain zuzen, oinarritzen zen Udalaren ukatzea.

Baina kexadunak zioenez, hori egia bazen ere, bera gurasoaz arduratzen zen eta haien etxean pasatzen zuen lanak libre uzten zion denbora guztia.

Erakunde honek gaia aztertu ondoren, Udalaren erabakia zuzena zela atera zuen, zeren ez bait dago benetako bizikidetasunik bi helbide ezberdin daudenean, eta gainera, kexadunak onartzen zuen ez zuela gurasoen etxean lo egiten, berean baizik.

Beraz, ez zen irregulartasunik ikusi ez Udalaren ez Ogasuntza zerbitzuen ihardupidean, ez bait dago zerga kenketa egiterik beharrezko diren egiaztagiriari aurkeztu gabe, eta beraz espedientea itxi egin zen.

Udalak MUNPALi kotizatzeke beharrezkotasuna eta erretirorako eskubidea. (7/89)

Kexaduna Ararteko Erakundean aurkeztu zen honako hau azalduz: 1945-1955 bitartean Zumaiako Udaletxean aritu zen lanean administraritza-laguntzaile bezala, eta geroago 5 urtez aritu zen industri-enpresa batean Gizarte Segurantzari kotizatzen ziolarik. Orain, Gizarte Segurantzako erretiro-sarirako eskubidea izateko 15 urteko gutxiengo kotizazioa behar denez, kexadunak, lan egin zueneko Udalak bertan egindako 10 urteko zerbitzuengatik MUNPALi kotiza diezaion behar du, MUNPAL sortu eta arautzen duen maiatzaren 12ko 11/60 Legeari jarraiki.

Kexadunak Udaletxera jo zuen, eta hango Udaltzarrak kotizatzeke obligaziorik ez zuela erantzun zion, zeren Udaletxean lanean eman zituen urte horietan ez bait zen MUNPAL existitzen, eta mutualitate hori sortu zenean (1960. urtean), kexaduna ez bait zegoen jadanik lanean. Halaber, Udaltzarrak argudiatu zioe-

nez, lan egin zuen denboran ez zen inoiz lanpostuaren jabe izan, interino bezala aritu zen, eta hala eta guztiz ere, arazoa konpontzekotan ere kexadunak 65 urte betetzean izango zela, hau da, behartutako erretiroa hartzeko adina, eta ez lehenago, 60 urte betetzea ez bait da nahikoa baldintza.

Zenbait gestio egin zen, eta zegokion Udal Harremanekiko Foru Sailari informazioa eskatu zitzaion; honek berehala bidalitako txostenean agertu zuenez, kexadunaren kasua MUNPALeko estatutuko 2.4. xedapen iragankorrean jasotzen da, eta horren arabera behartutako erretiroa hartzeko adina betetzen duenean (65 urte) erretiroko saria eskatzeko espedientea egin eta Udaletxean aurkeztu beharko du, honek MUNPALeko Zuzendaritza Teknikoaren aurrean bidera dezan, erretirorako saria erabaki dezakeen erakunde bakarra.

Kexadunari zeintzu diren bere eskubideak eta 65 urte betetzean eman beharreko pausoak adierazi zitzaizkion, eta espedientea itxi egin zen. Kexadunak idazki bat igorri zuen Erakunde honetara bere esker ona agertuz.

7.2. HERRIZAINGOA

A) Sarrera

Ordena publiko eta seguritateari, trafiko, joku, etabarri buruzko kexak sartzten dira sail honetan, eta oro har ordena publikoari buruzkoak.

19 kexa aurkeztu dira sail honetan, aurkeztutako guztien %6a delarik. Hauetatik %37a toki Administrazitza iharduerei dagokie eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzari:

— Eusko Jaurlaritza	12
— Udalak	7

Kexak gaien arabera sailkatzen baditugu, gehienak trafikoari dagozkio, kexa aurkezlearen ustez ezarri zaion isuna ez da zuzena, arau haustea gertatu zenean ibilgailuko gidaria bera ez zelako.

Ustez irregularki egin diren etxe miaketengatik; beharrezko baimenik gabe taberna edo kafetegietan joku makinak edukitzeagatik eta Ertzaintzarentzat lanean ari diren batzuegan eragina duten zenbait ustezko erabakirengatik ere kexak aurkeztu dira.

Azpimarratu behar da, sail honetan eta beste Lurralde Autonomo batzutan gertatzen ez den bezala, Autonomia Estatutuak Euskal Herriari konpetentziak aitortzen dizkiola, eta ondorioz kexak Arartekoak bideratzen dituela, ez dira beraz Defensor del Pueblo-rengana eraman behar beste Autonomia Komunitetan gertatzen den bezala.

B) Kexen aukeraketa

Legezkontrato jolas-makina izateagatiko isuna. (145/89)

Kexadunak, Bilbon alokairu moduan taberna bat zuenak, idazki bat igorri zuen Ararteko Erakundera, honako hau azalduz. Ertzaintzak tabernako jolas-makina bat errequisatu zion legezkontrakoa zelako. Makina hori taberna hartu

zuenean bertan zegoenez, kexadunak tabernaren jabearekin hitzegin zuen eta azken honek zegokion isunaren kargu hartzekotan geratu zen.

Hala ere, denboraldi bat pasa ondoren eta taberna jada utzita zuelarik, kexadunak Herriogasuntzako idazki bat jaso zuen, non aipaturiko jolas-makinari zegokion isuna zela eta 600.000 pezeta eskatzen bait zitzaion.

Kexadunak, isuna ordaintzea berari zegokionik onartzen ez zuenez, eta gainera horretarako diru-baliabiderik ez izaki, Erakunde honetara jo zuen.

Zenbait gestio egin ondoren, arazoa konpondu egin zen, Herriogasuntzak kexadunak ez zuela isuna ordaintzeko erantzukizunik onartu bait zuen. Kexadunari gure gestioen berri eman ondoren, espedientea itxi egin zen.

Garabiak kotxea kaletik legezkontra erretiratu eta ondoren enkantean atera zuten. (39/89)

Kexadunak bere kotxea hilabete t'erdiz izan zuen aparkatuta kalean, gaiso izan bait zen. Bitarte horretan Udaltzaingoak egoera salatu, eta kotxea erretiratu egin zuen garabi-zerbitzuaren bitartez.

Kexadunak gertatutakoaren berri izan zuenean, deskargu-plegua aurkeztu zuen Vitoria-Gasteizeko Udaletxean, eta zortzi hilabete pasa ondoren erantzunik jaso ez zuenez, beste idazki bat aurkeztu zuen erantzun eske. Ordurako kotxea txatarratarako saldu zuten enkantean.

Udalak esandakoaren arabera, kexadunari abisua eman zitzaion kotxea hilabete baten barruan erretiratzen ez bazuen enkantean salduko zutela, alegia. Hori ez ezik, deskargu-plegua onartu ziotela, eta beraz, isuna eta ordaintzeko zuen gutzia erretiratu ziotela esan zioten.

Udaletxean abisu horren erantzuna jasotzen ez zutenek, enkanterako tramieta hastea erabaki zen, PBOean (Probintziako Buletin Ofiziala) argitaratu zelarik. Gero, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Merkataritza Saileko ikuskatzaile batek kotxea ikusi eta zirkulaziorako gai ez zela erabaki zuenez, enkantean atera eta txatarratarako saldu zuten 3.615 pezetatan.

Kexadunak salmentaren berri izan zuenean, aipaturiko diru kopurua soberan gainditzen zuen kalte saria eskatu zuen. Udaletxeak hori onartu ez zuenez, Ararteko Erakundera jo eta arazoa azaldu zuen.

Egun batzu geroago, zenbait gestio egin ondoren, kexadunak idazki bat bidali zigun udal Administraritzarekin akordio on batetara iritsi zela adierazten zuena, beraz, espedientea itxi egin zen.

Ertzaintzaren etxe arakatzeak. (109/89)

Alegatzaileak Erakunde honetan idatzi bat aurkeztu zuen adieraziz, Ertzaintzak bere etxea arakatu zuela behin eta berriz eta ilegalki, eta itxurazko arrazoirik gabe.

Arartekoa, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin harremanetan jarri zen eta jakin zuen, baietz, Ertzaintza alegatzailearen etxean bitan sartu zela: lehenengoan bere bi semeekin joan ziren, hauek ohostuak zituzten gauzak jaso zitzaizten eta ez zieten eragozpenik jarri ertzainei, beraz, hau ezin da etxe araketatzat jo.

Bigarrenean, juezaren aginduarekin izan ziren, Ertzaintzak lapurreta baten egileak erreklamatzailerean semeak izan zitezkeela susmatzen zuen, bi semeak bat baino gehiagotan arrazoi honegatik atxilotuak izan zirelako.

Ertzaintzaren aldetik hutsegiterik ez zela egon ikusi zen, beraien iharduketak legearen barruan egin bait ziren eta aurkeztutako kekak ez zuen arrazoirik, ondorioz espedientea artxibatu egin zen.

Zirkulazio Kodea haustea gehiegizko abiaduragatik eta ibilgailuaren gidariaren identifikazioa. (486, 639, 787, 813/89)

Sarritan aurkezten den kexetako bat zera izaten da, alegatzaileak dio trafiko agintari eskudunak santzionatu duela gehiegizko abiaduragatik, hutsegiteko unean ibilgailuko gidaria bera ez zenean, beste hirugarren bat baizik, eta hutsegiteko unean agintaritzako agenteek ez dutela ibilgailua gerarazi gidaria identifikatzeko. Batzutan gainera, Epaitegi Konstituzionalaren azaroaren 22ko 219/88 zenbakidun epaia (2. Sala) aldarrikatzen dute.

Arartekoak kasu hauetan, Zirkulazio Kodearen 278.2. atalaren edukia gogorarazi du, alegia, ibilgailuaren jabea honen gidaria identifikatzera beharturik dago hutsegitea jakinerazten zaionean, eta hori egiten ez badu, subsidiarioki egin den hutsegiteari dagokion isuna ordaintzera beharturik dago.

Ertzaintzako Krimen Ikerketarako Unitate Berezirako (UEIC) lanpostuak betetzeko deialdia (267/89)

Alegatzaileak Erakundera jotzen du azalduz, Ertzaintzako Krimen Ikerketarako Unitate Berezirako lanpostua hautaketarako frogetan parte hartzea eskatu zuela; 88-XII-2ko deialdi horretan, meritu bezala baloratzen zen eta lehentasuna ematen zitzaien ikerketarako unitate organikoetan edo Polizia Judizialean lanean jardundako funtzionarioei, gainera lan urteak, ikerketa lan eta iharduketak, etab. ere baloratzen ziren. Alegatzailea, meritu ugari zituen arren, ez zen frogetarako aukeratua izan.

Arartekoak, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailean egin zituen ikerketen ondorioz jakin zuen, deialdi horren bitartez bete nahi ziren lanpostuak zerbitzu komisioregimenekoak zirela eta beraz, plaza horietan behin betirako sartzeko ondorengo deialdi publiko bat egin behar zela eta, deialdiaren oinarriarekin adostasunean, hautaketaz arduratu zen Baloraketa Batzordearen ustez alegatzaileak ez zituela behar adina meritu aurrez hautatua izateko, eta gainera, beste hautagai batzuk meritu eta puntuazio altuagoa zutela.

Ikerketaren ondorioak interesatuari jakinarazi zitzaizkion esanaz, aurrez hautatua izateko behar zituen 5 puntuak ez zituela lortu, eta Erakundearen ustez Barne Sailaren jokabidea zuzena izan zela eta beraz, espedientea artxibatu egin zen.

Taberna itxi arazten diote baimendutako ordua baino lehen eragozpenak sortzeagatik (281/89)

Alegatzaileak Leioako Udalaren iharduketaren kontra egiten du protesta. Taberna baten jabea da eta egoitza publikoa denez goizaldeko 1,30etan edo

Zetan itxi dezake, lan eguna edo asteburua izatearen arabera, eta halere, Udaltzaingoak gaueko 11tan itxierazten dio, eta hau diskriminatzea dela uste du.

Arartekoak ikerketak egin eta jakiten du, egun batez soinuaren neurketa egin zela taberna horretan bizilagunen salaketagatik eta egoitza publikoak irekitzeko baimenean ezarritako mugak gainditzen zituela frogatu zen. Tabernaren beharrezko insonorizaketa lanak egin eta arazo hau konpondu zezan, Alkategoak hiru hilabeteko epea eman zion interesatuari. Hiru hilabete hauen buruan aipatutako lanak egin ez zirenez, egoitza berehala ixtea zen bidezkoa. Halere, eta malgutasun zeinu bezala, tabernariari egoitza zabalik edukitzen jarraitzeko baimena eman zion baldin eta hau gaueko hamaikak baino lehen ixten bazuen, horrela higiezinako biztanleek eragozpenik izan ez zezaten.

Udal txostenaren edukia alegatzaileari jakinerazi zitzaion, eta Udalaren iharduera zuzena izan zela ikusirik, espedientea artxibatu egin zen.

7.3. HERRIOGASUNTZA

A) Sarrera

Guztira 38 kexa aurkeztu dira sail honetan, 1989an aurkeztutako guztien %8a delarik.

Kexa aurkezle gehienek Toki Ogasuntzen ihardunagatik egiten dute protesta, eragindako Administrazaren banaketa ondorengoa delarik:

— Eusko Jaurlaritza	3
— Diputazioak	13
— Udalak	22

Toki Ogasuntzen barruan, kexa gehienak Ibilgailuen zirkulazioari buruzko Udal Zergari dagozkio eta bereziki ibilgailuen trasferentziatik sortutako arazoak aipatzen dira, zergaren urteko kuotari hainbanaketa ezarri ez zaiolako, ondorioz administratuak ibilgailua urteko egun gutxi batzutan erabili duen arren urte osoan erabili izan balu bezala ordaindu behar du. Trasferentziaren bideraketan edo ibilgailuaren titularitate aldaketan hutsegitetik sortutako arazoak ere aurkeztu dira, zerga antzinako titularrari kargatzen zaiolako eta ez berriari.

Toki Ogasuntzen kontrako beste kexa batzuk, udal zerbitzuen erabilera eta gozamenagatik tasa bereizgarrien ezarpenari dagozkio, erabiltzaileak udalerriko biztanleak izan ala ez.

Foru Ogasuntzen aurka aurkeztutako kexei dagokionez, gehienek Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren likidazioekin ados ez egotea azaltzen dute, Balio Gehituaren Zerga, Ondare Transmisioen gaineko Zerga, Ondorengoan gaineko Zerga, eta beste batzuk ere salatu dira, baina portzentai txikiagoan.

B) Kexen aukeraketa

Ibilgailu-zerga: urte osoko kuotaren ordainketa hainbanatua. (146, 229, 154/89)

Hiru kexa jaso ziren auzi berdina azaltzen zutena: kexadunei zegokien Udalek (Bilbo, Berango eta Sestaokoak hain zuzen) Ibilgailuekiko Udal Zergaren

urteroko ordainketa eskatzen zieten, nahiz eta beren kotxeek urtearen epe labur batez besterik ibili bazuten ere. Aurkeztutako kexa horietatik, bitan urtea bukatu baino egun batzu lehenago matrikulatu zituzten kotxeak, abenduaren 16 eta 30ean konkretuki, eta urte osoari zegokion ordainketa egin behar izan zuten.

Hirugarrenaren kasuan, kotxea desegin zezaten eraman behar zuenez baja eman zion, baina urte osoko zerga ordainerazi zioten. Urte berean kotxe berri bat erosi eta alta eman zion irailean, eta orduan ere urte osoko zerga ordaindu behar izan zuen. Beraz, nahiz eta urte osoan sei bat hilabete besterik kotxerik erabili, urte osoan bi kotxeren titularra izan balitz bezala ordaindu behar izan zuen.

Kexadunek ez zeritzoten bidezkoa urte osoko ordainkizunari, eta kuotaren ordainkizuna hainbanatua izan zedin eskatzen zuten, kotxea benetan zirkulatutako denborari egokitutako ordainkizuna eta ez gehiagorik ordaintzearren.

Kexak onartu eta aztertu ondoren, zergaren urterokotasuna legezkoa zela atera zen. Hain zuzen ere abenduaren 30eko 3250/76 Gobernu Ministeritzaren Errege Dekretuak, Toki Ogasuntzari buruzkoak, bere 83. atalean zera esaten du, ibilgailu-zerga, ibilgailua matrikulatzen denean zorpidetuko da lehenengo aldiz, eta hortik aurrera urte bakoitzeko lehenengo egunean. Halaber, ordainkizunaren diru kopurua ez dela inolaz ere gutxituko ezartzen du.

Gauza bera ezartzen du apirilaren 18ko 781/86 Lurralde Administraritzaren Ministeritzaren Legegintzako Errege Dekretuak, zeinaren bidez toki-jaurbide mailan dauden indarreango legeko erabakien eraberritutako testua ontzat ematen bait da. Beti ere, zergaren zenbatekoa hainbanatzeko aukera, ibilgailuaren baja, eskualdatze edo matrikulatze kasuetan emango dena, Udal bakoitzaren eskura uzten duelarik.

Azkenik 39/88 Legeak, zeinaren bidez Toki Ogasuntzak arautzen bait dira, eta konkretuki bere 97.3 atalak, hiru lurralde historiko bakoitzeko foru araudira hitzez hitz eramanez, zera ezartzen du, Udalek ibilgailu-zergaren zenbatekoa hiruhilabete naturaletan hainbanatzera behartuta daude ibilgailua lehenengo aldiz eskuratzean eta baja ematerakoan. Beraz, legeari zegokionez kexaren motiboa argitu geratu zen.

Udal Administraritzen ihardupidea legepekoa zela ikusirik, gure gestio eta eritzia azaltzen zuen idazki bana bidali genien kexadunei, eta espedienteak bukatutzat eman genituen.

Udal pizinarako ordainkizuna eta kuotaren ezberdintasuna erroldatzearen araberakoa. (540/89)

Arabako Elciego herrian etxe bat izan, baina Vitoria-Gasteizen bizi eta erroldatuta dagoen gizon batek idazki bat igorri zuen Erakunde honetara. Idazkian azaltzen zuenez, Elciegoko Udaletxeak udal pizinarako bi ordainkizun mota ezarri zuen, bata udalean erroldatutakoentzat eta bestea gainontzekoentzat. Bigarren talde honetan zeudenei begira, ez zuten haintzakotzat hartzen herrian ondasunen bat zuten ala ez, eta beraz, Toki Ogasuntzako zergadunak ziren ala ez.

Gaia aztertu eta Elciegoko Udaletxetik bidalitako txostena jaso eta gero, zera atera zen, udal pizina zerbitzuen ordainkizuna Elciegoko Zergalaritza Agintarudiak (11 zka.), Arabako Foru Diputazioak onartutakoak, arautzen zuela alegia. Araudi horretan agertzen denaren arabera, bai tenporadarako abonauk,

bai famili-abonuak gutxitzen duten beherapen eskubidea izateko ezinbestekoa da udalean erroldatuta izatea.

Hala eta guztiz g're, Erakunde honek Elciegoko Alkateari igorritako idazkian, ordainkizunak bateratzea gomendagarri ikusten genuela adierazi genion, zeren zenbaitek ordainkizun ezberdin horiek, bereizkeriatzat har zitzakeen, batez ere piszina erabiltzen zuten askok eta askok bertan errolatuak ez izan arren Toki Ogasuntzako zergadun bait ziren.

Udal Administraritzaren aldetiko lege hauspenik ez zegoenez, kexadunari gure gestio eta eritziaren berri eman eta espedientea itxi egin zen.

Hiri Kontribuzioaren gaineko Zergaren likidazioa etxebizitzaren aurreko titularrari egin zitzaion. (187/89)

Kexadunak dio, duela zazpi urte saldu zuela bere aurreko etxebizitza, eta Gipuzkoako Foru Ogasuntzak Hiri Kontribuzioaren gaineko Zerga berari pasatzen diola, Ogasuntza honen aurrean behin baino gehiagotan kexa azaldu arren.

Ogasuntza, Finantza eta Presupostuen Foru Sailarekin harremanetan jarrita, esan zitzaigun interesatuak inprimaki bat bete beharra zeukala eta hori bete ondoren arazoa konponduta geratzen zela eta zerga ez zitzaiola aurrerantzean antzinako jabeari kargatuko.

Alegatzaileari jakinarazi zitzaion inprimaki hori bete behar zuela Foru Ogasuntzan eta horrela egin zuen, eta aurrerantzean Hiri Kontribuzioaren gaineko Zerga etxebizitzaren jabe berriari kargatuko zaio.

Foru Administraritzaren ihardueran hutsegiterik aurkitu ez zenez, espediente artxibatu egin zen.

Familia ugarietzako zergarintze handiagoen eta ikasketak emateko baremoen aldaketa eske. (575/89)

Kexadunak, ikasleak diren bost seme-alaben aita, Erakunde honi aurkeztutako idatzian laguntza fiskalen eskasia eta ikasketetarako familia ugarietzat dauden laguntzen urritasunagatik kexa azaldu zuen. Esaten zuenez, diru sarrera duinak izan arren, familiako zazpi partaideen premiei erantzuteko urriak gertatzen zaizkio.

Erreklamatazaileak zioen, egungo sistema fiskalarekin ez dagoela ados eta eskatzen zuen IRPFan seme-alabengatik kentzen den kopuruaren igoera ezar dadila eta baita, diru irabazbide bat (bere kasuan bezala) edo gehiago duten familietikiko trataera fiskala ere berdintzea.

Ikasketetarako laguntzei dagokienez, bekak emateko gaur egun dauden baremoak zuzenak ez ziren bere ustez, bere seme-alabek ezin bait zuten aukera horretan sartu, ondorioz, familia unitateko partaideko sarrera maximoen konputua gutxitzearen aldekoa zen.

Beharrezko informazioa eskuratu eta kasua aztertu eta gero, ondorio hauek ateratu ziren:

Aspektu fiskalari zegokionez, IRPFa Foru Diputazioek biltzen dute Kontzer-tu Ekonomikoaren Legearen arabera. Gure Lurralde Autonomoan eta Estatuan ezar daitekeen arautegia, orohar maila berekoa da. Halere, Foru Diputazioek ezarri duten zerga erregimena familia dutenentzat onuragarriagoa da Ogasuntza

Ministerioak ezarritakoa baino. Esate baterako, Gipuzkoan, kexa hemendik bait dator, azken urteotan ezarri diren kuota kenketa hauek aipagarriak dira, eta Estatuan ez dira ezarri:

– 15.000 pta. etxetik kanpo ikasketak burutzen dituen seme bakoitzeko.

– 2.000 pta. seme bakoitzeko, gaisotasun gastuengatik, hauek zuritu beharrik gabe.

Ikasketetarako laguntzei dagokienez, urtero egiten diren deialdietan, beka eskuratzeko errenta maximoa, familiako partaide kontagarrien kopuruaren arabera gehitzen dela esaten da. Taula hauen arabera, erreklamatazilearen diru sarre-
ra, taula horietan zazpi pertsonentzat ezartzen den kopuruaz gainetik dago.

Baremo hau egiterakoan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bi eragozpen nagusi ditu, alde batetik aurrekontuen muga eta bestetik ekonomikoki bitarteko gutxien dituzten ikasleei ikasketak burutu ditzaten erraztasunak emate-
ra legalki behartuta egotea. Ondorioz, lehentasunak ezartzerakoan ekonomia maila baxuenak dituzten familietako ikasleei ematen zaie lehentasuna.

Administraritzak bi kasuetan ezartzen zituen erizpideak zuzenak zirela eta bere iharduera arauetara egokitzen zela ikusirik, espedientea itxi egin zen, guztia-
ren berri kexa aurkeztu zuenari azaldu ondoren.

1936. urtean Euskadiko Behineko Gobernuak inkautatutako ondasunen erreklamazioa. (38/89)

1936. urtean kexadunak zenbait gauza sartu zuen Banco Guipuzcoano-ko alokairu kutxa batean. Kutxan, bitxiak, urrezko eta zilarrezko txanponak eta banku dokumentu eta bileteak zeuden. 1937ko urtarrilean, notario aktan adierazten denez, Euskal Gobernuko Ogasuntza Interbentore Nagusiaren aginduz ireki zen kutxa, Gobernuaren izenean aipatutako txanponak hartu zirelarik.

Urte bereko azaroan berriro kutxa zabaldu zenean, ikusi zen hau bortxatuta zegoela eta bertako dokumentu batzuk desagertuak, guzti honen akta ere altxatu zelarik.

Kutxaren jabeak geroago bitxiak berreskuratu zituen, baina ez urrezko txanponak eta ezta bankuko bileteak ere, eta horregatik jo zuen Erakundera Arartekoaren tartekaritza eskatuz, 1937an Euskal Gobernuak hartu ziona itzulu ziezaioten.

Kasua tramitera onartu eta aztertu ondoren, ikusi zen Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Inkautatutako Ondasun eta Eskubideen Itzultzeari buruzko urriaren 30eko 2/1984 Legean sartzen zela. Lege hau hemen azaltzen den bezalako kasuak konpontzeko onartu zen eta Ogasuntza eta Finantzen Sailak indarrean sartu zuen ekainaren 18ko 256/1985 Dekretuaren bidez (EHAO 85-8-27) gartu zen.

Aipatutako legean esaten zen, inkautatutako ondasunak itzultzeko eskaria arautegia indarrean sartu eta gehienez bi urtetara egin behar zela, beraz 1987ko abuztuaren 28a baino lehen.

Baina, erreklamatazileak ez zuen eskaria Ogasuntza eta Finantzen Sailean aipatutako epean aurkeztu, horrela, azaltzen ziren ondasunak itzultzeko eskaera eskubidea epez kanpo zegoen. Eta, 1989ko martxoan erreklamatazileak bere

idatzia Arartekoari igorri zionean ezarritako epea erabat gaindituta zegoen, beraz ezin zuen erreklamatu inkautatu zitzaiona.

Guzti hau interesatuari azaldu eta Administraritzak legearekin bat jokatu zuela ikusirik, iharduketa amaitutzat eman eta espedientea artxiboan sartu zen.

*Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren azalpenak ageri zituen liburu-
txoan hutsegiteak. (492/89)*

Alegatzaileak dio, bere jabepeko higiezin bat saldu zuela eta IRPFaren aitordena egiterakoan, Bizkaiko Foru Ogasuntzak egindako liburutzoko azalpenen arabera, aitordenean higiezinaren balioaren gehikuntzari 1,15eko koefizientea erantsi ziola. Foru Ogasuntzak aitordena zuzendu egin zion, kasuari ezarri beharreko gehikuntza, proportzionalitate araua ezartzetik ondorioztatzen zen 1,15ekoaren ordez Zergaren Arautegiko tauletan azaltzen zena ezarri behar zela esanaz.

Erakundeak kasua ikertu eta aztertu zuen eta ikusi zen, alegatzaileak bazuela arrazoi zati bat, izan ere Aitorpenerako ateratako laburpen liburutzoa hitzez-hitz interpretatuz gero, ezarpenetik ondorioztatzen zen koefizientea 1,15ekoa zen; aldiz, 35/85 Foru Dekretuko 9. xedapen transitorioan jasotzen diren tauletara joz gero, zaineran arabera Zergaren Arautegia onartzen bait zen, ezarpenaren koefizientea handiagoa zen alegatzailearentzat, zergapeko zenez astunagoa gertatzen zelarik.

Kasu honetan, Arartekoak ulertu zuen eta horrela jakinarazi zion interesatuari, Foru Arautegiaren eta gida liburutzooaren arteko ustezko kontraesana kontuan izanda, lehenengoari eman behar zitzaizola lehenetsuna, azken finean liburutzooak, aipatutako foru araua laburtzea besterik ez bait zuen egiten. Eta gauzak horrela IRPFaren likidazioa ongi zegoen, nahiz eta Foru Ogasuntzak zegokion ardura bere gain hartu behar zuen ere, instrukzio liburutzooan gauzak azaltzen ziren eran ustez engainurako bidea zabalik uzten zelako.

7.4. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA

A) Sarrera

Hezkuntza Sailean aurkeztu eta Erakunde honek bideratu dituen kexak 52 dira, onarturiko espediente guztien %11a beraz.

Heziketa unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa, ikasketetarako laguntzak orohar eta pertsonal dozentearen arazoak dira bereiztu behar diren maila eta arloak, hauetan izan bait dute eragina hartutako erabakiek.

Maila ez-unibertsitarioan aurkeztu diren kexen funtsa bereziki, ikasleek eskubidez eta gogoz ikasketak egiteko aukeratu duten hizkuntz eredia Lurralde Autonomoko ikasketak zentru askotan ez egoteari dagokio.

Irakaskuntza unibertsitarioari dagokionez, Arartekoaren eskuhartzea eskatu duten zenbait kexa aurkeztu dira, azterketak errebisatzeko irakasleek jarri izan dituzten trabengatik.

Honi dagokion araudia egon arren, adibidez Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak (1985eko martxoaren 28an dekretuz onartuak, ekainaren 11ko B.O.E.), 132. ataleko 1 letran dio "idatzizko eta ahozko azterketen ebaluaketa, zentruko

Arautegian ezarritako erabakiekin adostasunean egingo da” eta j letran, “ kalifikazioen errebisatzea, ezartzen den arautegiarekin adostasunean” egiteko eskubidea aitortzen da, halere azterketen errebisio puntuala noiz egin behar den ez da zehazten.

Bekapolitika, familien alde ekonomikoak desagertarazteko bideetako bat, sarritan formalistegia eta zurrunegia da. Bekak eskuratzeko ezarrita dagoen maila ekonomiko minimoa igotzea komeniko litzateke eta horrela, hezkuntzarako oinarriko eskubidea dela eta berdintasun printzipioa praktikan jarriko litzateke, Konstituzioko 27. atalarekin adostasunean.

Pertsonal dozentea bere etorkizun profesionalarekin kezkatu ageri da, batez ere Oinarrizko Heziketa Orokorrean B eta D hizkuntza ereduak piskanaka ezartzen dihoaztelako eta honen ondorioz zentruz aldatu behar izateak beren arazoa modu egokian ez duela konpontzen uste dutelako.

Aztertu diren baina soluzio erabat asegarrik izan ez duten beste arazo batzuk izan dira: Donostiako eta Gasteizko antzinako Gizarte-Graduaduen Mintegietako ikasleen etorkizuna, eta irakaskuntza publikorako zentruetako jangelen behin-betiko arautzea.

B) **Kexen aukeraketa**

Irale programa eta irakaskuntza pribatua. (224/89)

OHOko irakasle batek, konzertatua den ikastetxe pribatu batean ari denak, IRALE programan sartu nahi zuen. Hezkuntza Sailak Bilbon duen Lurralde Ordezkaritzara jo eta zegokion eskabidea aurkeztu zuen. Han argipideak eman zizkion funtzionariak, ikastetxe pribatuetakoa irakasleek ez zutela aipaturako programan parte hartzerik esan zion.

Erabat harrিতa, irakasle horrek Erakunde honetan azaldu zuen gaia.

Kexa onartu eta Hezkuntza Sailera jo genuen gaiari buruzko informazioa lortzearen. Jasotakoaren arabera zera baieztatu zen, ikastetxe pribatuetakoa irakasleek ere bazutela IRALE programan parte hartzerik alegia. Horretarako euskarazko ezagupen-maila neurtzeko azterketa bat egin behar da. Gero lortutako puntuaketa eta ikastetxe pribatuetakoa ateratako leku kopuruaren arabera aukeraketa egiten da.

Kexadunari IRALE programan parte hartzerik bazuela eta horretarako eskatzen dituzten betebeharrekoen berri eman ondoren, espedientea bukatutzat eman zen.

Ez omen zioten Autonomia Komunitate honetan onartzen Estatu osoan balio zuen diploma. (159/89)

OHOko irakasle batek lanpostua eskatu zuen Arabako Hezkuntza Ordezkaritzan, Heziketa Bereziko irakasle-ordezketza bat betetzeko. Izenematearekin batera zegokion agiri-sorta aurkeztu zuen, baina eskatzen zen titulazioa betetzen ez zuela eta, Ordezkaritzak ez zuen eskaera onartu.

Erabakiaren aurka zegoenez, aipaturiko irakasleak Erakunde honen aurrean aurkeztu zuen gaia.

Hemen gaiari buruzko informazioa eskatu zitzaion Hezkuntza Ordezkaritzari, eta hortik bidalitako txostena aztertu ondoren, kexadunak ez zuela legezko erabakiek eskatzen duten titulazioa frogatu zen. Aipaturiko Erabakiek honako hau ezartzen dute:

Heziketa Berezian irakasle bezala aritzeko, hurrengo betekizun hauetariko bat behar da:

– OHOkoko irakaslea, Pedagogia Terapeutika espezialitatean tituluduna (2925/1965 D).

– OHOkoko irakaslea, eta Filosofia eta Letretan lizentziatua, Pedagogia Saileko Heziketa Berezian hain zuzen (72-6-16ko A).

– Filosofia eta Letrak (Hezkuntz Zientzien Sailean) edo/eta Filosofia eta Hezkuntz Zientzietan (Hezkuntz Zientzien Sailean) lizentziatua, Pedagogia Terapeutika edo Heziketa Berezian espezialdua (83-11-7ko A).

Kexadunak aurkeztu zuen diploma, "Heziketa Berezia: Lehen Hurbilketa" izeneko ikastaro bati zegokiona, eta UNEDen egindakoa (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala), ez dago baliokidetu, hau da, Hezkuntza eta Zientzien Ministeritzak ez du diploma hori baliokidetu aipatu den eginkizunetarako (89-2-20 A).

Beraz, Administrazaren ihardupidean irregulartasunik aurkitu ezenez, kexadunari erantzun zitzaion eta espedientea bukatutzat eman zen.

Irakaslegoa eta eredu linguistikoak eskolan. (30/89)

Gaztelania hizkuntza soilik duen OHOkoko irakasle talde batek, idazki bat igorri zuen Ararteko Erakundera. Idazki horretan, irailaren 26ko 2339/80 Errege Dekretuak, zeinaren bidez zenbait zerbitzu Estatutik Euskal Herriko Autonomia Komunitatera eskualdatu bait ziren, haien interes pertsonal eta lanbide mailakoak eragozten zituela aipatzen zuten. Konkretuki, irakaskuntza publikoan ematen ari den B (elebiduna) eta D (euskarazkoa) ereduaren aldirioaldiko ezar-tzeak kezkatzen zituen.

Irakasleek idazkian azaltzen zutenenez, A ereduko gelak lehenago betetzen badira ere, horietan dira lehenik ixten direnak, B eta D eredukoak mantentzen dituzten bitartean. Hori dela eta, A ereduko irakasleen bajak izaten dira eta horien ordez maila linguistiko ezberdineko beste batzuk ordezkatzen dituzte.

Halaber, zenbait irakasleri ikasgela itxi eta lantoki aldaketa hitzez esan izan zaiela salatzen zuten.

Idazkian jarraitzen zutenenez, horrek kalte handia dakarkie irakasleei, zeren bitako bat, edo onartzen dute ikasgela ixtearena eta "concurso" delako lehiaketara jo behar dute (herri edo hiri batean izaten den lantoki aldaketarako lehiaketa), edo behin-behineko irtenbide moduan Eusko Jaurlaritzak eta zenbait sindikatok sinaturiko konbenioari atxekitzen zaizkio, behin konbenioaren indarreangotasuna bukatu ondoren aurreko egoerara itzuli eta lantoki lehiaketara jo beharko dutelarik.

Guzti horren aurrean zera proposatzen zuten: lantoki aldaketarako lehiaketaren bitartez hiri edo herri batetan behin-betiko lanpostuaren jabetza lortu zuten irakasleek, hiri edo herrian bertan behin-behinekoak betetzen dituzten lanpostuak

betetzeko lehentasuna izan dezaten, edo Helduen Hezkuntza Iraunkorreko programako lanpostuak edota PAT (Pedagogi Aholkutegiak) delakoak betetzeko aukera eskain diezaieten.

Halaber, mota horretako egoerak sor lezakeen kalte ekonomikoa dela eta, kalte-sariak ezar daitezzen eskatzen zuten.

Bestalde, aipaturiko egoerak doakion irakaslearengan sor lezakeen kalte fisikoa eta psikikoa dela eta, beste zenbait neurri proposatzen zuten, halanola, aldizkako mediku-ikuskaketak eta alde zurreko jubilazioak. Azkenik, indarreango legediaren azterketa eta aipaturiko egoera behin-betiko bideratuko duen araudia-
ren ezarpena eskatzen zuten.

Gaia aztertu eta informazioa eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari, zeinek honako hau azaldu zuen:

“Bai Espainiako Konstituzioak 3. atalean nola Autonomia Estatutuak 9. atalean, euskal Autonomia Komunitateko lurraldean gaztelaniak eta euskarak duten ofizialtasuna, eta bertako guztiek bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea onartzen dute”.

Autonomia Komunitateko erakunde amankomunek bi hizkuntzok ezagutu eta erabil daitezeneko berrapidean beharrezkoak ziren zenbait neurri ezarri zuten. Bide horretatik, azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa atera zen. Lege horren 16.2. atalak zera ezartzen du: “Eusko Jaurlaritzak araupetuko ditu ikastegi bakoitzean erabili beharreko hizkuntza-ereduak, guraso edo tutoreen nahia eta eskualdeko gizarte-hizkuntzaren egoera kontutan izanik”. Aurrerago, 17. atalean: “Eusko Jaurlaritzak ikaslegoari nahi-taetzko ikastaldiak bukatzerakoan, bi hizkuntza ofizialok erabiltzeko adina ezagutuko dituzten berrapidean neurriak hartuko ditu... eta hori lortzeko (19. atalean jarraituz) irakaslegoa arian-arian euskalduntzeko bideak jarriko ditu.

Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak aipaturiko Legea garatzen du, eta hizkuntza ofizialek irakaskuntza ez-unibertsitarioan izango duten erabilera ezartzen du, A (euskara asignatura bezala), B (elebiduna) eta D (gaztelania asignatura bezala) eredu linguistikoen arabera izango delarik.

Euskal gizartearen garapenak eta euskalduntze prozesuak D ereduaren lehentasuna eragin dute; horren ondorioz, Euskal Herriko Administrazioak, A eta B ereduaren ari direnei egoerak sortarazi liezazkiekeen kalteak aurreikusirik lortzeko hauek hartu ditu: IRALE programa, irakaslegoa euskalduntzekoa; desagertu diren lanpostuen jabe-dunentzat, zerbitzu-eginkizunen ardurua 10 kilometrotako erradioan; eta alde zurretiko erretirorako laguntzak.

Hezkuntza Saileko txostenak honako hau azalduz bukatzen du: “Sail honek bide horretatik jarraitzeko asmoa du, eta irakasle-egoeraren kalteak ez daitezzen beharrezko neurriak hartuko ditu”.

Beraz, Administrazioaren ihardupidean irregulartasunik ikusi ezenez, kexadunei erantzun zitzaizkien, eta Erakunde honek amaitutzat eman zuen bere ekinbidea.

Irakasle-egoeraren lantoki aldaketarako lehiaketetan egiten den baremazio sistema. (568/89)

Batxilergoko ikastegi batean ari den irakasle batek kexa bat aurkeztu zuen Erakunde honetan, lantoki-aldaketarako lehiaketetan erabiltzen den baloraketa sistemarekin ados ez zegoela adierazten zuen kexa hain zuzen.

Konkretuki, honako hau azaltzen zuen:

Lanpostuaren jabedun den irakasle bezala, LHn (Lanbide-Heziketa) lau urtetan zehar klaseak ematen aritu ondoren, Batxilergo Ikastegirako lehiaketa irekia gainditu zuen. Urte berean, beste zenbait lanpostu betetzeko, lehiaketa mugaturako dei egin zen BBBn klaseak ematen sei hilabete baino gehiago zeramaten irakasleentzat. Lehiaketa mugatu horretan, gai-zerrenda murriztagoa izan zen lehiaketa librerako ezarritakoa baino, eta gainera, batxilergo ikastegian akurapen-bidezko edo interino moduan emandako denboraldia kontutan hartu zen. Kexadunari, berriz, ez zitzaion LHn emandako denbora kontutan hartu, lanpostua lehiaketaren bidez lortu bazuen ere. Guzti horren ondorioz, kexadunaren egoera, irakaskuntza publikoan denbora gutxiago zeramatenen egoera baino okerragoa izatea eragiten zuen.

Idazki berean beste gai bat aurkeztu zuen, zerbitzu-eginkizunen lanpostuen esku-ematearena alegia. Kexadunak, norbere mailako arazoak zirela eta, horietako lanpostu bat eskatu eta ukatu egin zioten. Nahiz eta lanpostu bat baino gehiago izan, ikastetxe berri bat sortu bait zen, kexadunak esandakoaren arabera, interinoek edo geroko lehiaketa gainditu zuten irakasleek beteko zituzten lanpostu horiek, eta ez zitzaion bidezkoa iruditzen.

Erakunde honek Hezkuntza Sailera jo zuen informazio bila eta handik bidalitako txostenean honako puntu hauek zehaztu zituzten: Lehiaketa mugatua gainditu zuten lehiatzaileek irekia gainditu zuten haiekiko duten lehentasuna, Hezkuntza eta Zientzien Ministeritzaren 1983ko martxoaren 17ko Aginduaren IX puntuan oinarritzen da (martxoaren 22ko EBO). Lehiaketa gainditu ondoren behin-behineko lantokia izendatzen zaie, eta geroago, lantoki aldaketarako lehiaketaren bitartez behin-betikoa izendatuko zaie. Izendapen hori, aintzinasun erizpidez eta lehiaketan ateratako puntuaketaren arabera egiten da.

Zerbitzu-eginkizunei buruzkoan, Hezkuntza Sailaren 1989ko apirilaren 25eko Erabakiak, 1989-90 ikasturteari dagozkionak arautu zituen. Araudi horrek zerbitzu-eginkizunak emateko ezartzen dituen beste zenbait motiboren artean, osasun arazoagatik eskatutakoak onartzen ditu; kexadunak bere eskarian agertzen zuen motiboa hain zuzen ere.

Hala eta guztiz ere, zerbitzu-eginkizunen lanpostuak, Administraritzaren eta sindikatuetakoa ordezkariak osatutako Batzorde batek erabakitzen ditu aukeratasun erizpidez. Kexadunari horietako lanpostu bat ukatu bazitzaion, berak baino eskubide edo premia gehiago zuen jendea bazegoelako izan zen. Hala ere, kexadunak zegokion errekurtsioa aurkeztu ondoren, eta Erakunde honen gestioaren ondorioz, eskaria berrikusi eta eskatutako zerbitzu-eginkizunen lanpostua eman zitzaion. Beraz, espedientea bukatutzat eman zen.

Eredu linguistiko ezberdinen ezarpena irakaskuntzan: gurasoen nahia eta egitura mailako eragozpenak. (321/89)

Lau guraso taldek, Bizkaiko beste hainbeste OHoko eskolakoek (Bilboko hiru eta Santurtziko bat), idazki bana bidali zuten beren arazoa azalduz.

Idazki horietatik hirutan, gurasoek D ereduan matrikulatu nahi zituzten OHO hasi behar zuten seme-alabak; eskolak, berriz, B eredua besterik ez zien eskaintzen. Laugarren idazkian B eredua eskatzen zuten seme-alabak matrikulatzeko, baina eskolak A eredua besterik ez zuten eskaintzen.

Gurasoen eskakizuna, azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legean, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko horretan oinarritzen zen. Lege horren II.

atalburuak euskarak irakaskuntzan izango duen erabilpenaz hitzegiten du eta 15. atalak zera esaten du: "Irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie ikasle guztiei, irakasmila ezberdin guztietan"; eta 16. atalak: "Eusko Jaurlaritzak ikastegi bakoitzean erabili beharreko hizkuntz-ereduak arautuko ditu, guraso edo tutoreen nahia eta eskualdeko gizarte-hizkuntzazko egoera kontutan izanik."

Halaber, aipaturiko Legea garatzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua aipatzen zuten gurasoek. Dekretu horren 3. atalak zera ezartzen du: "Hezkuntza eta Kultura Sailak irakaskuntza elebiduneko B eta D ereduaren ezarpena aurrera eramango du, irakaslegoaren ahalbideak eta Sail honek ezarritako euskalduntze plangintza kontutan izanik, eta guraso edo tutore-talde batek alde zuzenarekin erabaki eskatu edo onartu ondoren, beti ere talde hau aipatu Sailak irakasmila bakoitzerako zehazten dituen ratio-en arabera talde bat gutxienez osatzeko ikasle kopurua iristen bada".

Dekretu berak B eta D ereduaren ezarpenari dagokionez zera esaten du: "...ezarpena ikastetxeko Irakasle Batzarraren eta Zuzendaritza Kontseiluaren erantzia eta kasuan kasuko irakasmilako Ikuskaritza Teknikoaren txosten arrazoitua kontutan hartu ondoren egingo da".

Erakunde honek gaia aztertu eta informazioa eskatu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari. Sail honek erabaki horiek hartzeko agertu zituen arrazoiak honako puntu hauekin oinarritzen ziren: beste adar bat ezartzeko ikastetxetako leku-eza, eskola Zuzendaritza eta Ikasleen Guraso Elkartearen aldeko erantzukizuna, eta irakaslego elebidunaren eza bereziki. Hala ere, aipatu zuten kasu konkretuetan irtenbideak aztertzen ari ziren.

Egoeraren inguruabar bereziak haintzakotzat hartuz, Administrazioaren ihar-dupidea zuzena izan zela eritzi genuen; beraz, kexadunak informatu eta espedienteak bukatutzat eman zen.

Etxebizitzaren baloraketa beka emateko orduan. (79/89)

Vitoria-Gasteizko hirikide batek idazki bat bidali zuen Erakunde honetara, bere seme-alabei beka ukatu zietela salatuz.

Hezkuntzazko Lurralde Ordezkaritzak beka ukatzeko aipatu zion arrazoiak zera ziren, familia ondareari zegokion baloraketa neurria gaitzitzen zuela alegia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1989ko azaroaren 15eko Agindua ezarri zitzaion, zeinaren bidez 1988/89 ikasturterako unibertsitate mailakoak ez ziren eskola ikasketarako diru-laguntzak eskaintzen bait ziren. Agindu horren 15. atalak honako hau agertzen du hitzez hitz: "Dadina dadila familiaren urteko diru-sarreraren baloraketa egiteak eman dezakeen per capita-ko familia errenta, ukatu ahal izango da ikasketarako laguntza konputagarri diren kide guztien ondarea kontutan hartuz eta honako arau hauek ezartzen dutenaren arabera:

Ez da kontutan hartuko familia bizi deneko etxebizitza bakarra, ondarearen baloraketa egiterakoan, horren katastro-balioa hiru milioi pezetatik gorakoa ez dadinean eta balio hori, ondorio fiskaletarako, 1983ko urtarrilaren bata eta 1987ko abenduaren 31ren artean birzartu ez baldin bada; edo ondarea bost milioi pezetatik gorakoa izan ez dadinean, aipatutako epe horren barruan birzartu baldin bada katastro-balioa. Aipatutako zenbateko horiek katastro-balioa gaitzitu ditzanean, hiru edo bost milioi pezeta kenduko dira ondarearen guztirako balioetik, kasuaren arabera."

Kasu honetan, familia bizi deneko etxebizitzaren katastro-balioa 4,5 milioi pezetakoa da, aipaturiko atalean ezartzen denarena baino 1,5 milioi gehiagokoa alegia; beraz, diru kopuru hori familia ondareztat hartu zen eta horren arabera diru-laguntzak ukatu egin ziren.

Diru-laguntza eskatu zutenen ama ez zegoen ados erabaki horrekin eta bi eskakizunen berrazterketa eskatu zuen, familiako sei kideak agintaritzza-babespeko etxebizitza batean bizi zirela agertuz. Aldi berean idazki bat bidali zuen Ararteko Erakundera.

Zenbait gestio egin ondoren, Hezkuntza Sailak aurkeztutako errekursoari bide eman zitzaiola adierazi zuen; beraz, kexadunari erantzun ondoren espedientea bukatutzat eman zen.

Gizarte-Graduadu ikasketen desagertzea gure Autonomia Komunitatean.
(160/89)

Bilboko eta Donostiako Gizarte-Graduaduen Mintegietako ikasketa-buru eta zuzendariak Ararteko Erakundera jo zuten haren bitartekotza eskatzeko.

Gizarte-Graduadu ikasketak Bilbon, Donostian eta Gasteizen ematen ziren mintegi moduan, lehenengo bi kasuetan Oviedoko Unibertsitatearen menpekoak eta hirugarren kasuan, berriz, Zaragozako Unibertsitatearen menpekoa izanik, hiru eskola eta Unibertsitateen arteko hitzarmena dela medio. Hala ere, ekainaren 13ko 2524/86 Errege Dekretuak, ikasketa horiek Unibertsitatean txertatzen dituen, 1989ko ekainaren 30eko epea ematen zuen ikasketa horien adskribapenerako Unibertsitate Eskolak bezala edo haien desagertpenarako.

Maiatzaren 4ean txertatze hori gauzatu gabe zegoen oraindik, beraz azkar aritu beharra zegoen mintegi horiek urte hartan bertan desagertuko ez baziren. 1. eta 2. mailako ikasleek ezin izango zuten ikasketarik jarraitu, hasi ere ez zuten hasterik izango hurrengo ikasturterako aurre-izenematea egin zutenek, hau da 1989-90erako eman zutenek alegia.

Lehen aipaturiko egunean, 1989ko maiatzaren 4ean, Gizarte-Graduaduen Elkarte eta Kolegioko presidentek eta Bilboko "Joaquín Azpiazu" Gizarte-Graduaduen Mintegiko zuzendariak sinaturiko kexa-idazkia jaso zen Ararteko Erakundera, eta geroago, Donostiako "Marqués de Narros" Mintegiko zuzendariak eta ikasketa-buruak sinaturikoa, bietan haien kezka agertzen zutelarik. Ez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez eta Euskal Herriko Unibertsitateak, zeinekin harremanetan jarri bait ziren, ez zuten arazoa konpondu, beraz, Ararteko Erakundera jo zuten eta Arartekoaren bitartekotza eskatu. Euskal Herriko Unibertsitateak ez zion erantzunik eman haiek bidalitako idazkiari.

Ararteko Erakundea arazoaren larritasunaz jabetu zen, hala barruan hartzen duen jende kopuru handiagatik, nola ikasketa mota bat izateak ala ez izateak duen eraginagatik. Beraz, berehala ekin zion gaiari.

Lehenengo gestioa hiru mintegietako irakasle eta ikasle ordezkariak bilera batetara deitzea izan zen, arazoak berdin eragiten bait zien. Lehendik, Arartekoak Unibertsitateari jo zuen haien jarrera eta ikuspuntua jasotzeko eta ona zela ikusi zuen.

Gero, bai Arartekoak bai Ondokoak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarekin, Ikasketen Antolamendurako Errektoreordea eta aipaturiko mintegietako irakaslego eta ikasle ordezkariekin harreman ugari izango zituzten jarraian:

telefonozko deiak, aurrez-aurreko elkarrizketak, fax-en bidez bidalitako idazkiak, telegramak e.a.

Maiatzaren 11an, Legebiltzarrak osoko bilkuran legez besteko salo edo proposizio bat onartu zuen, zeinaren bidez Eusko Jaurlaritzari eta konkretuki Hezkuntza Sailari aipatu ikasketen iraupena bermatzeko beharrezko neurriak har zitzaten eskatu bait zitzairen.

Legebiltzarraren kezka bera agertuz, ekainaren 15ean Unibertsitateko Gobernu Batzarrak Eusko Jaurlaritzari Gizarte-Graduadu Diplomadun titulazioaren ezarpena eskatzea erabaki zuen. Aurrerapen handia zen, baina ez zen nahikoa. Orain Hezkuntza Sailaren baimena eta EHBO-n argitaratzea falta zen. Tramite hori, azkena eta behin-betikoa, asko luzatuko zen, Unibertsitate Eskola berri horren kokapena eta bere gestio eta antolamenduaz arduratuko zen Unibertsitate-zentroa erabakitzeko bait zeuden.

Irailaren 28an, Hezkuntza Sailburua zegokion Legebiltzar Batzordearen aurrean aurkeztu zen; bertan, talde guztiek, Euskal Herriko Unibertsitateari Gizarte-Graduadu ikasketak ezartzeko baimena ematen zaion Dekretu-egitasmoa Gobernu Batzarraren aurrean ager zezan eskatzen diote.

Azkenik, irailaren 26an EHBO-n argitaratu zen Hezkuntza Sailaren 222/89 Dekretua, zeinaren bidez Gizarte-Graduadu Diplomadun titulua lortzeko ikasketen ezarpenari baimena ematen bait zitzaion Euskal Herriko Unibertsitateari, eta 1989-90 ikasturtetik aurrera ikasketa horiek antolatzeko ardura Bizkaiko Campus-eko Zuzenbide-Fakultateari ematen bait zitzaion.

Txosten hau bukatzeaz dagoen une honetan, lehengo Donostiako "Marqués de Narros" Gizarte Graduaduen Mintegiko Zuzendaritzak gure bitartekotzaren beharra adierazten digu, Donostian ere Gizarte Graduaduen Eskola baten lorpi-derako gestioak jarrai ditzagun.

Ikasketa zikloaren aldaketa Lanbide Heziketan, eta eredu linguistikoa. (667/89 BIS)

Joan zen irailean, Donostiako "Manteo" Lanbide Heziketarako Institutoko zuzendari berria eta ikasketa arduraduna Erakunde honetara etorri eta instituto horretan eredu linguistikoei buruz zuten arazoa azaldu zuten, Arartekoaren bitartekotza eskatzen zutelarik.

Instituto honetan LHko 1. maila A eta D eruedetan ematen da. 1989ko martxoan, Eskola Batzordeak erabakitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari 1989-90 ikasturtean LHko 2. mailako ikasketak eredu linguistikoa berberetan jarraitzeko zegokion baimena eskatu zitzaion. Maiatzean Hezkuntza Sailak baiezkua emanaz erantzun zuen; hala eta guztiz ere ikasle kopurua eta institutoko horniduraren baldintzapean jartzen zuen proiektuaren burutzapena. Gero ofizialki onartu zen, Hezkuntza Sailburuaren 1989ko ekainaren 5eko Aginduaren bitartez.

Irailean, 2. mailan matrikulatu zen ikaslegoaren banaketa honako hau izan zen: 9 ikasle A erudian (gaztelaniaz) eta 13 ikasle D erudian (euskaraz). Hezkuntza Sailak matrikula kopurua ikusirik, 22 ikaslerekin ez zegoela bi talde egiterik erabaki eta D eredu desagertarazi zuen, gaztelaniazko adarra baizik mantentzen zuelarik. Artean ikasketak euskaraz burutu izan zituzten ikasleei hiritik kanpo dagoen beste ikastetxe batetara joateko aukera eskaintzen zien, Martutenerara hain zuzen, gertuen dagoena izanik.

Ikasle eta gurasoen ordezkariak eta institutoko zuzendariak agertzen zituzten zioak honako hauek ziren:

“1. Donostiako inguru zabal batean ez dago inon Gestio eta Administraritzaren Batxilerra euskaraz, gaztelaniazkoa Usurbileko LHko Institutoan dagoelarik.

“2. Talde euskaldunak jasan ditzakeen nahasketa eta eragozpenak, bai lekuz eta baita ikas-adarrez aldatu beharrean.”

Arazoa zela eta, zenbait gestio egin zuten Hezkuntza Sailak Donostian duen Ordezkaritzan, eta alferrikakoak izan zirenez, zuzendari izendatu berriak adar elebiduna irauntzearen baldintzapean jartzen zuen bere kargua.

Erakunde honetatik zenbait gestio egin zen, Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeak ezarritakoaren jarraian.

Egun gutxi barru, arazoa konpondu zen adar biak, euskara eta gaztelania, onartu bait ziren hasierako ikasle kopuruarekin. Era horretan talde bakoitzaren eskubide linguistikoak eta indarreango legediak ezarritakoa bermatu ziren.

Ikastetxeen onarpen erizpideen baloraketa. (529/89)

Emakume batek idazki bat igorri zigun honako kexa hau azalduz:

Alabak OHOKo 8. mailako ikaslea, 1989-90 ikasturtean BBBko ikasketak egiteko beharrezkoa den aurre-izenematea egin zuen, ohi den bezala hiru ikastetxe lehentasun erizpidez jarri zituelarik.

Ikasleen onarpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1989ko otsailaren 10eko Aginduak ezartzen duen balio-taularen arabera da. Beste zenbait erizpideren artean, familiaren diru-sarrera, bizilekuaren hurbiltasuna eta aukeratutako ikastetxean anaia-arrebak dauden ala ez baloratzen da.

Ikasleak ez zuen balio-taularen arabera eskatzen den gutxiengo puntuaketa gainditu, beraz, ez zuten berak eskatutako lehenengo ikastetxean onartu, eta horren ondorioz Erakunde honetara jo zuen eta kexa azaldu.

Gaia aztertu ondoren, emandako puntuaketa zuzena zela frogatu zen eta, beraz, indarreango legediaren arabera.

Halaber, kexadunak bereizkeria egiten zela adierazi zuen, zeren “onartuen zerrendan ekonomi-maila handiko familien seme-alabak daude, langile autonomo, karreradun edota nomina bati zehazki lotzen ez diren langileen seme-alabak, alegia.”

Arlo horri buruz zera esan beharra dago, diru-sarrera Errenta Aitorpenen arabera neurtzen dela eta horiek zerga-Administraritzak ikuskatzen dituzenez, printzipioz ontzat eman daitezkeela, alegia. Zuzenak ez diren Errenta Aitorpenak ezagutuko balitu, dagokien erakundeetara jo beharko luke bertan gaia aztertu eta ikerketa bat egin zezaten.

Kexadunari idazki bat bidali zitzaion informazio guztia azalduz, eta Administraritzaren ihardupidean irregulartasunik aurkitu ez zenez, espedientea itxi egin, zen.

Medikuntza-Fakultatean ikasteko txanda ezberdinei buruzkoa. (664/89)

Donostiako gazte batek bidali zuen kexa-idazkian, EHUko medikuntzazko ikasketak txanda bakar batetan ematen direla agertzen zuen. Goizez teoriako gaiak ematen dira eta arratsaldez praktikoak.

Kexadunak, goizez lan egiten duena, ikasketa hauek egiteko interes handia zuen, baina bere lanagatik ez zuen teoriatzko klaseetara joaterik.

Erakunde honetara jo zuen eta Arartekoari planteatzen zion ea ez zitezkeen bi txanda jarri —goizez eta arratsalde— beste Fakultateetan ohi den moduan, batez ere lehenengo ikasmailan 270 ikasle daudela kontutan harturik. Horrek, berak bezala lanegun erdia duten pertsonen sarbidea erraztuko luke, eta gainera, agian, matrikulatuta dauden ikasle kopuru horretatik zenbaiti interesatuko litzaioke arratsaldeko txandara pasatzea.

Kexa-idazkia, Administraritzaren legez kontrako ihardupiderik salatu ez baina, eskari bat zenez, kexadunari berak proposatutako neurriak Unibertsitateko aurrekontuan suposa litzakeen ondorio ekonomikoak agertzen zituen erantzuna igorri zitzaion.

Halaber, proposamena zegokion Dekanatora bidal zezan aipatu zitzaion, partikular moduan aurkeztutako arazoa haintzakotzat har zezaten.

Unibertsitatean matrikulatzeko orduan UBIⁿ hautatutako aukera duen garrantzia. (729/89)

Kexaduna, Bilboko ikasle bat, UBI egin behar zuela eta emakumezkoen instituto batean matrikulatu zen B aukera hartuz. Artean ez zuen ezagutzen ekainaren 3ko 557/88 Errege Dekretua, UBIn hiru aukera ezberdin bakoitzari A, B eta C lehentasun erizpidez dagozkion Fakultate eta Eskolak ezartzen duena, eta beraz, ez zekien aukera bat edo bestea hartzeak Unibertsitatera begira zuen garrantzia.

Gero EHUⁿ sartzeko aurre-izenematea egiterakoan, lehentasun erizpidez hiru Fakultate jarri behar zituenez, Bilboko Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultatea jarri zuen lehenengoa eta segidan adar bereko Unibertsitate Eskolak.

UBIn ikasturtea eta selektibitate azterketa gainditu zituen eta urriaren 14ean EHUko idazki bat jaso zuen, Donostiako Enpresa-Ikasketen Unibertsitate-Eskola behin-betiko izendapenaren berri ematen ziona. Erabaki hau ez zen ikasketa espedientearen agertzen zen puntuaketagatik, baizik eta lehen aipatu dugun Errege Dekretuaren arabera UBIn beste bi aukerek bait dute lehentasuna, kexadunak hautatutako B aukera horren kalterako.

Erabakiarekin ados ez zegoenez, ikasleak errekurtsioa aurkeztu zuen bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua bai EHUko Errektorearen aurrean, baina erantzuten ez ziotenez eta denboraz larri zebilenez, urriaren 20an Erakunde honetara jo zuen.

Arartekoak zenbait gestio egin zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren aurrean. Egun batzu geroago, azaroaren 3an, ikasle horrek telefonoz deitu eta Unibertsitateak berak nahi zuen Fakultatean matrikulatzen uzten ziola esan zuen. Beraz, arazoa konpondu zen eta espedientea bukatutzat eman.

Ikastetxearen behin-betiko izendapena. (512/89)

1989-90ko ikasturtean BBBko ikasketak hasi behar zituela eta, Vitoria-Gasteizko ikasle batek nahitaezko aurre-izenematea egin zuen, lehentasun-erizpidez bi Batxilergoko institutoen izenak jarri zituelarik.

Hala ere, ikasle horri hirugarren instituto bat izendatu zioten, nahiz eta izendapen hori irailaren 12 arte behin-behinekoa izan, hau da, ikasturtea hasi baino 20 egun lehenago arte.

Kexaduna ez zegoen ados erabakiarekin eta kexa-idazki bat aurkeztu zuen Erakunde honetan. Batetik ez zegoen ados diru-sarreraren baloraketari zegokionez, zeren eta ikasle hau ez zuten eskatutako lehen institutoan onartu ez bait zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1989ko otsailaren 10eko Aginduak ezartzen duen balio-taula gainditu. Taula horren arabera beste zenbait erizpideren artean, familiaren diru-sarrera baloratzen da, kexadunaren kasuan lanbide arteko gutxienezko soldata delakoa baino lau aldiz handiagoa delarik. Bestetik ez zegoen ados ikastetxearen behin-betiko izendatzearen berantza zela eta.

Erakunde honetatik informazioa eskatu zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari eta honek diru-sarreraren balorazioari dagokionez, ikastetxe publiko batetarako onarpen-eskaerak bideratzeko lehentasuna duen erizpidea dela adierazi zigun, ekonomi-maila xeheago duten langilerien irakaskuntzarako sarbidea bermatzearen hain zuzen ere. Egokitutako puntuaketa zuzena zen, lehen aipatutako Aginduak ezarritakoaren arabera.

Ikastetxearen behin-betiko izendatzearen berantzari dagokionez, Hezkuntza Sailak zera agertu zuen, errepikatu behar duten ikasleen kopurua jakitea ezinbestekoa dela eta, beraz, datu hori iraileko azterketen ondoren jakin daitekeela alegia. Bestalde, behin-behineko moduan izendatutako ikastetxean lekurik ez izatea ia ezinezkoa litzatekeela, eta hala suertatuko balitz ere, besteren batean emango litzaikeela, beraz, irakaskuntzarako eskubidea beti bermatuko litzateke.

Erakunde honek ez zuen irregularitasunik ikusi Administraritzaren ihardupidean, baina, ikasleak egokituko zaion ikastetxearen berri lehenago izan dezan komenigarri deritzo.

OHOk irakasleak eta eskola-jangelak zaintzeko beharrezkotasuna. (355/89)

OHOk eskualde-eskola pribatuetako irakasleek eskola-jangelak irakastordutik kanpo zaintzeko beharrezkotasuna dela eta, kexa bat jaso genuen Erakunde honetan, aipaturiko arazoa Arabako eskola batetan azaldu bait zen.

Beharrezkotasun hori Hezkuntza eta Zientzien Ministraritzaren 1954eko uztailaren 20ko Aginduan oinarritzen da (54-7-28ko EBO), zeinek 6. atalean zera ezartzen du: "...eskola-jangelaren antolamendua eskolako Zuzendaritzari dagokio, bertako irakaslearen beharrezko laguntzarekin". "Bazkalordutan... irakasle bat edo gehiago izango da beti..." "Zerbitzu hau betetzeko, irakaslearen arteko borondatezko txandak ezarriko dira. Horiek nahikoak izango ez balira, behartze-endarrezko txandara jo behar izango da."

Kexadunak ez zeuden ados aipaturiko erabakiarekin, batetik zaharkitua, eta bestetik 2.152/78 Dekretuarekin bateraezina zela pentsatzen zuten, zeren Dekretu horrek irakaslearen erabateko dedikazio-ordutegia ezartzen bait du, eskola-jangelak aipatu gabe. Beraz, neurri horren behartze-endarrez kexatu ziren, irakaslana ez den horrek lanordu gehitze bat suposatzen bait zuen. Gainera, jangelarik gabeko eskoletako irakaslearekiko bereizkeria zegoela erizten zuten. Guzti horrek ondorez sortarazten zuen irakaslearen baitan.

Gaia zenbait irakasle batzarretan aztertu zen 1986 urtez geroztik, urte horretako agirian agertzen denez, bi irakasle uko egin bait zioten jangela

zaintzeari. Irtenbide bat saiatzearren Udaletxera ere jo zuten, baina ez zen ezer lortu.

1987-88 ikasturtea hasi eta irakasleagoak jangela zaintzen jarraitu zuen, Hezkuntza Sailaren 1987ko azaroaren zabaltdazkiak, OHOKo eskola publikoetako jangelen antolamenduari buruzkoak, agintzen zuena betetzearren. Zabaltdazki horren 3. atalak irakasleagoari eskuratzen zion jangelaren zaintza, eta borondatzekorik ezean, aipaturiko Ministraritzza Aginduaren arabera behar-indarrezko txandak antolatu behar zirela ezartzen zuen.

Irakasleagoak arazoaren berehalako irtenbidea espero zuen, Hezkuntza Sailak eta sindikatoek izenpetutako irakasleago ez-unibertsitariari buruzko konbenioan, eskola-jangelei zegokien atal bat sartzen bait zen. Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak irakasleagoaren eskubide eta betebeharrak finkatuko zituen arautegi bat aztertuko zuela aipatzen zen atal horretan; halaber, arautegi hori 88-1-lean indarrean izango zela adierazten zen.

Hala eta guztiz ere, egoerak berdin jarraitu zuen ez bait zen hitzarmena gauzatu, eta 1988ko martxoan bai Udalari bai Hezkuntza Sailari irtenbideren bat bila zezaten eskatu zitzairen.

Hurrengo ikasturte hasieran (1988-89), eta arautegi berririk ez zegoenez, irakasleek egoera berberan zeudela ikusirik, irtenbide berri bat saiatzen ahalegindu ziren Udaletxearen bitartez, beste eskoletan hala lortu bait zen konponketa, baina ez zuten ezer lortu.

Gauzak horrela, eta jangela-zaintzarako borondatzekorik aurkezten ez zenez, aipaturiko Ministraritzza Aginduari jarraiki behar-indarrezko txandak ezarri ziren irakasle guztientzat; baina horietatik lauk uko egin zioten Aginduari, Ministraritzza Aginduaren indarreangotasuna idatziz zehaztu arte. Eskolako zuzendariak horren berri eman zuen Hezkuntza Ordezkaritzan. Ondoren, Hezkuntza Ordezkaritzako lanarigo-burua eta zonaldeko ikuskatzailea eskolara joan eta irakasle batzarrarekin bildu ziren, baina irakasleek ziotenez ez zuten nahi zuten idatzizko agiria lortu.

Aipaturiko lau irakasleek ezezkoari eutsi zioten, eta Hezkuntza Ordezkaririk jarraera hori irakasleen betebeharrak eta eginkizunaren ez betetzea bezala ulertu zuenez, zigor-espeditentea ireki zuten, falta xehegatikazko oharterazpen-zigorra ezartzea erabaki zelarik.

Arabako irakaskuntza ez-unibertsitariaren Lanarigo-Batzordeko sindikatoak eta eskolako irakasleagoa Hezkuntza Ordezkarirengana zuzendu ziren, zigor-espeditentepean zeudenekin bat egin eta oharterazpenak ken ziezaizkieten eskatuz. Halaber, arazoaren legezko irtenbide bat bila zezaten eskatzen zuten, egungo egoerari erantzun eta 1954eko aipaturiko Ministraritzza Aginduak eskola-jangelei buruz esaten duena indarririk gabe utziko zukeena. Hezkuntza Ordezkaririk halere, bere jarrerari eutsi zion eta ez zuen zigorrik kendu.

Gora jotzeko errekurtsoak edo helegiteak aurkeztu ziren Hezkuntza Administaritzako Sailburuordearen aurrean, eta ezeztatua izan ziren.

Ararteko Erakundeak gaia aztertu eta informazioa eskatu zion Hezkuntza Sailburuari. Honek bidalitako idazkian, aipaturiko Ministraritzza Aginduaren indarreangotasuna baieztatu zuen, eta agindu hori ez betetzean, Estatuko Herri-Administaritzako Funtzionarien Zigorpidezko Araudia ezarri behar izan zela, zeren (hitzez hitz): "...hartutako erabakiaren bestelakoa, eskola-jangelako ikasle erabiltzaileen aurkako erabakia izango litzateke."

Halaber, Sailburuak zera aipatzen zuen: "...hala eta guztiz ere, Autonomia Komunitateko Hezkuntza Administaritzak eskola-jangelak irakasleagoarengan

sortarazten duen arazoaren konplexotasuna kontutan izanik, ahalegin guztiak egiten ari da irtenbideren bat bilatzearen, irakaslegoak irakasteari besterik ekin diezaion alegia.”

Erakunde honek Administraritzaren ihardupidea legepekoa zela ikusirik, espedienteari behin-behineko bukaera ematea erabaki zuen. Halere, gaiari doakion arautegia zaharkitua eta Konstituzio aurrekoa dela deritzo Arartekoak, egungo egoerari erantzuten ez diona.

7.5. KULTURA ETA TURISMOA

A) Sarrera

Sail honetan Kultura, Turismo eta Kirolei dagozkien kexak sartzen dira. Zazpi kexa besterik ez dira aurkeztu sail honetan, aurkeztutako kexa guztien %1,5a.

Estatistikazko banaketa, eragindako Administraritzaren arabera, hau da:

– Eusko Jaurlaritzaren	5
– Diputazioak	1
– Udalak	1

Aurkeztu diren kexetako bitan, ETB 2-an praktikak egiteko edo haur-udalekuetara joan ahal izateko euskararen erabilera exigentziarekin adostasun eza azaltzen da, aurkezleen ustez euskal agintaritzaren publikoetan hizkuntza arrazoiengatik diskriminazio jarrera dagoelako.

Beste kexa batzutan, ikerketa beka baten azken ordainketa ukatu zaiela azaltzen dute.

Bestalde, sail honetan salatzen da baita ere Administraritzak sarritan arazoei ez diela erantzunik ematen, fikzio legalaren egiazko izaera oker ulertuz, administratuaren eskubideak bermatu behar dituen arren, administraritzaren prozedura amaitzeko isilaldiaren formula erabiltzen duelako Administraritzak.

B) Kexen aukeraketa

Kirol-Administraritzaren atzerapena zigor-espediente bat ebazterakoan. (438/89)

Gipuzkoako Saski-baloi Federazioko Lehiaketa Batzordeak arbitro bat zigortzea erabaki zuen berak zuzendutako partidu batean anotatzailearen ez-agertzea aktan jaso ez zuelako.

Erabakiarekin ados ez zegoenez, helegite edo errekurtsioa aurkeztu zuen beharrezko era eta epe barruan. Hiru hilabete pasa ondoren eta erantzuna jaso ez zuenez, atzerapena salatu zuen, horren erantzunik ere jaso ez zuelarik. Horren ondorioz, Erakunde honetara jo zuen Administrazioak erantzun ziezaion lortzeko.

Arartekoa Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailarekin jarri zen harremanetan, eta gestioen prozesuaren berri eta atzerapenaren argipidea lortu zen. Kexadunak aurkeztutako errekurtsioari epe labur batean erantzungo ziotela adierazi zuten, eta hala informatu genion gure aldetik kexadunari.

Eta hala izan zen, egun gutxi barru jarritako errekursoaren erabakia jaso zuen, lehen ezarritako zigorra baieztatu zelarik, beraz, kexa-idazkiaren motiboa desagertu zen eta espedientea itxi egin zen.

Elebitasuna eta lekuak emateko erizpideak haur-udalekuetan. (119/89)

IGEFk, hau da, Ikasleen Guraso-Elkarteen Federakuntzak idazki bat igorri zuen Ararteko Erakundera. Bizkaiko haur-udalekuek Foru Aldundiak emandako diru-laguntza jasotzen dutela, eta hori dela eta, ikastoletatik eta ikastetxe publikoetatik datozen haurren artean lekuak izendatzerakoan egiten den banaketa ezberdina dela salatu zuten hain zuzen ere.

IGEFk zioenez, hizkuntzaren arabera bereizkeria egiten da udalekuak banatzerakoan, ikastetxe publikoaren sareko haurrek lekuen %30a hartzen duten bitartean, ikastolakoek %70a hartzen bait dute. Kexadunek jarraitzen zutenenez, udaleku horiek euskaldunak badira ere, sare publikoak baditu euskarazko B eta D adarrak, bertan ikasten duten haurrek udalekuetan parte hartu ez ezik, mende handia jasoko luketelarik.

Arartekoa Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailarekin harremanetan jarri eta han zera esan ziguten, banaketa ezberdina arrazoi historikoak zirela eta izaten zela alegia.

Aipaturiko Foru Aldundiak 1989 urteari buruz emandako datuen arabera zera genuen: 2.740 haur izan ziren Foru Aldundipeko udalekuetan parte hartu zutenak. Horietatik %60a sare publikotik eta gainontzeko %40a ikastoletatik etorriak ziren.

Sare publikotik zetozen horietatik laurdena baino gehiago (%28a) erabat euskaldunak zirela haintzakotzat hartuz gero zera ateratzen zen, udalekuetan izan ziren haurren kopuruaren erdia baino gehiago %56a erabat euskaldunak ziren, %33a erdaldunak eta gainerako %11a elebidunak edo B adarrekoak.

Datu horien aurrean, kexa bidezkoa zela ikusi zen, haur elebidunek elebakarrekoek baino fabore handiago jasotzen bait zuten.

Erakunde honek egindako gestioen ondorioz, Kulturako Foru Diputatuak, udalekuak emateko erizpideak aldatu behar zirela onartu zuen; halaber, lekuak emateko erizpideak datu sozio-linguistikoen arabera bihurtzeko berrikuste lana hasi behar zutela baieztatu zuen.

Karate kirolaren praktika eta Federazioak kirolaria aseguratzeke duen obligazioa. (410/89)

Karateko bi kirol-elkartek kexa aurkeztu dute Bizkaiko Lurralde Federazioaren aurka, beste helburu batetarako zen dirua era desegokian erabili duelako honek eta gainera Kirola Mutua Nagusiaren aurrean lizentziaren jabe den kirolariari dagokion aseguruia tramitatzeko eginkizuna bete ez duelako. Ondorioz, federatutako zenbait kirolariri zauriak izan eta aseguruaren babesa ukatu zitzairen, eta beraz beharrezko osasun laguntzarik ez zitzairen eman.

Arartekoaren Erakundeak beharrezko ikerketak egin zituen eta ikusi zen, Lurralde Federazio horrek azken urteotan federazio lizentzia kuota kobratzen zuela eta beraz, Mutualitatearen Aseguruari zegokion zatia ere hor sartzen zela. Baina Mutualitateak ez zien alta ematen kirolariei Kirola Mutualitate Nagu-

sian, kuota horiek handiegiak ez izanik, beste eginkizun batzutura bideratzen zirelarik.

Arartekoak azterketa zenbait egin zuen eta Txosten hau idazteko orduan eragindako Kirola Zuzendaritzetatik eta baita Kirola Mutua Nagusitik ere txostenak jaso ditu, kexa momentu hauetan soluzio bidean aurkitzen delarik.

7.6. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA

A) Sarrera

Sail honetan, Lan eta Gizarte Segurantzari dagozkion kexak sartzen dira. Guztira hiru kexa aurkeztu dira, guztien %0,5a beraz. Eragindako Administaritzaren banaketa hau da:

— Eusko Jaurlaritzza 3

Lan sailean jaso diren kexa idatziak arazo indibidual edo kolektiboek dagozkie, Administaritzarekin duten lan harremanetik edo harreman horren ondorioz sortu direnak.

Behin behineko kontratazioari eta soldata sozialari dagozkien laguntzak ere ikertu ditu.

B) Kexen aukeraketa

Sexu joera dela eta, bereizkeria diru-laguntzak ematerakoan. (71/89)

- Eusko Jaurlaritzako 39/89 Dekretuaren onarpena zela eta, zeinaren bidez Familiaren Gutxienezko Dirusarrera delakoaren emakida, eta hori lortzeko nahitaezko betebeharrak erregulatzen diren, HIESen Kontrako Bizkaiko Hiritar Batzordeak idazki bat bidali zigun diru-laguntza horiek eskuratzeko orduan bereiztuak sentitzen zirela adieraziz.

Talde honek zioenaren arabera, diru-laguntza horiek familiei ematen zaie, familia bezala "matrimonioz edo antzeko beste motatako erlazio iraunkorrez lotutako pertsonak osatzen duten itunezko unitatea" ulertzen delarik. Testuak, beraz, ez du pertsonen sexuari buruz ezer aipatzen. Aitzitik, beti ere idazkiak azaltzen zuen arabera, gaiari dagokion Saileko arduradun nagusiak informabideetan eginiko adierazpenetan zera azaldu zuen: "Dekretuak agertzen zuen senaren arabera, sexu bereko pertsonak osatutako unitatea ez zen familia unitatea bezala onartzen."

HIESen Kontrako Bizkaiko Hiritar Batzordearen ustez, Dekretu horrek sexu bereko pertsonak osatutako bikoteak bereiztu ez ezik, zenbait erakunderen erabaki eta gomendioak ukatzen ditu ere, halanola Eusko Legebiltzarrak 1982ko ekainaren 17ko Erabakia, bi urte geroago Diputatu-Batzarrak onartu zuena, edo Europako Kontseiluaren 756 Erabakia eta 924 Gomendia, edo Europako Legebiltzarrak 1984eko martxoaren 13ko Erabakia, non gizakiaren sexu joera dela eta sor daitezkeen bereizkeria mota guztiak tamalgarritzat jotzen bait dira. Aipatutako guztiaren arabera, talde horrek Dekretuaren zuzenketa eskatzen zuen.

Ararteko Erakundeak idazkia aztertu zuen eta, legezko oharpidetak ez ezik, gure inguruko nazio askok oraindik orain erabakitzeaz dituzten etika-moral arloko oharpidetak azaltzen zituela atera zuen. Bestalde, 1982ko ekainaren 17an Eusko Legebiltzarrak osoko bilkuran, Europako Kontseiluko Parlamentari-Biltzarrak 1981eko urriaren 1ean hartutako Erabakia onartu, eta Eusko Jaur-laritzari bere eskuko gaitan aipatutako Erabaki horren oharpenak jarrai zitzan gomendatu ziola haintzakotzat hartuz, Erakunde honek idazkia Legebiltzarreko Lehendakariari igortzea erabaki zuen, kexadun taldeari guztiaz informatzen zitzaizolarik.

Drogamenpekotasunari Aurre-hartzearen aldeko Legediaren ezarpenaz. (323/89)

Apirilaren 4eko 85/1989 Dekretua, kontratazioari laguntzak emateko neurriak antolatzen dituen, EHBO-n argitaratu ondoren, kexaduna Erakunde honetara etorri zen kexa bat aurkeztera. Kexadunaren eritziz, Dekretu horrek berdintasun erizpidea eta enpresa-librearena urratzen ditu bere 47 atalak esaten duenaren arabera: "Ezin izango dute Egitarau honetan adierazitako onurez baliatu haien ekonomi-iharduketa nagusi bezala alkohol-dun edariak saltzea eta dastatzea duten enpresek."

Gaia aztertu ondoren, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailera jo genuen gaiari buruzko informazioa bidal diezaguten. Igorritako idazkian honako argipide hauek azaltzen zizkiguten: "Diru-laguntzak aukerazkoak dira beti, eta erizpide horren arauera ez dago eskubide subjektiborik azaltzerik. Bestalde, mota horretako enpresak baztertu badira, azaroaren 11ko 15/88 Legeak, hau da, Drogamenpekoen alorreko Aurre-hartze, Laguntzak eta Birgizarteratzeari buruzko Legeak finkatu duen helburuaren lorpidea bermatzearen izan da. Hain zuzen ere, Legearen helburu horietako bat drogamenpekotasunari aurre-hartzea da, hau da, droga-eskea eta horren erabilera gutxitzea eta gizartearen dagoen droga-eskaintza gutxitu edo murriztera jotzen duten ekintzapideak burutzea. Kontestu horretan apirilaren 4eko 85/89 Dekretuan egiten den salbuespena zilegia ez ezik, Eusko Legebiltzarrak egin duen gainerako arautegiaren ondoriozkoa da.

Dekretuaren bereizkeriazko izaera eta berdintasun erizpidearen urrapenari dagokionez, gaia aztertzerakoan Konstituzio Auzitegiak gai horri buruzko zenbait erabaki emana zuela atera zen, horien artean 37/1981 eta 76/1983 ditugularik. Erabaki horietan Konstituzio Auzitegiak, berdintasun erizpidea ezin dela inolaz ere araudiaren uniformetasun zehatz bat bezala ulertu adierazi zuen, zeren Autonomia Komunitateek duten legegintzarako ahalmenak, Estatuko lege-araudia egitura konposatua bihurtzen bait du, eta horren ondorioz hirikideen legezko egoera ez da zertan berdina izan behar Autonomia Komunitate ezberdinetan.

Halaber, berdintasun erizpidearen urrapenari dagokionez, Euskal Herriko Autonomia Komunitateko Auzitegi Gorenaren Kontentzioso-Administratiboko Salak zera adierazi zuen: "Ekonomi-iharduketa nagusi bezala edariak saltzea eta dastatzea duten enpresei enplegu-sortzetik datozen onurak kentzeak ez du bereizte ezegokia inplikatzeko, arauak baldintza berdinetan dauden enpresa guztiak hartzen bait ditu, eta horrek ez du pertsonaren eskubiderik funtsezkoenaren hauspe-na suposatzen".

Azterketa guzti horren ondorioz Administraritzaren ihardupidea zuzena zela atera zen, horren berri eman zitzaion kexadunari eta espediente itxi egin zen.

Donostiako Geriatriko eraikuntzaren kokapena. (9/89)

Laugarren Adinafen Aldeko Koordinadorak idazki bat bidali zuen Ararteko Erakundera, Donostian geriatriko funtzioa betetzeko eraikuntzaren behin-betiko kokapenak sortutako arazoa zela eta.

Eraikuntza 1975 urtean egin zen, Gizarte Segurantzak suztatutako Zaharren Asistentziarako Plangintza Nazional barruan.

Plangintza horrek, Espainia osoko hirugarren adineko kolektiboaren asistentzia beharrak beteko zituzten hiru egoitz nagusiren eraiketa suposatzen zuen, baina Donostiakoa besterik ez zen egin, 600 oherako edukiera zuena eta Penintsulako ifarraldea hornitzeko pentsatua zegoena.

Aipaturiko plangintza ikuskatu eta aldatu egin zuten, eta eraikuntzak hasieran zuen geriatriko funtzioa ezeztu. Geroago, osasun-egoitza funtziorako destina-tzea erabaki zen, baina proiektu hori ere ezeztu egin zen.

Gero, gure Autonomia Estatutuko 10.12. atalari jarraiki, zeinaren bidez gizarte asistentzia arloko eskumena Autonomia Komunitatera aldatu zen, bai eraikuntza bera, bai eraikuntza sartzan zeneko funtzioa, hau da, hirugarren adindunen asistentzia, Euskal Autonomia Komunitatera eskualdatu ziren. Geroxeago, eta Lurralde Historikoen Legean oinarrituz, funtzio hori Gipuzkoako Foru Diputaziora eskualdatu zen, eraikuntzaren jabe bezala, halere, Eusko Jaurilaritza geratzen zelarik.

Diru publikoz egina izan, eta hain tamaina handiko eraikuntzaren erabilgarritasun ezaren aurrean, istilua sortu zen zertarako destinatuko ote zen galderari erantzuna emateko orduan, eta eritziak oso kontrajarriak agertu ziren: hasierako helburuaren aldekoak, hau da, geriatrikoaren aldekoak; eraikuntza egokitzearen aldekoak; eta azkenik, erauzi eta horren ordez apartamentu txikiak erikitzearen alde agertzen zirenak.

Lehenengo proposamenaren aldeko kolektibo batek, Laugarren Adinaren Aldeko Koordinadora eratu eta zenbait ekintza bideratu zuen. Horien artean, eraikuntza geriatriko moduan egokitzearen aldeko 30.000 sinaduren bilketa eta hasieran aipatu dugunez, Arartekoaren bitartekotza eskatzea. Koordinadora horrek bere ikuspuntua agertu zion Arartekoari, eta behin gaia aztertu zenean oso konplexua zela frogatu zen, hiru bait dira inplikaturik dauden Erakundeak: Eusko Jaurilaritza eraikuntzaren jabe bezala; Foru Diputazioa giza zerbitzuen arduradun bezala, eta Donostiako Udala dagokion lan-baimena eman behar duena, nahiz erauzi nahiz birmoldatu egiten bada ere.

Arartekoak bitartekotza funtzioa betetz, aipaturiko hiru erakundeetako ordezkariek bilera bat egin zezaten hainbat gestio pertsonal egin zuen. Bilera horretan eraikuntzaren erabileraz hitzegingo zen. Halere, eta gaiaren konplexotasuna handia zela ikusirik espezialista talde batek azterketa sakon bat egin zezan proposatu zuen, azterketa horrek honako alderdi hauek beteko zituen:

1. Eraikuntzaren ikuskaketa bere bizigarritasuna aztertzeko, Arkitektu Kolegioak burutu zezakeena.

2. Nazio ezberdinen arategi eta jardunbideren azterketa konparatua. Mediku geriatra espezialista eta asistente sozialez osatutako batzorde batek beren Kolegioen bidez egin zezaketena.

3. Legearen aldetiko azterketa, Abokatu Kolegioak egin zezakeena.

4. Espezialista guztien bilera ihardupide koordinatua lortzearren.

Guzti hori hirugarren adinaren aldeko zerbitzuari dagokionez behin betiko akordio batetara iristeko.

Txosten hau ixteko orduan Ararteko Erakundeak aipaturiko bilera gauzatu dadin hainbat gestio egin du, inplikaturik dauden alde guztiek aipatu eraikuntzak izango duen erabilgarritasunari buruzko behin betiko akordioa har dezaten.

7.7. OSASUNKETA ETA KONTSUMO

A) Sarrera

Sail honetan hiru arlori dagozkien kexak sartzen dira: Osasunketa, Kontsumoa eta Giza Ongasuntzari dagozkienak.

87 kexa aurkeztu dira sail honetan, guztira aurkeztutakoen %18a.

Estatistikazko banaketa, eragindako Administrazitzairenen arabera, hau da:

— Eusko Jaurlaritza	58
— Diputazioak	18
— Udalak	11

Lehenik, euskal Lurralde Autonomoko osasunketa sistemari dagozkionak aztertuko ditugu, eta honen barruan euskal hirikideen osasuna zaintzera bideratzen diren erakunde ez estatalak sartzen dira; lehen mailako osasunketa zerbitzua, ospitaletako eta ospitaletatik kanpoko zerbitzua, asistentzia eta osasunketa prestakuntzak eta baita osasunketa arloko pertsonalaren arazoak ere hemen jasotzen dira.

Lehen mailako osasunketa zerbitzuari dagokionez ikusi da alde batetik, zenbait zonaldetan osasunketa zerbitzuak ez direla egokiak eta bestetik, nekazal zonaldetan osasunketa zerbitzuetako langileen lan eskubideak arautu behar direla, lan atsedenaldua eta erabiltzaileen eskubideak biak batera kontutan hartuz.

Ospitaletako zerbitzuei dagokionez azpimarratzen dira ebakuntzak egiteko edo ospitaletan sartzeko denbora luzez itxaron behar diren inguruko kexak.

Bestalde, osasunketa publikoan sartzetik izan ez, zentru pribatuetan sartzera behar izan daiteke aurkitu eta egin dituzten gastuak berreskuratzeko dituzten zailtasunak azaltzen dituzten erabiltzaile ugariaren kexak jaso dira.

Osasunketa arloko pertsonalaren aldetik aurkeztu diren kexak, lantoki aldatzeko lehiaketa, plaza deialdi, soldata, etabarren ingurukoak dira funtsean.

Onartu behar bada ere arlo honetan arautze mailan pauso handiak eman direla, hala nola osasunketa zerbitzuaren unibertsalizatzea (Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 16ko 26/88 Dekretua eta Osasunketa eta Kontsumo Sailaren 1988ko otsailaren 17ko Agindua), osasunketa txartel banakoa, aurretiko zita eta euskal erabiltzaileen eskubideen taula, esan behar da euskal osasunketa sisteman estruktura eta asistentzia mailako hutsarteek dirautela, eta etorkizunean konpondu egin beharko direla.

Kontsumo arloan ez da kexa bakar bat ere aurkeztu, baina telefonoz egindako kontsulta batzuri irtenbidea eman zaie.

Arlo honetan kexarik ez aurkeztu izanaren arrazoiak izan daitezke alde batetik, kontsumitzaileak bereak dituen eskubideak defendaratzeko duen kon-

tzientzia oraindik ez dela nahikoa, eta bestetik, agian Kontsumo Saila delako hirikidea babestua izateko aukera gehien dituen, eta hau ez bakarrik Eusko Jaurlaritzaren, Diputazioen eta Udalen Kontsumitzaileentzako Informazio Bulegoek egin duten lan positiboaren ondorioa bakarrik, baizik Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteek egin duten lan handiarena ere bada.

Giza Ongasuntzaren azpisailean ere kexa ugari jaso dira eta hauek askotan pentsio, laguntza, soldata sozial, etabarri buruz informazioa eskatzeko izan dira. Azpimarratu behar da azpisail honetan sartzen direla gizartean babesik txikiena duten sailetako kasuak, hala nola zaharrak, langabetuak, ezinduak, gartzelaratuak,...

Ikusten da beraz, gizartean dagoen kezkarik nagusienetakoa osasunketa dela, sail honetan sartzen diren arloak biltzen dituen kontzeptu zabala bezala ulerturik, izan ere Erakunde honetan aurkeztu diren kexen kopuruan lauetik bateko proportzioan bait daude.

B) Kexen aukeraketa

Zentru pribatu batean ebaketa egiteko diru laguntza. (397/89)

Kexadunak 12 urte daramatza gerriko minez. 1985ean, istripu baten ondorioz zauri larriak izan zituen eta lanerako gauza ez zela geratu zen. Urte hauetan osasunketa publikoko sendagileek agindutako tratamendua jarraitu du, baina ez da hobetu eta ez du soluziorik aurkitzen.

Egoera honek arazo psikologikoak erakarri zizkion gaisoari. Ondorioz, medikuntza pribatura jotzea erabaki zuen eta hemen, azterketa zorrotz baten ondorioz, ebakuntza proposatu zioten, baina normalki tratatzen zuten sendagileak ebakuntza honen aurkakoak ziren.

Kexadunak bitarteko ekonomiko urriak zituen eta ezin zuen ebakuntza ordaindu. Horregatik jo zuen Arartekoaren Erakunde honetara Osakidetzarekin tartekarria egin zezan eta medikuntza pribatuan egin behar zioten ebakuntzari zegozkion gastuak Osakidetzak ordain zitzen.

Arartekoak Osasunketa Sailburuarekin egin zuen tartekarritza lana, eta honek, arrazoiak bidezko jo zituen eta "ikusirik bere osasunketa egoera ez dela hobetzen eta medikuntza pribatuan sendatzeko edo hobetzeko aukera ematen zaiola", zentru pribatu batean ebakuntza egin ziezaioten beharrezko laguntzak bideratu zituen.

Nekazal herri txikietako mediku asistentzia eta legea. (28/89)

Gipuzkoako herri txiki bateko 126 biztanlek bere Alkatearen bitartez kexa idatzi bat aurkeztu zuten mediku zerbitzurik ez zutela adieraziz, eta gertueneko medikuaren kontsultara joateko 8 kilometro egin behar zituztelako.

Gaintzako Alkatea Erakunde honekin harremanetan jarri zen herrian mediku zerbitzu gutxienezkoa jar ziezaieten Arartekoari eskaria egiteko. Gertueneko herriko medikuak, astean egun batez eta ordu betez kontsulta pasa zezala proposatzen zuen, honen joan-etorrietarako gastuak alegatzaileen kontura gertatzen zirelarik.

Arartekoarentzat eskaria zuzena eta arrazoizkoa zen, baina Osakidetzan zenbait gestio egin ondoren ikusi zuen, arduradunek eskaria ulertu eta bere alde

bazeuden ere, eta soluzioa bilatzeko medikuarekin eta Alkatearekin harremanak izanda bazeuden ere, eragozpen legal bat aurkitzen zuten: gertueneko herriko medikua, indarrean dagoen 53-XI-27ko Gobernazio Ministraritzaren Dekretura biltzen zen, zeinaren arabera medikuak ez bait daude beharturik beren herri-barrutitik kanpo kontsulta pasatzera.

Arartekoaren Erakundearentzat eragozpen legal hau, osasun zerbitzua ematea galerazten duena, Konstituzioko 43. atalarekin eta Autonomia Estatutuko 9. eta 18. atalekin kontraesanean dago. Ondorioz, Arartekoak arazoa ezin zuela konpondu ikusirik, lege arauak aldatu behar bait dira horretarako, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari eta Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Kontseilariari txostenak bidali zizkien arazoa ezagutu eta azter zezaten.

Aipatu Sailak Erakunde honetara bidalitako txostenean agertzen duenaren arabera onartzen du kontraesan hori. Bigarren txosten honetan esaten da "toki osasunketaren zerbitzura dagoen pertsonalak bere funtzionari estatutu berezia duela, eta hau ez dela aldatu gaurdaino Euskal Lurralde Autonomoari egindako trasferentziekin, beste arrazoi batzuren artean Funtzio Publikoaren Legerik ez dagoelako". Gaur egun, esaten da, Lege hau onartu denez, pertsonal horri ere ezartzen zaiola.

Kasu honetan, Osasunketa Sailak dioenez, "bi legezko interes elkar lotu behar dira, mediku asistentzia berehalakoa eta eraginkorra ematea alde batetik, eta osasunketa arloko langileen eskubide eta betebeharrak bestetik. Bien arteko adostasuna eman dadin, lehen atentziorako ekipoen garapena eta ezarpena pausoka egin beharko da eta Herri Osasunketaren Zerbitzuko pertsonala bertan integratu beharko da. Horretarako, —dio txostenak aurrerago—, aztertzen den kontraesana bezalakoak gainditu beharko dira, oinarrian Osasunketarako Lege Orokorra indarrean sartu aurretiko eta indarrean dagoen osasunketa ereduaren eskasiak bait daude".

Egun, Gaintzako biztanleen mediku egoerak berdin dirau, eta egoera legezkoa bada ere, ez deritzogu zuzena, bai Konstituzioan eta baita Autonomia Estatutuan aitortzen den oinarritzko eskubide bat, agente publikoek hirikideari osasunketa zerbitzu egokia emateari dagokiona, betetzen ez delako.

Egunezko zentru batean sartzeko eskariari irtenbidea emateko Diputazioak izandako atzerapenagatik kalteak. (432/89)

Kexadunak, buruz atzeratu sakona den ume baten amak, kexazko idatzia bidali zuen Erakunde honetara, berak Arabako Foru Diputazioari eginiko eskari bati erantzuteko moteltasunagatik.

Arazoa hau zen: bere semea, 11 urtekoa, eskola urtean zehar, irakaskuntza bereziko ikastetxe batera joaten da. Oporraldian ere semeak atentzio berezia jaso zezan, maiatzean, aipatutako Diputazioko Giza Ongasuntza Sailean egin zuen eskaria, bere semeak, udaran ere laguntza berezia izan zezan.

Geroago, ekainean, umea joaten den ikastetxeko gurasoek, eskari berdina aurkeztu zioten Sailari.

Ekaina igaro eta emakume honek ez zuen erantzunik jaso, eta udako oporretan, aurkeztutako eskariarentzat erantzuna eskatu zuen, lortu gabe. Hilabete honetan bildu zen buruz atzeratuez arduratzen den batzordea, eta haur honen kasua ez zuten aztertu.

Egoera hau zela medio aurkeztu zion bere kasua Arartekoari.

Diputazioko Giza Ongasuntza Sailean gestioak burutu ondoren, arazoa egun gutxitan konponduko zela agindu zen.

Eta horrela izan zen, hamabi egun geroago kexadunaren idatzia jaso genuen, eta bertan esaten zitzaigun bere semea egunezko zentru batean ongi aurkitzen zela.

Preso batek bere familia ugariarentzat laguntza eskatzen du. (175/89)

Langraitzeko kartzelako preso batek Erakunde honi idatzi zion bere familia-
ren, emaztea eta eskola adineko bost seme-alaben egoera ekonomiko larria
azalduz.

Familiarentzat diru-laguntza eskatzen zuen eta 14 urteko seme zaharrenak
ikasten jarraitzeko aukera izan zezala, era berean bergizarteratze neurrietara
biltzea ere eskatzen zuen, gartzela utzi eta lanera bihurtu ahal izateko.

Iharduketa zehatz baten aurkako kexa ez bazen ere, Erakunde hau lanean
hasi zen familia honen egoera erreala ezagutu eta laguntzarik behar izanez gero,
laguntzeko.

Justizia Ministraritzaren baitan lana egiten duen Giza Ongasuntzarako Ba-
tzorde Probintzialak laguntzen zuela jakin zen, ikastetxe eta jangelen gastuak
ordaintzen zitzaizkion, ikasketak jarraitzeko aukera ematen zitzaien, eta noiz
behinka eta oso handiak ez baziren ere, diru laguntzatxoak ere jasotzen zituen
familiak.

Bizkaiko Foru Diputazioak, Gazteen Babeserako Zerbitzuaren bidez, pen-
tsioa pasatzen zion hilero familiari, eta hau geroago kendu egingo zitzaion,
soldata soziala, diru kopuruz handiagoa, pasatuko zitzaiolako. Bilboko Udalak
beste laguntza batzuk ere bideratuko zizkion.

Guzti honekin, familiaren premiak betetzeñ zirela ikusi zen eta hori jakinara-
zi zitzaion interesatuari. Ondorioz, Arartekoaren gestioa amaitu egin zen.

*Elbarria izan eta pentsionisten udal klubean sartzeko gutxieneko adinik ez
zuen. (24/89)*

Erabateko ezintasuna aitortutako 48 urteko andere batek bere zonaldeko
Jubilatuena Udal Elkarteetan sartu nahi zuen, baina ez zuten onartzen artean 50
urte bete gabe zituelako.

Elkarteak denborapasarako eta beste pertsona batzurekin harremanak izate-
ko aukera ematen zion, etxean bakarrik egon behar izaten bait zuen, bitzita
normala egiteko ezinduta zegoelako.

Donostiako Udaletxeko Giza Ongasuntzarako Zinegotziarekin telefonoz ges-
tioak egin genituen eta esan zitzaigun, mota horretako elkarteetan sartzeko
gutxienez 50 urte eduki behar izaten baziren ere, honelako kasu bereziak ere
aztertzen zirela.

Horretarako, eta Zinegotziaren aginduak jarraituz, andereari gomendatu
genion elkarteetako asistentia sozialarekin hitzegiteko, bere kasua aztertu eta solu-
ziona zezan.

Azkenik, andereak sarrera izan zuen Jubilatuen Elkarteetan, geroago bidali
zigu gutunean jakinarazi zigunez.

Osakidetzak lanpostu deialdi bat behera utzi zuen Euskal Funtzio Publikoaren Legea onartu arte. (760/89)

1973ko apirilaren 26ko Lan Ministraritzaren Aginduz onartutako Gizarte Segurantzako osasunketa pertsonal laguntzaile titulatu eta klinika laguntzaileen estatutuko 25. atalean xedatuarekin adostasunean, Osakidetzak Gipuzkoako osasunketa zentruetan hutsik zeuden lanpostuak atera zituen. Zegokion publizitatea egin zen, eskariak aurkezteko epea 1988ko maiatzaren 17a ezartzen zelarik.

Urte erdi geroago, 1989ko azaroan, deialdiaren berririk ez zegoenez, lanpostu hoietakoa batera aurkeztu zen hautagai batek Erakunde honetara jo zuen, esanaz aipatu estatutuko 27. atalaren arabera plaza emanda egon behar zela.

Gipuzkoako Osakidetzako Zuzendaritzarekin, lanpostuak atera zituenarekin, harremanetan jarri eta esan zitzaigun, azken hilabeteetan deialdia etenda zegoela zerbitzu zentralen aginduz, tramiteetan aurkitzen zen Euskal Funtzio Publikoaren Legeak kasuari ezarri beharreko legedia aldatuko zuelako eta horregatik, legea indarrean sartu arte itxarotea egokiagotzat jo zela.

Aipatu estatutu juridikoak lehiaketa ireki bidez arautzen zituen lanpostuak. Halabaina, INSALUDen konpetentziak euskal Lurralde Autonomoari eskualdatu zitzaizkionetik, gai honi heldu zitzaion plantilak zentru guztietan errazionalizatu eta, pertsonalaren jatorri ezberdinagatik sortzen ziren egoera ugari eta desberdinak berdindu nahirik. Bestalde, sindikatuarekin arautegi berrira egokitzeke izandako elkarrizketetan, hauek jarrera desberdinak azaldu zituzten, batzuk lehiaketa ireki eta iraunkorren aldekoak ziren, eta besteak aurkakoak.

Guzti honen ondorioz, behin behineko deialdiaren erabakia etenda uztea erabaki zen, Euskal Funtzio Publikoaren Legea onartzearekin behin betirako konponduta geratuko ziren erizpideak erabat argitu arte. Eusko Legebiltzarra 1989ko uztailaren 6an Euskal Funtzio Publikoaren Lege hori onartu ondoren, hutsik zeuden lanpostuak betetzeko prozesua berriro martxan jarriko zen.

Osasunketa Administraritzaren joera eta hautagaien aukeraketarako espedientea bizkortuz lanpostuak betetzeko azaldu zuen jarrera kontutan izanik, Arartekoak bere iharduketa amaitutzat eman zuen eta espedientea artxibatu egin zen.

Lanpostuaren jabe egitea eta ama izateagatikoko baja. (682/89)

Kexadunak, hautaketa prozesua gainditu ondoren, mediku lanpostua lortu zuen Gipuzkoako herri baterako, eta lanpostuaren jabe EHAOean finkatu eta argitaratutako egunean egin behar zen.

Egun horietan ama izan zelako bajaran zegoenez, lanpostuaren jabe egitea eta ondoren ama izateagatikoko baja hartzea utz ziezaioten eskatu zuen. Baina Osasunketa Administraritzak ezin zuela lanpostuaren jabe egin altan egon arte adierazi zion, luzapena eska zezala proposatu ziotelarik.

Berak, agintzen ziotenak bere eskubideak errespetatzen ez zituelako, Erakunde honetara jo zuen bere arazoa azaltzera.

Arartekoak Osakidetzarekin beharrezko gestioak egin ondoren, bi egun geroago arazoa konponduta zegoen eta kexaduna lanpostuaren jabe erabakitako egunean egin zitekeen, umea izateagatikoko bajarekin jarraituz, eta noski, bere egoera berezia frogatzen zuten agiriak aurrez azalduz.

Herriko mediku kontsulta berritzeko subentzioa ukatu. (690/89)

Osasunketa eta Kontsumo Sailaren 89-4-4ko Aginduak toki Gorporazioek osasunketa zentruak eraikitze, handitze, berritze edo konpontze, edo beharrezko mobleria eta osasunketa ekipamendu hornidurak eskura ditzaten bideratzen diren laguntzak arautzen ditu.

Horretan oinarrituz, Ataungo Udalak behar zen epean eta forman bere eskaria egin zuen, alabaina Osakidetzak ez zion eman eskatzen zuen subentzioa.

Kasua Erakunde honi jakinarazi eta Udalak aipatu zentrua zein egoeratan aurkitzen zen azaldu ondoren, Arartekoa Osakidetzarekin harremanetan jarri zen. Honek adierazi zigun, 1989an ez zitzaiola laguntzarik eman diru aurrekontu arazoak izan zituztelako, baina zegokion batzordeari jakinarazi zitzaiola arazoa 1990eko ekitaldian sar zezaten.

Tabakoaren kontrako arautegia Administaritzaren egoitzetan betetzen ez delako salaketa. (672/89)

Lana egiten zuten egoitza publikoetan tabakoaren erabileraz indarrean dagoen arautegia ez zela betetzen ikusirik, funtzionari batek, lankide kolektibo handi baten izenean, Arartekoari idatzi zion, egoera eta ondorio positiborik izan ez zuten baina zenbait agintaritzaren aurrean egin zituzten salaketak azalduz.

Ez erretzaileen eskubidea defenditu nahi zuten eta batez ere, martxoaren 4eko 192/1988 Errege Dekretoak biztanlegoaren osasuna zaintzeko tabakoaren salmenta eta erabilerari buruz ezartzen zuena eta baita azaroaren 11ko 15/1988 Legea, Eusko Legebiltzarrak Drogamenpekotasun gaietarako Prebentzio, Asistentzia eta Gizartazeari buruzkoa ere bete zedila eskatzen zuten.

Tabakoaren erabilerari dagokion arautegia garbia da, eta kasu zehatz honetan ez zen betetzen alde batetik, aipatutako Errege Dekretoak 7.2. atalean agintzen duena, alegia ezin dela erre "publikoari zabalik dauden herri-Administaritzako bulego zonaldean" eta bestetik ez zen betetzen ezta ere 15/88 Legeko 18. atala, honek erretzea debekatzen du "behar bezala aireztatuta ez dauden eta erabilera publikokoak diren lokal itxietan". Atal hau ez betetzeak legea hausten dela esan nahi du eta legeak kasu horietarako zigorrak ezartzen ditu.

Guzti hori ikusirik, Arartekoa arlo honetako ardura zuen Gipuzkoako Foru Diputazioko Lehendakartzako Diputatuarekin elkarriketatu zen pertsonalki. Diputatuak ongi hartu zuen ideia, arazoa Gobernu Batzordearen bilera batean aurkeztuko zuela agindu zuelarik.

Hilabete batzueko geroago, gure ustez gaia konponduta egon behar zenean, telefono bidez erreklamatazailak jakinarazi zigun egoera berdinean jarraitzen zutela, eta ez zela inolako neurririk hartu.

Arartekoa berriro jarri zen harremanetan Foru Diputatuarekin eta honek, 1990eko otsailaren 15ean idatzi bat bidali zuen, bertan jasotzen delarik 1988ko uztaillean, Gipuzkoako Diputazioko Seguritate eta Osasunketa Batzordeak nola onartu zuen bulegoetan tabakoaren erabilera mugatzera bideratutako arautegi proposamena. Egoitza batzutan beharrezko seinalea jarri bazen ere, araua betezea bakoitzaren esku geratu zen, erretzaileentzat erlaxamendu espazioak egokitu aurretik presakazko neurririk hartu gabe.

Diputatuak idatzian jarraitzen zuenez, tabakoaren erabilera erregulatzen duen arautegi berri horretara borondatezko moldaketa lortzeko lehen etapa

gainditu ondoren, pentsatuta du gaia Gobernu Batzordeari aurkeztea, zein leku eta dependentsiatan erre daitekeen eta zein baldintzatan arautuko duten agintezko neurriak har daitezten.

Ezindu fisiko bat errehabilitatzeko laguntza. (37/89)

Erakunde honetan jaso zen lehen kexetako bat, Arartekoarekin elkarrizketa nahi zuen gizon batena izan zen. Berarekin harremanetan jarri eta ezagutu genuen ezin zela oinez ibili nerbio ziatikoa jota zeukan eta, horregatik Arartekoa bere etxera joan zen.

Mediku askorengana jo zuen, behin baino gehiagotan egon da ospitaletan, baina ez da batere hobetu, erabat paralizaturik dago eta horregatik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak betirako ezintasuna eman zion elbarri handien maila egoera honetan. Siloian eserita aurkitu zuen Arartekoak bisita egin zion egunean.

Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Sailean gestio batzuk egin ziren. Osatu zen txostenean, ezinduari gomendatzen zitzaion neurologia zerbitzuko tratamendura joan zedila, eta bertan ikusiko zela osasunketa zentzuren batean sartzea komeni zitzaion ala ez.

Dagokion mediku zerbitzuak gizon honen arazoa aztertu zuen berrito eta lortu zen ezindua errehabilitazio saioetara sarri joan ahal izatea, honetarako ambulanzia jarri behar izan zaiolarik. Saio hauen bitartez, fisikoki erabat erreku-peratuko ez bada ere, hobetu, asko hobetuko da.

Medikuaren betebeharrak gaisoa diabetesa izanik eta insulina hartzeko ezindua egonda. (617/89)

Emakume adinekoa, diabetika eta osasun arazo ugariarekin, egunero insulina indizioa hartu behar zuen, baina berak ezin zuen indizioa jarri oso gutxi ikusten duelako. Berarekin bizi zen anaiak ere ezin zion jarri eta beraz, herrian ATS-rik ez zegoenez, Elvillar herriko (Araba) mediku titularrarengana jo zuen behar zuen eguneko insulina indizioa jar ziezaion.

Hasera batean, medikuak ukatu egin zuen, esanaz, osasunketa agintarien gomendioz gaisoa bera edo familiartekoak arduratu behar direla tratamendua emateaz. Aurkakoak, osasunketako profesional bat esklabu bihurtzea esan nahi zuen.

Osasunketa Zerbitzuetarako Azpizuzendaritzak, andereak horra jo bait zuen, medikuak emandako arrazoiak ulertu arren, erabaki zuen premia duena ezinduta badago, insulina jartzea praktikantearen edo honen funtzioak bete behar dituenaren zeregina dela, kasu zehatz honetan medikuarena.

Erizpide honi erantzunez, medikuak lanegunetan betetzen zuen eginkizun hori, asteburuak interesatuaren esku utziz. Baina anderea ezinduta zegoenez, Erakunde honengana jo zuen bere arazoarentzat soluzio garbi bat eskatuz.

Arartekoa Osakidetzarekin harremanetan jarri eta adierazi zitzaigun, gaisoa aztertu zuen endokrinologoak egin zuen txostena ikusirik, medikua behartuko zutela insulina indizioa larunbat eta igandeetan ere jar ziezaion.

Honela konpondu zen arazoa eta espedientea artxibatu egin zen.

Mediku-gaisoaren arteko harremana eta ospitalen betekada. (209/89)

Kexadunak Basurtuko Ospitaleko mediku batek gaiso bati, kexadunaren izebari, emandako tratua eragatik egiten zuen protesta. Esaten zuenez, gaisoa, kaderako arazoekin, zuela urte bat baino gehiago Basurtuko Ospitalera joan zen eta han aztertu zuen espezialistak ebakuntza egin beharko ziotela esan zion nahiz eta hori bi urte edo gehiagora izango zela gehituz.

Kexadunak, aztertzen zuen medikuak andereari emandako tratua salatzen zuen, bere ustez, gaisoari eman beharreko informazioa familiako beste edonork jaso zezakeelako, hau ospitalera joaten ibili beharrik gabe. Informazioa bildu ondoren jakin zen erraklamatzaileak emandako datu batzuk okerrak zirela.

Azkenik, Erakunde honetan kexa idatzia jaso eta hiru astea, Osakidetzak artean kasua ezagutu gabe, aipatutako gaisoa ospitalean sartu zen ebakuntza egin ziezaioten.

Erreklamazioak funtsik ez zeukala ikusirik, espedientea itxi egin zen.

Halere, Arartekoak ebakuntzetarako zegoen itxaron zerrenda luzea baieztatu zuen, baina hori ez da medikuaren ardura, baizik egungo osasunketa estrukturen betekadaren ondorioa, eta honen behin betiko soluzioa ahalmendun agintarien esku dago.

Farmazia ikuskaritzarako lanpostua ukatu. (481/89)

Arabako herri txiki batetako farmazeutikoak, farmazia ikuskari titularren lanpostua (behin-behinekoa) eskatu zion Respaldizako Udalari.

Udalak erantzun zion hori ezinezkoa zela, gaur egun Araban, Partidu Farmazeutikoen egituraren arabera, herrigune hori beste Udal bati zegokiolako eta lanpostua, aurreko titularra hil zenean desagertu zela. Esan zitzaion, egoera ez zela aldatuko herrietako osasunketa langileak lehen atentzioko ekipoetan sartzen ez ziren arte, eta hori, oraindik onartu gabe zegoen Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera egin behar zen.

Interesatuak, erantzunarekin ados ez zegoenez, Erakunde honetara jo zuen.

Beharrezko ikerketak egin ziren eta frogatu zen eskaria jaso zuen Udalak 1969. urterarte izan zuela farmazia ikuskari titularra, baina urte horretan titularra hil ondoren plaza kendu eta amortizatu egin zen. Era berean, urte horretan Arabako Partidu Farmazeutikoak berriro egituratu ziren, aipatutako herria administratiboki ez dagokion beste Udal bati esleituta geratu zelarik.

Guzti hori, 1969ko martxoaren 15eko Arabako A.O.-ean argitaratu zen Gobernazio Ministraritzaren —Osasunketarako Zuzendaritza Nagusia— xedapen baten arabera egin zen.

Eta beraz, Respaldizako Udalak ez zuen lanposturik eta ezin zion inori eman.

Gauzak horrela, Administraritzaren aldetik hutsegite legalik ez zegoenez, kasua itxi eta espedientea artxiboan sartu zen.

Mediku diagnostiko oker baten ondoriozko gastuak kobratzea. (29/89)

Duela 12 urte, andere bati begi-zurian trasplante ebakuntza egin zioten Gizarte Segurantzaren Bartzelonako osasunketa zentru batean. Lau urte geroa-

go, begi berean arazoak zituelako, euskal osasunketa publikora jo zuen, eta hemen begia hustutzea gomendatu zioten. Hau entzunda, ebakuntza egin zioten Bartzelonako zentrura joan zen atenditu zuen mediku berak ikus zezan, eta honek tratamendu batekin sendatu egin zuen.

Duela gutxi, berriro arazoak izan zituen begian eta zegokion osasunketa zentruko larrialdi zerbitzura joan zen eta berriro erabateko enuklearizazioa gomendatu zioten. Notizia hau entzunda, andereak berriro Bartzelonako medikuarengana joan nahi izan zuen, baina kasua larria zen arren, han itxaron zerranda luzea zegoenez (zortzi hilabete), bere kontsulta pribatura joatea erabaki zuen.

Martxoaren 2an errezibitu zuen bere kasua ezagutzen zuen mediku katalanak. Hau enuklearizazioaren erabat kontra azaldu zen begiak ikusmena bazeukalako eta tratamendu egokiarekin sendatu zitekeelako. Eta hala gertatu zen, begia erabat normaldu zitzaion.

Bartzelonako medikuak asistitzearen ondorioz izan zituen gastuak ordaindu diezazkiotela eskatzeko jo zuen andereak Erakunde honetara. Honek zioen, Bartzelonara joan behar izan zela begia galdu nahi ez bazuen, eta han eman zitzaion soluzioa positiboa izan zela frogatu zen Osakidetzako zerbitzuak izan zuen teoriaren kaltetan.

Erakunde honek Osasunketa Sailari planteatu zion arazoa eta honek eman zuen erabakian hau esaten da: "ospitaleko oftalmologia zerbitzuek begia erabat enuklearizatu behar zela esana ez dago erabat frogatua".

Halere, Bartzelonako ospitalak mediku asistentziarik eman nahi izan ez zionez eta kasua erabat larria zenez, Osakidetzak bere gain hartu zituen egindako gastuak, indarrean dagoen legediak agintzen duen eran.

Kexa konponduta zegoenez, espedientea artxibatu egin zen.

Osagarri berezia, medikuek osasunketa publikoari dedikazio eskusiboa ematea saritzeko modu bezala. (282/89)

Irailaren 11ko 3/1987 Errege Dekretu-Legeak Osasun Institutu Nazionaleko pertsonal estatutarioaren ordainketak arautzen ditu, eta 1.3. atalean osagarri berezia jasotzen du esanaz "zenbait lanposturen zailtasun tekniko, dedikazio, ardura, inkompatibilitate, arriskugarritasun edo kaltegarritasunaren araberrako baldintza bereziak ordaintzera bideratzen da. Inolaz ere ezin zaio lanpostu bakar bati osagarri berezi bat baino gehiago izendatu".

30/1984 Legeak bere aldetik, Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurriak jasotzen dituenak, bere 23.3. atalean zentzu berean definitzen du aipatu osagarri berezia.

Osagarri berezi hau, osasunketa publikora bakarrik dedikatzen ziren sendagileentzat soldata gehitze bezala jasotzeko aukera hau zela eta, kexa idatzi bat aurkeztu zuen Erakunde honetan medikuen kolektibo batek, eta honek, iharduketa pribatuan ere lana egiten duenez, ez du aipatutako soldata osagarririk kobratzen.

Kolektibo honentzat, Euskadiko medikuen %30a ordezkatzen zuela zion, neurria, kalifikazio profesional berdina izan eta ordutegi berbera beteaz, honetaz gainera iharduketa pribatua burutzen dutelako osagarri hori jasotzen ez duten medikuekiko konparazio laidoa zen. Medikuek kolektibo honen ustez, neurri hau ez dago osasunketa publikoa defenditzeko pentsatuta, osasunketa pribatua erasotzeko baizik, medikuak bere lanarekiko duen motibazioa kaltetuz, laidotua sentitu

araziz eta honek mediku-gaisoaren arteko harremanean eragina du, eta harreman hori asistentziaren kalitatearen zatia denez, hori hobetzearen alde egiten dute lan.

Gaia tramitera onartu eta aztertu ondoren, Osasunketa Sailaren txostena ere bagenuen, ikusi zen gai hau aipatutako Errege Dekretu Legea osatu eta onartu zenean jadanik eztabaidatu zela. Dedikazio eskusiboari lehentasuna emateko erabakiaren arrazoi nagusia, beste batzuen artean zen, konpatibilitatea ez zela zuzen betetzen, alderantziz, osasunketa publikoaren errekurtsioak, denbora eta bitartekoak pribatura trasferitzen zirela Osasunketa Administaritzaren arabera.

Osasunketa publikoan eskusibitatea borondatez aukeratzeko ahalmena eman zenean, Euskal Herriko medikuen %70a horretara bildu zen, aldiz beste %30ak pribatuarekin konpartitzea erabaki zuen. Osagarri berezia ez dagokio lanaren kalitate hobeari edo txarragoari, espreski medikuntza pribatuari uko egin eta eskusiboki publikoari heltzeari baizik. Eta hau Zuzenbide Konparatuan ez da gauza arraroa, "Merit Award" antzeko mekanismoak, hots, mediku batzuen besteen baino profesionalitate bereziagoa aitortu nahi duten edo osasunketa Administaritzarako bakarrik edo medikuntza pribatuarekin konpatibilizatu lana egin nahi dutenak bereizten dituztenak bezalako mekanismoak ezagunak bait dira.

Osagarri berezia ordainketa gehigarri bat bezalakoa da, beste puntu batzuen artean dedikazioa eta inkompatibilitatea ordaintzen bait ditu, eta ez osasunketa-aren arloan bakarrik, abuztuaren 2ko 30/84 Legearen ezarpen eremupean dauden funtzionari publikoei baita ere.

Bestalde, herri-Administaritzaren zerbitzura dagoen pertsonalaren inkompatibilitateari buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legearen 16.1. atalak dio, osagarri bereziak edo maila bereko kontzeptuak eta arantzelengatik kobratzen dituzten postuetako langileei ezin onartuko zaiela konpatibilitaterik. Alderantziz esanda, esan nahi du konpatibilitatea aitortua daukatenek osagarri berezirik ezin dutela kobratu.

Osagarri bereziaren ezarpenetik ezin da beraz ondorioztatu ez konparazio laidorik eta ezta injustiziarik ere, Estatu osorako onartutako neurri orokorra delako eta profesional gehienak beren kabuz bildu dira horretara eta biltzeko aukerak zabalik jarraitzen du, eta osagarri horrek errendimendu profesional desberdinekin ez du zerikusirik, lehenago esan den bezala, osasunketa pribatuari uko egin eta publikoari eskusiboki dedikatzeari dagokio.

Arartekoaren iritzia kexadunei jakinarazi eta jarraian espedientea artxibatu egin zen.

Buruko gaisotasundunak anbulantzietan eramateko beharrezkoak diren neurri legalak eta fisikoak. (197/89)

Seme eskizofreniko baten amak Erakunde honetara jo zuen anbulantzia zerbitzukoek ihes eginda zegoen zentru psikiatrikora semea eramanez nahi izan ez zutelako.

Ambulantziei dagokien eta indarrean dagoen legedia aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Sailarekin harremanetan jarri ginen eta ikusi zen kasu honetan ez zela ezagutzen elementu funtsezko bat, gaisoa osasunketa zentruan sartzea eta anbulantzia eramatea gomendatzen zuen mediku txostenik ba ote zegoen, alegia.

Mota honetako gaisoak eramatea arazotsua da, legeak babesten dituen eskubideak bermatzeko, zentzu horretako mediku txosten bat behar bait da. Alderantziko kasuan, pertsonaren oinarrizko eskubideak zapaldu daitezke.

Bestalde, gaisoak eramatea Polizia Nazional, Ertzaintza edo Udaltzaintza-ren laguntza eskatzen du, gaiso horiek funtsean borondate eta adimen ahalmenak jota izaten dituzte eta beraz, urrituak, legezko eskubideen inbokazio eta babes egokirako.

Horregatik, gaiso eskizofrenikoak anbulantzian eramatea pertsonal mediku, Segurantzaren Gorputzak eta larrialdietarako osasunketa garraio entidadeen arteko kolaborazio estua eskatzen du, horrela eta ez bestera ematen bait dira beharrezko berma legalak eta fisikoak.

Beraz, anbulantzian eramatea gomendatzen duen mediku txosten bat izanik eta ez bestela, dago zerbitzua betetzeko obligazioa, pertsonaren oinarrizko eskubideen hauspenean erori nahi ez bada.

Kexa honen kasu konkretuan, haseran esan den bezala, medikuaren informarik ez zen ezagutzen, eta beraz kexadunari honen berri eskatu zitzaion aurreko arrazoiak azalduz, trasladora ukatzean Administrazioaren hutsegiterik egon zen ala ez jakiteko. Kexadunak ez zuen erantzun eta horregatik espedientea itxi egin zen.

Nekazal medikuen ordutegia. (600, 272/89)

Larrialdietarako zerbitzurik ez duten nekazal herrietako medikuek bete behar duten ordutegiari dagokion eta indarrean dagoen arautegiak dioenez, astezko zazpi egunetako 24 orduetan egon behar dira premiei erantzuteko prest, oporaldian salbu.

Legedi ezargarria aldatzen den bitartean, Osakidetza baimena ematen du inguruko herrietako medikuen artean arratsaldeetan eta aste buruetan guardia txandak eratzeko. Denen adostasunarekin ezarritako txanda hauen bidez, nekazal herrietako medikuek aste bururen batzuk jai hartu ditzakete eta denbora librea beraien bizitza pertsonalerako.

Egoera honegatik, bi medikuk eta ATS batek bidalitako bi idatzi iritsi ziren eta, erabateko disponibilitateagatik kexatzen ziren, ondorioz lanetik kanpoko bizitzarik ezin zutela egin esanaz. Bi kasuetan, gertueneko herrietako medikuekin saiatu ziren txandak finkatzen, baina alperrik izan zen, gehienek beren arazoa konponduta zeukatelako.

Erakunde hau Osakidetzarekin jarri zen harremanetan eta bertako ardura-dunek, baldintza legalak hor egon arren, akordio batetara iristeko nahia eta borondatea azaldu zuten.

Mediku baten eta ATS-aren kasuan, aste buruetan guardia txandak eratzeko akordioa lortu zuten inguruko herrietako kideekin. Beste medikuari dagokionez, antzeko soluziorik ez zen bilatu eta Osakidetza, berarekin adostasunean, permiso berezi batzuk ematea erabaki zuen, eta hauei esker 15 eguneko aste buru bat libratuko zuen.

Soluzio hauek behin behinekoak dira arazoarentzat behin betiko soluzioa hartzen den arte. Zentzu honetan, erakunde horrek premia jabeturik, jakinarazi digu larrialdien sisteman erreforma iragarrita dagoela, guardia zerbitzuetan mediku titularrak eta lehen atentziorako ekipoetako medikuak sartuz. Horrela, hemen azaldu den arazoaren modukoak desagertu egingo lirateke.

Momentu honetan, programa hau, eragindako aldean artean negoziatzen ari dira.

Medikuntza pribatura joan zen behar bezalako informaziorik ez zuelako. (509/89)

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta hartu eta egun gutxira, zegokion kartila jaso baino lehen, kartilaren titularraren emazteak mediku premia izan zuen.

Alta hartu eta bost egunera osasunketa asistentziarako eskubidea zeukala (Gizarte Segurantzaren Osasunketa Asistentziari buruzko azaroaren 16ko 2766/67 Dekretuko 5.2. atala) bulegoan jakinarazi ez ziotenez, alegatzaileak uste izan zuen, oraindik kartilarik ez zuenez osasunketa publikora ezin zela joan eta horrexegatik mediku pribatu batengana joan zen. Honek, kontsulta kobratu zion eta gainera egin behar izan zituen analisiak ordaindu behar izan zituen, guztira 24.000 pezeta. Kartila jaso zuenean, Osakidetzari gastu horiek ordaintzeko eskatu zion, baina eskaria atzera bota zion Osakidetzaren Gipuzkoako Saileko Zuzendariak indarrean zegoen legedia ezarriz. Interesatuak errekurtsua aurkeztu zuen arren erantzun berbera jaso zuen.

Ekaria atzera botatzen zitzaiola adieraziz bidali zitzaion idatzia, lege, dekretu, erabaki etabarren erreferentzia arau emaez beteta zegoen eta hauek ziotena ez zen azaltzen eta hizkuntza erabat juridikoan idatzita zegoen. Bazirudien Administraritzako beste organu bati edo zuzenbide munduarekin zerikusia zuen norbaiti idatzita zegoela eta ez hirikide normal bati, hauen arlo honetako ezagutza maila normalki mugatua izaten bait da.

Guzti horregatik, alegatzaileak Erakunde honetara jo zuen ukamenarekin ados ez zegoelako eta idatzien edukiarengatik, hauen bidez ez bait zuen ulertzen zergatik ukatzen ziren dirua itzultzera, han aipatzen ziren arautegien edukia ezagutzen ez zuelako.

Kexa tramitera onartu eta aztertuta jakin zen, gastuak itzultzeari zegokionez, hauek ordaintzea ez zela bidezkoa, bere emaztearen mediku premia alta hartu eta bost egun baino lehen izan bazen, Osakidetzako asistentzia eskubiderik ez zuelako, eta beraz fakturak ordaintzea ez da bidezkoa. Alderantziz, premia bosgarren eguna geroztik gertatu bazen, erreklamatzailerik osasunketa publikora jo behar zuen asistentzia eske. Osakidetzak laguntzera ukatu eta zentru pribatura joan beharrean gertatu bazen kasuan bakarrik erreklamatu zezakeen fakturen ordainketa. Baina kasua hau ez denez, Osakidetzak ez dago dirua ordaintzera beharturik. Hala ezartzen dute Kanpo-zerbitzuek emandako osasunketa asistentziari buruzko irailaren 14ko 25/73 Dekretuko 18. atalak eta Gizarte Segurantzaren Testu Bateratuari buruzko maiatzaren 30eko 2065/74 Dekretuaren 102.3 atalak.

Administraritzak huts egin zuenik ez zen ikusten beraz eta hori jakinarazi zitzaion kexadunari.

Halere, kexaren bigarren zatian dagokionez, ikusi da Administraritzak sarritan hizkuntza kriptikoa, hirikideentzat ulergaitza erabiltzen duela eta horregatik gomendatzen da, Administraritzaren erabakien arrazoi juridikoen sakontasunean galerarik gabe, hauek eskuragarriagoak izan daitezela, administratuarentzat ulergarriak izan daitezela.

Era berean, kasu honek erakusten du hirikideei informazio gehiago eman behar zaiela, kasu konkretu bakoitzari dagozkion eskubide eta beteharrak argitzeke, izan ere, kexa hau seguraski ez bait zen sortuko interesatuari gauzak behar bezala azaldu izan balitzaizkio.

Zenbait pentsio motaren bateraezintasuna. (748/89)

Esklerosi aniztun andere bat ezindua zegoen, Bizkaiko INSERSOko balorazio eta orientabide ekipoaren arabera %81eko elbarri mailarekin. Honegatik erakunde publikoek ematen dituzten laguntzetatik bat ere jasotzen ez zuenez, 1987ko uztaillean bi laguntza eman zioten: Gutxiengo Sarreraren Garantia eta Hirugarren Pertsonentzako Laguntza. Biak otsailaren 1eko 883/1984 Errege Dekretuaren arabera eman zitzaizkion, honen bidez finkatzen eta arautzen delako Elbarrituen Integrazio Sozialerako 13/82 legean iragarritako prestazio sozial eta ekonomikoetarako sistema berezia.

Errege Dekretu honen arabera, laguntza hauek jasotzen badira, beste organismo publiko batengandik ezin jasoko da kantitate bereko edo gehiagoko besterik (21.c at.). Esaten du baita ere, laguntza hauek jasotzeko eskubidea elbarrituek izango dutela, beraien errekurtsio pertsonalak urteko gutxiengo soldata baino %70ean txikiagoak baldin badira (3.2. at.). Beraz, aipatutako baldintzetakoren bat betetzen ez bada, ezin da laguntzarik jaso (29. at.).

Urte bete geroago, bere senarra hil zenean, alarguntsa pentsioa jasotzeko eskubidea aitortu zitzaion, hau Gizarte Segurantzak ordaintzen zion eta honekin jasotzen zuen dirua lehen aipatutako bi laguntzena baina handiagoa zen. Une honetan, aurreko xedapenen arabera, bateraezintasuna sortu zen bi pentsioak jasotzen zituelako, eta beraz, bietako bat jasotzeko eskubidea desagertzen zen.

Honen berririk ez zen izan ordea eta pentsioak bi organismo ezberdinetatik iristen zirenez, bata bestearen berri ezagutu gabe, biak ordaindu zitzaizkion interesatuari.

Hilabete batzuk geroago, INSERSOren kompetentziak Foru Diputazioei eskualdatu zitzaizkienean, ordaintzen zitzaizkion bi pentsioak aztertu zituen Bizkaikoak, jasotzen zituen bi pentsioez gain alarguntsa izateagatikoa ere jasotzen zuela eta hau ez zela bateragarria ikusiz. Ondorioz, bi laguntza erretiratu zion, alarguntsa pentsioa kobratzen hasi zenetik dataren izaerarekin. Honek, legez kanpo jasotako dirua itzultzea esan nahi zuen.

Alegatzaileak ez zuen hau ulertu eta bidezkotzat jotzen ez zuelako, Erakunde honengana errekurritu zuen.

Halere, kasua aztertu eta ikusi zen Bizkaiko Diputazioak indarrean zegoen legediaren arabera jokatu zuela eta beraz ez zegoen hutsegiterik, hau horrela jakinarazi zitzaizkion interesatuari. Diputazioek Giza Ongasuntza mailan eskeintzen ziren eta berarentzat interesgarriak izan zitezkeen zerbitzu batzuen berri eman zitzaion ere. Udal asistente sozialarekin harremanetan jartzea gomendatu zitzaion, honek egin zezakeena azalduko ziolako.

Lan kategoriako errorea. (528, 564/89)

528/89 eta 564/89 espedienteak antzeko egoeran aurkitzen diren bi pertsonen azaldutako arazoei dagozkie. Bizkaiko Foru Diputazioaren osasunketa

zentruetan lanean ari ziren bi mediku psikiatra ziren, 1985eko martxoan Osakidetza transferituak izan zirenak.

Bizkaiko Jaurreriko A.O.ean argitaratutako pertsonalaren erlazioan, biak, hutsegite baten ondorioz, jefe kliniko kategoriarekin azaldu ziren, errealitatean zerbitzu buruaren kategoria zegokienean.

Beharrezko erreklamazioak egin ondoren, urte bereko abuztuan, aipatutako aldizkarian erroreen zuzenketa argitaratu zen, eta oraingoan bataren kategoria zuzen zetorren baina ez bestearena.

Halere, zuzenketak ez zuen ondorio praktikorik izan, nominetan kategoriak oker azaltzen bait ziren eta ondorioz zegokien dirua ez zuten kobratzen.

Osakidetzan gestio zenbait egin zituzten beraien egiazko kategoria aitortu ziezaieten eta hutsunea zuzendu zedin, halere ahalegin guztiak alperrikakoak izan ziren, nahiz eta beraien organismoak, Bizkaiko Foru Diputazioak, eskatzen zuten kategorian sartu.

Beraz, kontentzioso-administratibora jo aurretik, 1989ko uztailean Erakunde honi planteatu zioten kasua.

Kexak tramitera onartu ondoren, hilabete berean Osakidetzari informazioa eskatu zitzaion eta honek, 1989ko abuztuaren 22an Zuzendari Nagusiak hartutako erabakiaren kopia igorri zuen, alegatzaileetarako bati zerbitzu buru kategoria aitortzen zitzaiola aitortuz.

Interesatuari erabakia jakinarazi zitzaion eta kasua konponduta zegoela-koan, espedientea itxi egin zen. Baina ez zen horrela, urte bereko abenduan berriro idatzi bait zigun esanaz, Osakidetzako Zuzendari Nagusiak bere alde emandako erabakia ez zela nominan gauzatu. Esaten zuen baita ere, aurrekoaren data eta eduki berdineko Osakidetzako Pertsonalaren Gestiorako Zuzendariaren beste erabaki bat zegoela. Baina Sail Zuzendariarekin harremanetan jarri ginen, bera bait zen nominako hutsegitea zuzentzeko arduraduna, eta adierazi zigun aipatutako erabakien berririk ez zutela ez berak, ezta Administraritzta eta Lan Antolamendurako Zuzendariordeak ere.

Barne koordinaketa falta honek interesatuaren gestioentzat atzerapena suposatzen zuen berriro, eta horregatik jo zuen Arartekoarengana.

Beste erreklamatazileari dagokionez, Osakidetzak adierazi zuen hutsegitea zuzentzeko gestioak burutzen ari zirela. Memoria hau idazten den unean, kasu hauek konpondu gabe daude.

Gaisoek beren historia klinikoaz ezagutzeko duten eskubideaz. (767/89)

Andere bat hilabete t'erdi egon zen Zamudioko Ospital Psikiatrikoan ingratsurik medikuaren aginduz. Urte batzuk geroago atzerriko erakunde batera joan nahi izan zuen eta horregatik eskatu zuen bere historia klinikoaz aipatutako ospitalean. Behin eta berriro eskatu zuen arren, zentruak ospitalean egon zela baieztatzen zuen agiri bat besterik ez zion eman.

Urteak pasa zituen bere historia klinikoaz eskuratu nahirik, eskubidea bait zuen, eta ezintasunagatik Giza Eskubideen aldeko Elkarteak Euskal Herrian duen informazio bulegora joan zen eta bertan azaldu zuen kasua. Elkarte honek, ospitaleko mediku zuzendariari idatzi zion interesatuari bere historia klinikoaz emateko eskatuz eta honetarako azaroaren 25eko 272/1986 Dekretua aldarrikatzen zuen, euskal Lurralde Autonomoko ospital zentruetan historia klinikoaren erabilera arautzen bait da bertan, eta interesatuak eskubide osoa zeukan hori eskatzeko.

Halaxe da, aipatutako arauak 7.2.a.1. atalean dio, kontsultaren arrazoia asistentzia ematea denean "gaisoak edo bere familiartekoek, edo zentruko zuzendariaren iritziz prozesuan interes erreala daukatela frogatzen duten gertukoek, gaisoaren prozesuari buruzko informazio osoa eta etengabea, ahozkoa eta idatzizkoa, diagnostikoa barne jasotzeko eskubidea izango dute, kasua daraman medikuaren bidez".

Ospital psikiatrikotik erantzunik jasotzen ez zuenez, Euskal Herriko Giza Eskubideen aldeko Elkarteak Arartekoaren Erakundeari pasatu zion arazoa, aipatutako zentrua euskal sare publikokoa delako.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian gestioak egin ziren eta esan zitzaigun ospitaleko zuzendariak hitzez azaldu zizkiola interesatuari bere historia klinikoan zeuden datuak, eta idatziz ez zizkiotela eman, gaisoaren egoera, ikuspegi psikiatrikotik horretarako moduan ez zegoelako. Halere, esan zuen, zentru horretako Zuzendaritzak ez zeukala interesatuari gaur egun bere historia klinikoa eskuratzeko eragozpenik, historian bere ospitaleko egonaldia zegozkion datuak aterez.

Arartekoak, Giza Eskubideen aldeko Elkarteari ezagutarazi zizkion gestioaren ondorioak, aipatutako historia klinikoko datuak eskuratzeko bitartekaritza egitera eskaintzen zelarik.

Zumarragako "Nuestra Señora de la Antigua" Ospitalean anestesistatik eza. (45/89)

Zumarragako "Nuestra Señora de la Antigua" Eskualde Ospitalean anesteziologia eta ernatze errekurtsoen zuzkidurako hutsuneen ondorioz zentrua egoera larriara iritsi zen; kirofanoak itxi egin ziren eta ondorioz ebakuntzetarako zegoen itxaron zerrenda etenda utzi behar izan zen. Anestesista bakar bat zegoen eta honek larrialdi eta etengabeko ospitaleratze zerbitzua eskeintzen zuen osasunketa zentru baten premia ezin zituen bete. Esan bezala kirofanoak ez ziren ia ezertarako erabiltzen eta gaisoak Tolosa eta Donostiako ospital zentruetara eramaten ziren.

Ospital honetako mediku batzuk, egoera Arartekoari jakinarazi zioten, eta hau, kasua larri eta presazkotzat jo eta ospitalera bertara joan zen, lekuan bertan gertatzen zena ikusi eta arazoaren garrantzia eta ondorioak aztertzeko; alde batetik osasunketa zentru publikoa izanik, hirikide kopuru handi bati oinarriko eta beharrezko zerbitzua ematen zion eta ixteko zorian zegoen, eta bestetik, gaisoak beste zentru batetara eramaten behar ziren, tratamendu jarraitua emateko zailtasuna eta honek dakarren osasunketa arriskuarekin.

Aldi berean, handik bidalitako gaisoen ondorioz beste ospitalak gainezka zeuden, bereziki Donostiako osasun-egoitza, honen ondorioak ere haintzakotzat hartzekoak zirelarik.

Arartekoak berehala heldu zion gariari, ezin bait zuen ulertu nola gera zitekeen hain zerbitzu inportantea. Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Kontseilariari deitu zion eta honek esan zion Osasunketa Ministroari eta Espezialitateen Batzorde Nazionalako Presidenteari laguntza eskatu ziela soluzio proposamen batzuk aurkeztuz. Osakidetzak bere aldetik Anesteziologia, Ernatze eta Minaren Terapiaren Baskongadetako Elkartearekin (SUNARTD) harremanetan zegoen, honek Anesteziologia eta Ermatzerako Batzorde Asesore Teknikoarekin (CAT) iharduten du normalean elkar lanean Osakidetzarentzat soluzioa bilatzen. Harreman guzti hauen ondorioz, martxoaren 20an emergentziazko plan bat aurkeztu zen.

Ordurako, Zumarragako Ospitalak bi anestesista zituen.

Jadanik larria zen egoera hau areagotu egin zen, ondorengo egunetan (21,25,26) guardiak egiteko pertsonalik gabe geratu zirelako. Honen aurrean ospitaleko zuzendariak dimititu egin zuen.

Anestesistek beren gogoz laguntzarik ez zutela ematen ikusi zen (Zumarragakoari guardia luzatzea ez zen aski). Egun haietako batean Osakidetzak erabaki bat hartu zuen, areako bi anestesista (FEA) presaz eta behin behineko izaerarekin bata Donostiako osasun-egoitzara eta bestea Zumarragakora bidaltzea (FEA-en kontratuan esaten da lana beharra dagoen lekuan egin beharko dela). Izendatutako fakultatiboek eta beste batzuk protesta egin zuten neurri honegatik, baina beste batzuk borondatez eskeini ziren.

Egun batzu geroago Osakidetzak gure Lurralde Autonomoan lanpostu berrien deialdia egiteko pausoak ematen hasi zen. Deialdi hau 1989ko maiatzaren 10eko Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren Erabakiz egingo zen.

Osakidetzak, arazoa behin betirako konpontzeko neurri batzuk proposatzen zituen, hala nola: anestesia zerbitzuan guardia txanda iraunkorra izatea eta plantila gehitzea profesionalen artean lehiaketa bat eginaz. Proposatzen ziren beste neurri batzuk Autonomiaren mugak gainditzen zituzten, hala nola anestesista titulua eskuratzeko tramiteak bizkortzea, heziketa prozesuan zeuden MIR medikuen kopurua gehitzea eta euskal Lurralde Autonomora beste herrialde batzutatako anestesistak ekartzea.

Erakunde honetan diktamen bat egin zen soluzio proposamen batekin eta jarraian, espediente osoaren kopia Defensor del Pueblo-ri eta Osasunketa Kontseilariari igorri zitzaion. Arartekoaren iritziz, kasu honetan Administrazitza erharduketak Osasunketa eta Hezkuntza eta Zientzien Ministarritza eragiten zituen.

Urtarrilaren 25eko EHAOak Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren bi Erabaki argitaratu zituen, hauen bidez lehen aipatutako deialdiak egiten zituelarik. Anestesiologia eta ernatze espezialitate saileko 22 mediku espezialistari egiten zitzaion leku turno libre eta mugatuaren bidez, hauetako bat Zumarragarako zelarik. Gainontzekoak, 11 Bizkaiko ospitaletarako ziren, 6 Gipuzkoarako eta 4 Arabarako.

Arartekoak kasua ez du itxi eta gertutik jarraitzen du gaia, bere bitartekotza positiboa izan bait zen hain arazo larria behin behineko konpontzeko.

Herri barruan farmazia lekuz aldatzea. (754/89)

Kexadunek diote, Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Sailak gora jotzeko helegite bidez baimena eman duela farmazia bulego bat herri berean (Irunen), zenbaki berdinean dagoen aldameneko loa batera pasatzeko, eta erabaki hau Farmazeutikoen Kolegio Ofizialak erabakitakoaren kontra dagoela. Eztatidatzen den gaia zera da, farmazia bulego berriaren eta gertuen dagoen farmaziaren artean 1979ko azaroaren 21eko Ministarritza Aginduak agintzen duenarekin adostasunean neurtutako 250 m. zuzenen alderik ba ote dagoen ala ez.

Arartekoak dokumentazioa bildu zuen eta egokitzen jo ziren lekukotasunak jaso ziren eta aldi berean Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugirorako Foru Zuzendaritzari eskatu zitzaion lehen aipatutako Ministarritza Aginduak ezartzen dituen erizpideekin neurketa berri bat egin zezala. Esan behar espedientearen peritu batzuren neurketak zeudela, beraien artean kontrajarriak, eta beraz behin betiko perito proba berri bat erabakiorra zen.

Azkenik, Arartekoak atera zuen ondorioa zen orain irekitzen zen farmazia bulegoaren eta gertueneko farmaziaren arteko tartea 250 metrotik gorakoa zela, beraz Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Sailak hartutako erabakia zuzena zela. Arartekoaren erabakia espedientearen inplikaturiko bi aldeei jakinarazi zitzaion eta hau artxibatu egin zen.

Osakidetzak uko egiten dio gaiso bati jatorrizko faktura itzultzea. (414/89)

Kexadunaren emazteari, ospital zentru pribatu batean ebakuntza egin zioten, baina ebakuntzagatik ordaindutako gastuak Osakidetzak itzultzera beharturik zegoela uste zuen, horregatik aurkeztu zion eskaria jatorrizko fakturarekin.

Osakidetzak ordea ez zuen eskaria onartu, horretarako arrazoirik ez zegoelako.

Orduan, erreklamatzailerak jatorrizko faktura itzultzeko eskatu zion Osakidetzari, baina ez zuen eskuratzetik lortzen, eta horregatik jo zuen Erakunde honengana arazoan bitartekaritza egin zezan.

Osakidetzako arduradunekin beharrezko gestioak egin ondoren, erreklamatzailerari faktura igorri zion egun gutxiren buruan; kasua amaitutzat eman eta espedientea itxi egin zen.

Osasunketa publikoko medikuek mediku ziurtagiriak egiteko inprimaki ofiziala erabiltzeko derrigortasunaz. (434/89)

Barakaldoko Udalak uda koloniak eratu zituen herriko umeentzat eta aurkeztu beharreko dokumentuen artean mediku ziurtagiria zegoen, eta honetarako inprimakia Udeletxean ematen zuten medikuak bete zezan.

Erreklamatzailerak, 1989ko uda kolonietarako izena emandako ume baten ama, pediarraren kontsultara joan zen bere alabarentzat Udaletxean jasotako inprimakia betetzeko mediku ziurtagiria egin ziezaión. Pediatrak esan zion, eskatzen zuen ziurtagiria estankotetan saltzen den Mediku Kolegioko inprimaki ofizialean bete behar zela eta ez andereak eskaintzen zion paperean.

Erreklamatzailerak, bere ustez osasunketa publikoa dohanekoa delako eta inprimakiagatik dirua ordaintzeko prest ez zegoelako, anbulategiko zuzendariarengana joan zen eta honek esan zion Osakidetzako medikuek erakunde honen inprimaketan bete behar dituztela mediku txostenak, halere gaiaren azterketa justiziak zeramala.

Honen ondoren, anderea bere medikuarengana joan zen (umeak 10 urte zituen) mediku txostenaren eske. Honek, ziurtagiri eta mediku txostenaren arteko desberdintasunaz hitzegin zion lehenik, eta gero esan zion medikuak ziurtagiriak Kolegioaren inprimaki ofizialetan betetzera beharturik zeudela eta mediku txostena Udaletxeko inprimakian betetzera ere ukatu egin zen.

Azkenik, anbulategiko zuzendariak eskuratu zion eskatzen zuen txostena.

Erreklamatzailerak ordea, azaldutako arazoa berea bakarrik ez zelakoan eta urte urte familia ugaritan errepikatzen zela eta osasunketa publikoko medikuek egin beharreko mediku ziurtagiri edo txostenak dohanekoak izan behar direla uste zuelako, Erakunde honetara jo eta arazoa azaldu zuen.

Arazoa tramitera onartu eta aztertu ondoren honi zegoen informazioa eskatu zitzaion Osakidetzari. Erakunde honek bidali zigun txostenean esaten da mediku ziurtagiriaren egitea eta banatzea, Mediku Kolegioaren antolamendua arau-

tzen duen 1967ko apirilaren 1eko Aginduko 81. eta ondorengo atalek arautzen dutela. Arau horrek dio "mediku ziurtagiri ofizialak egiteko eta banatzeko baime-na, hauen helburua edozein delarik ere, Medikuko Kolegioek bakarrik dute, zerbitzu honen antolamendua eta zuzendaritza Kontseilu Nagusiari eta haiek beren lurraldean banatzea Kolegioei dagokielarik".

Txosten horren arabera, ziurtagiriak Kolegioaren inprimakietan egiteko beharra zalantzazkoa da eta osasunketa publikoan lan egiten duten profesionalen kasuan nahasketa sortzen du. Hain zuzen, Gizarte Segurantzako medikuen estatutu juridikoa onartu eta arautzen duen abenduaren 23ko 3160/66 Dekretuaren 27. atalak, medikuen betekizunen artean zera sartzen du "emandako osasunketa asistentziaren ondoriozko dokumentu ofizialak betetzea eta bideratzea", organismo publikoak, gure kasuan Osakidetzak, honetarako bere dokumentu edo inprimakiak izan behar dituela garbi adieraziz.

Beraz, Kolegioek ezartzen duten derrigortasuna badirudi sektore pribatuan ari diren medikuei dagokiela, baina ez publikokoei. Azken kasu honetan dauden medikuek osasunketa Administrazitzak eskuratzen dizkien inprimakietan bete beharko dute mediku txostena.

Hala eta guztiz ere, arazoa hor dago gaiari buruzko legedia garbirik ez dagoelako, Medikuko Kolegioaren arautegien eta osasunketa publikoaren arduradun diren erakundeen artean kontraesana dagoelako. Osakidetzak arazo hauen berri izan zuenean, "mediku txostena" izenburua daraman inprimakia egin zuen, mediku guztiei gogoraziz aseguratuak eskatzen duenean, hauei ematera beharturik daudela.

Planteiatutako arazo zehatzari eta kexaren arrazoiari dagokionez esan behar da, kasu hau zela eta, Barakaldoko anbulategiko Zuzendaritzak herriko Udalarekin harremanak izan zituela osasun zentruetako mediku txostenek eta mediku ziurtagiriekin balio berdina izan zezaten eta horrela gertatzen da gaur egun.

Bizkaiko Medikuko Kolegioak, kasua ezagutu zuenean, gutuna bidali zien mediku guztiei gogoraraziz ziurtagiriak eskatzen zitzaizkienean, berdin osasunketa publikoan bazen, inprimaki ofizialetan betetzera beharturik zeudela.

Osakidetzak bere aldetik, "mediku txostena" ereduia ezarri du bere zentru guztietan, erakunde honen ustez medikua ezin bait da behartu berak lana egiten duen erakunde batena ez den inprimakian informea ematera.

7.8. INDUSTRIA ETA MERKATARITZA

A) Sarrera

Aipaturiko sailari dagokion kexa gutxi aurkeztu dira. Guztira hiru, hau da, aurkeztutako guztien %0,5a.

Eragindako Administrazitzaren banaketa estatistikoa ondorengoa da:

— Eusko Jaurlaritza	2
— Udalak	1

Orohar, kaltetuek idatzi bat bidali dute Bizkaiko I.T.V.-en (Ibilgailuen Ikuska-pen Teknikoa) ihardun bategatik, eta hau aztertu ondoren ikusi zen ez zela ezer irregularririk gertatu.

Eusko Jaurlaritzari subentzioak eskatzeko inprimakiak euskaraz ere inprimatu zitezten eskatuz eginiko eskariari zegozkion gestioak egin ziren.

B) **Kexen aukeraketa**

Euskal Herriko herri-Administrazaritari euskaraz zuzentzeko eskubidea. (273/89)

Bizkaiko enpresa batetako zuzendariak Arartekoarengana jo zuen, euskaraz bere adierazpenak egiteko eskubideari zegokion arazoa azaltzeko.

Ordezkatzen zuen enpresak, bere txosten guztiak euskaraz egiten zituen eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Komertzio Sailarekin izan dituen harremanetan beti hizkuntza hau erabili du.

Aipatutako Sailak Berrikuntza Teknologikorako Programaren barruan erazten dituen laguntzak eskatu ditu zenbait urtetan enpresa honek, memoria txostena eta gainontzeko dokumentuak beti euskaraz aurkeztu dituelarik.

Ordea, 1989an, laguntza hauetarako eskari inprimakia betetzerakoan, gazte-leraz bakarrik zegoela ikusi zuten.

Euskal Herriko herri-Administrazaritari euskaraz zuzentzeko eskubidea galarazten zitzaioelakoan, arazoa Erakunde honi jakinarazi zitzaion.

Gaia aztertu ondoren ikusi zen, erreklamatazailearen alde zeudela Konstituzioko 3.2. atala, hizkuntzen ofizialtasunari dagokiona, gure Autonomia Estatutuko 6. atala eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeko 3. atala eta I eta II tituluak ere (10/82 Legea).

Arartekoa aipatu Saileko arduradunarekin jarri zen harremanetan, eta honek esan zuen 1989ko urtean aldaketa batzuk egin zirela. Espedienteak geroago informatizatu ahal izateko, formato tipo bat diseinatu zen, euskarri informatikoa barne zuelarik, programari eraginkortasun handiagoa eman ahal izateko.

Formato hau, informatikako atala barne, gazte-leraz bakarrik atera zen denbora gutxi zegoelako eta oraindik esperimendu fasean aurkitzen zelako. Halere, planarekin aurrera jarraitzekotan, 1990 urtean bi hizkuntzetan aterako zen programa, horretarako prestatzen eta itzultzen ari zirelarik.

Sailak emandako arazoia aztertutik, Administrazaritzaren aldetik hutsegiterik ez zegoela ikusi eta espedientea itxi egin zen.

7.9. **NEKAZARITZA ETA ARRANTZUA**

A) **Sarrera**

Sail honetan guztira sei kexa jaso dira, aurkeztutako guztien %1a beraz. Eragindako Administrazaritzen banaketa hau da:

– Eusko Jaurlaritza	1
– Diputazioak	4
– Udalak	1

Kexa gutxi aurkeztu badira ere, batzuk azpimarragarriak dira jasotzen zuten kezka eta larrialdiarengatik. Horrela, nekazari batzuk Arabako Foru Aldundiak mahastegien landaketa berri, birlandaketa eta ordezkatzeari buruz argitaratutako

Dekretuarekin ez dira ados azaldu. Arazoak probintzia eta lurraldeko mugak gainditzen ditu, Komunitateko arauak bait daude tarteko.

Beste idatzi batzuk, baserrietarako errepideen konponketa, argindar hornidura, etabarri dagozkien arazoei dagozkie, konponbiderako beharrezko gestioak egin direlarik.

B) Kexen aukeraketa

Mahastien birlanaketa eta Komunitateko arautegia. (114/89)

Kexaduna, Gasteizen bizi dena, bere gurasoengandik jasotako lur batzuen jabe da eta 11 urte daramatza lur horietan mahastiak lantzen.

Alabaina, Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 21eko 594/1989 Dekretuak, zeinaren bidez Arabako lurralde historikoan 1989/1990eko kanpainan mahatsondo berrien landa, birlanda eta ordezkaritza arautzen bait da, bere 1. atalean zera ezartzen du "eskaria egiten duenak gutxienez 5 urte eraman behar ditu nekazal herrian eroldaturik eta bertan bizitzen, behar diren agiriekin frogatuz".

Atal horren ondorioz ezin zuen mahastiaren landaketarekin jarraitu, nahiz eta bera izan lurren jabea, eta horregatik jo zuen Arartekoarengana arazo honekin.

Ikusi zen bere arazoa konpontzeko araua aldatu egin behar zela eta horregatik gaia Arabako Diputatu Nagusiaren eskuetan jarri zen.

Honek Batzar Nagusietako Garapen, Araudi eta Harremanetarako Zerbitzuari txostena eskatu zion eta bertan adierazten zuen aipatutako atala ez zegoela kontraesanean Konstituzioaren 14. atalarekin, bere helburua "mahatsondo berrien landaketarako eskaria eskaintza baina handiagoa zen kasuetan azalera adjudikatzeko erizpideak objetibatzea" zelako.

Jarraian, Diputatu Nagusiak Aldundi horretako Nekazaritza, Abelzaintza eta Mendien Sailari kasua berriro aztertu zezala eskatu zion, erizpide sakonago bat eduki nahirik.

"Sail honek —Diputatu Nagusiak dioenez—, bideratutako eskari guztiak tramitera onartzea erabaki du, dagokion egunean erabakia hartzeko kalterik gabe". Era berean jakinerazten du, foru Dekretuaren aurkako birjarpen errekurtsio bat dagoela Diputatuen Kontseiluak erabaki zai. Bien bitartean, aipatutako Dekretua arauaren barruan dago.

Horrela beraz, gaia ez da itxi eta erabakia Arabako Foru Diputazioak hartu beharko du.

Erakundeak Aldundiarekin harremanetan jarraituko du bere garaian erabakiaren berri emateko.

7.10. GARRAIO ETA HERRILANA

A) Sarrera

Arlo honetan Eusko Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio Sailari dagozkion kexak sartzen dira.

Bertan bost kexa besterik ez dago, kexa guztien %1a suposatzen duena.

Guztiak izan dira Eusko Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio Sailaren aurka-koak, eta gehienak Eusko Trenbidearen aurkakoak, horietan jubilatuta eta beren ezkontideek eskatutako zerbitzuaren doangotasunari ukapenak nabarmentzen direlarik.

B) **Kexen aukeraketa**

Ibai ondoan dagoen etxe batek jasaten dituen urgainezkak. (684/89)

Kexadunak etxe bat erosi zuen Araba Lautadako Asparrena herrian. Etxea herriko behe aldean dago, bertatik igarotzen den ibaiak egiten duen bihurtune batean, eta euri-jasa handiak izaten diren bakoitzean etxea urgaineztatu eta hondamen handiak izaten ditu.

Kexadunak zioenaren arabera, guzti horren motiboa ibaiaren egoera da, ez bait dute aspaldiko urteetan harraskatu.

Erakunde honek Udaletxera jo zuen eta Alkateak zioenez, arazoaren gainean zegoen, baina Udaletxearen baliabide ekonomiko eta materialen urritasuna zela eta, ezin izan zutela artean konpondu. Halaber, ibaiaren harraskaketa edo garbiketa 1989 urtea bukatu baino lehen egitea pentsatzen zutela, Arabako Foru Aldundiak INEMekin batera eragindako Lan-Suztapenerako Plangintzaren barruan sartuz, lan horretarako eta antzeko beste batzutarako bost langile hartzerik izango zutela eta.

Kexadunari Udaletxearen plangintzaren berri eman eta espedientea behin-behineko eran itxi zen.

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos zerbitzuaren doangotasuna. (623/89)

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos zerbitzuan, erretiratuen eta jubilatuen doangotasuna erregulatzeko duen araudiaren interpretazioa zela eta, bi kexa-idazki aurkeztu ziren Ararteko Erakundearen.

Eusko Kontseilu Nagusiko Garraio eta Komunikaziorako Sailaren 1979ko urriaren 15eko Aginduak bere 2. atalean, garraio zerbitzu doangotasunerako eskubide izango dutenen aipamena egiten du: "...jubilatutako eta beren ezkontideak... eta dena dela 70 urte bete dituztenak. Halaber, pentsionistek izango dute eskubide, beti ere egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuz gero."

Erakunde honetan jaso genuen idazki horietariko bat, 52 urteko pentsionista baten emazteak igorri zuen. Emakume horrek Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos zerbitzurako doangotasuna eskatu eta ukatu egin zioten, bere senarrak 65 urte bete arte itxaron behar zuela adieraziz. Izan ere, adin horretan senarra jubilatuta egoerara pasa eta beraz, emazteak zerbitzu horien doangotasunerako eskubidea bereganatuko du, lehen aipaturiko Aginduaren 2. atalaren arabera.

Beste kexa-idazkia 63 urteko gizon batek igorri zuen. Gizon hau, lan egiten zuen enpresan gauzatutako birmoldaketaren ondorioz, Lansarien Berme-Baltza delakora pasa zen. Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos enpresak, zerbitzuaren doangotasuna ukatu zion 65 urte ez zituelako. Kasu honetan aurrekoan bezala aipaturiko Aginduaren 2. atala aplikatu zen.

Administraritzak indarreango legediaren arabera ihardun zuenez gero, kexadunei Arartekoaren eritzia agertu zitzaion, eta espedientea itxi egin zen.

7.11. HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIROA

A) Sarrera

Sail honetan Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroari dagozkion kexak sar-tzen dira.

Arlo honetan aurkeztu dira kexa gehienak, 100 guztira, eta hauek, aurkeztu-tako guztien %21a dira. Honek adierazten du administratuen artean kezka bizia dagoela zuzenki beraien bizitza kalitatearekin zerikusia duten gauzez, hala nola etxebizitzaz, paisaiaren eta inguruaren egoeraz, orohar ingurugiroaz.

Sail honetako konpetentziak oso banatuta daude Eusko Jaurlaritza, Aldundi eta Udalen artean, eragindako Administraritzen araberako estatistika banaketa hau aurkitzen dugularik:

– Eusko Jaurlaritza	25
– Foru Aldundiak	3
– Udalak	72

Datu hauek ongi ulertzeko, jakin behar da gai gehienei dagozkien kon-petentziak zenbait Administraritzaren artean banatuta daudela, eta ondorioz espediente bakoitzean Administraritza batek baino gehiagok hartu behar duela parte.

Azpmarratu behar da, aurkeztu diren kexa askok establezimendu publikoek, bereziki tabernekin sortarazten dituzten zaratak salatzen dituztela, sarritan kexak, eragindako bizilagunen kolektiboek aurkeztu dituztelarik.

Etxebizitzari dagozkion kexa ugari ere aurkeztu dira, adjudikazioarekin ados-tasun eza edo babes ofiziala duten etxebizitzaren eraikuntza akatsak salatzen direlarik gehienetan.

Hirigintza mailan ere aurkeztu dira kexak, eraikinen hondamendi aitopena-ren eta ondoriozko lurreratzearen aurka egiten dute protesta batzuk, beste batzuk Udalek ematen dituzten zenbait lizentziaren kontra, biztanleen eritziz kolektibitateari kalteak egiten dizkielako bistak eta hiri perspektibak aldatzean, eta zenbait kasutan, eraikigarriak diren orubeak, giza ekipamendu edo berdegu-netarako erabili behar direla uste dutelako.

Desjabetzapenari dagokion kezarik ere aurkeztu da, desjabetzapena egin duen Administraritzak ordainketa garaiz egin ez duelako, bi aldean artean ezarri-tako epeak Administraritzak errespetatu ez dituelako beraz.

B) Kexen aukeraketa

Ezinduak eta etxebizitza egokirako eskubidea. (705/89)

Ezindu batek idazki bat bidali zuen Ararteko Erakundera, Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzak eragindako herri-suztapeneko etxe multzo baten proiektuan, ezinduen giza-integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea bete-tzen ez zela agertzen zuena.

Aipatutako Legeak bere 57. atalean, herri-Administraritzak diruz lagundu, suztatu edota babestutako edonolako etxegintza proiektuari dagokionez zera esaten du, "Etxebizitza kopuruaren %3a gutxienez ezinduentzat programatuko

da, haiek erabil dezaten aproposak eta beren ingurugiroan integra daitezen nahitaezkoak diren eraiketa ezaugarriak bermatuko dituen.”

Kexadunak zioenez, proiektuak 84 etxebizitza izanik, horietatik gutxienez 3, ezinduentzat egokitu beharko lirateke, eta ez 2. Hori zela eta, neurria salatzen zuen idazki bat igorri zuen Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera, baina zazpi hilabete pasa ziren eta ez zuen erantzunik jaso.

Erakunde honek gaia aztertu eta kexadunak eskatutakoa bidezkoa zela ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzara jo zuen, zeinek denbora gutxiere barru eskaerari baiezkoa ematea erabaki zuen, hau da, gehitu egin zuen ezinduentzat erreserbatutako etxebizitzaren kopurua eta beraz, bi izan beharrean hiru egokitu zitzairen. Kexadunari gestioaren emaitza azaltzen zuen idazkia igorri eta espedientea itxi egin zen.

Udal etxebizitzaren salerosketa-baldintzaren hauspena. (93/89)

Udal batek 1987ko martxoaren 12an egindako osoko bilkuran bere etxebizitza-sailaren parte bat saltzea erabaki zuen, aspaldiko urteetan alokairu arauetzituenak hain zuten. Sinatutako akordioan salmenta prezioa 1.500.000 pezeta-tan ezarri zen, alokairu moduan mantendu nahi zutenei hala izan zedineko aukera eskaintzea erabaki zelarik.

Udal etxebizitzekin balitzeko lukurreria edo espekulazioa aldentzearen, Udalak beste zenbait baldintzaren artean honako hauek ezarri zituen, erosleak etxebizitza erosi eta hurrengo 5 urteetan bertan bizi behar zuela, eta 10 urte buruan ezin izango zuela bere onurako saldu. Baldintza hauek ez betetzea, Udala eta eroslearen arteko hitzarmena haustea litzateke salerosketaren eskribau-agirian sinatutakoaren arabera.

Kexadunak 1987ko maiatzan, inkilino bezala zuen eskubidea erabiliz, bizi zeneko etxea erosi zuen. Bi urte geroago arrazoi pertsonalak zirela eta, gizon honek etxea saldu nahi izan zuen, gertuko beste herri batetara bizitzera joan ahal izateko. Baina Udala aurka jarri zen, zeren salerosketa burutzeko erabakitzeko baldintza, 10 urteko epe barruan etxebizitza saltzea galera zuena alegia, hautsi egiten zela ulertzen bait zuen.

Kexadunak, orduan, Erakunde honetara jo zuen. Hemen gaia eta agiri guztien azterketa egin ondoren, Udalaren ihardupidean irregularitasunik ez zegoe-la erabaki zen, zeren epe konkretu batean ez saltzeko aurretiko agindu zehatza bait zegoen kexadunak errespetatu ez zuena.

Guzti horren ondorioz eta behin kexadunari eta aipaturiko Udalarirekin gure gestioen emaitzen berri eman ondoren, espedientea itxi egin zen.

Etxegintza akatsak Administraritzaren babespeko etxebizitzetan. (350/89)

Kexadunak Administraritzaren babespeko etxebizitza bat erosi zuen. Urte gutxi-eren buruan etxebizitzako zolua hondatzen hasi zen, parketa altxatzen hasi bait zen.

Kexadunak Udalean eta Etxebizitza Ordezkaritzan salatu zuen gertatutakoa. Azken honek ikuskaketa bat egin ondoren txosten tekniko bat idatzi zuen, Administraritzaren Babespeko Etxebizitza Araudiaren 153.C.6. atalak esandakoa hausten zela adierazten zuena. Horren ondorioz zegokion espediente ireki zen

eta etxegintza-enpresari informatu zitzaion, ikuskatutako akatsak eta hutsuneak berdindu edo zuzentzeko 15 eguneko epea eman zitzaiolarik.

Epe hori gainezka gainditu eta inolako konponketa lanarik egiten ez zela ikusirik, kexadunak Erakunde honetara jo zuen.

Arartekoak zenbait gestio egin zuen Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean gaiak arduratu zedin eta etxegintza-enpresak txosten teknikoan agertzen ziren beharrezko konponketak egin zitzaizkion, horretarako epe berri bat eman zitzaiolarik. Azkenik konponketa horiek egin ziren eta beraz, arazoa ere konpondu egin zen. Kexadunari informazio hori eman ondoren, gure ihardupidea amaitzat jo eta espedientea itxi egin zen.

Hiri-paisaiaren perspektibak eta eraiketa berriek eragiten duten aldaketak.
(142/89)

Auzokide talde bat kale batean eraikitzen ari ziren etxebizitza multzo berria bertako Santa Maria Elizaren ikuspegia galerazten zuela konturatu zen.

Gaia Udaletxean aurkeztua zen jadanik, eta hartaz hitzegi zen 1988ko maiatzean Hirigintza eta Lanak, eta Zerbitzuetarako Udal-Batzordeek batera egin zuten bileran. Bilera hartan, etxebizitza horien eraiketa-lanak etxegintzarako udal-baimena eman zeneko proiektua errespetatzen zuela erabaki zen. Aurkeztutako arazoa kokatzerakoan zera adierazi zuten, proiektu hori kalearen aurreko lerrokaketaren legez eginga zela, eta ez egungoaren legez, eta horren ondorioz kalea 1,20 m. estutzen zela.

Hala ere, lana aurrera zihoala ikusirik, eta bilera hartan erabakitakoarekin ados ez zaudenez, berriro aurkeztu zuten gaia Udalaren aurrean eta, nahiz eta Elizak "historiko-artistiko" izendapena ez izan, monumentu bat zen heinean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren aurrean ere aurkeztu zen.

Hilabete bat geroago, Udaletxeak berriro sendetsi zuen aurreko erabakia, aipaturiko etxebizitzaren eraiketa proiektuan hutsunerik ez zegoela agertuz, zeren "eraikuntza parametroak bere garaian Udalak baimendutakoak bait dira".

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak aurkeztu zitzaion salaketaren aurrean zera esan zuen: "Ordezkatze Arauek ezarritakoaren lerrokaketaren arabera, eraiketak 1,20 metrotako aurreratze bat suposatzen du"; beraz, hirigintza hauspena egiten ari zen.

Aipaturiko Kultura eta Turismo Saileko idazki hori Udaletxera eta Bizkaiko Foru Diputazioko Hirigintza eta Ingurugiro Sailera igorri zen; baina proiektua ez zen aldatu ez eta eraiketa lanak gelditu ere.

Kexadun taldeak Ararteko Erakundearen aurkeztu zuen arazoa. Erakunde honek gaia aztertu eta zenbait gestio eta bilera egin ondoren, Udalaren ikuskatze ez zuzenak eragin edo baimendutako hirigintza hauspena zegoela erabaki zuen. Baina eraiketa aurreratuegia zegoen, ia bukatuta, Ordezkatze Arauek ezarritakoaren lerrokaketaren arabera eginiko aurreratze akatsa zuzentzeko.

Aurreko egoerara itzultzeko oztopo nabarmenak zirela eta, eraiketaren erausketa bait zen itxenbide bakarra, Erakundeak kexadun taldearekin hitzegi eta akordio batetara iritsi zen. Horren ondorioz kasua "burututako egintzaz" hartzea eta Udala ohartaraztea erabaki zen, hurrengo alditan gertatutako antzeko egoerak suerta ez daitezken begira dezan. Eta horrela egin zen; idazki bat bidali zitzaion Alkateari erabakitakoaren berri emanez, eta ondoren espedientea itxi egin zen.

Ekokontseilarien Lanbide Eskolako ikasle baten kaleratzea. (278/89)

Kexadunak idazki bat bidali zuen Ararteko Erakundera, Irungo Ekokontseilarien Lanbide Eskolan ikasten hilabete bat zeramala kaleratu egin zutela esanez. Kexadunaren ustez bidegabekeria hutsa zen.

Ekokontseilarien Lanbide Eskolak INEMek suztatutako tailer-eskola delako modalitate bat dira, eta horien helburua zera da, hirikideengan ekologiarako ardura eragingo duten iharduerak bultzatuko dituen pertsonalgo espezialista baten prestaketa.

Gure Autonomia Komunitatean hiru erakunde dira eskola mota horien eraketan parte hartzen dutenak: Udala, benetazko eragilea eta zuzendaria kontratatutik eta izendatzen duena, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, eta INEM. Lanbide eskola horien kontrola eta ikuskapena Udalari, eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari dagokie. Eskola horiek 1988ko martxoaren 21eko Ministrarritza Aginduak eta 1989ko apirilaren 4eko Ministrarritza Aginduak arautzen dituzte; azken Agindu honek Lanbide Heziketarako Estatuko Plangintza arautu, eta heziketari dagokionez lehen aipatu dugun Ministrarritza Aginduaren ordezkotza izaera duelarik.

Erakunde honek gaiaren lehen azterketa egin ondoren, informazioa eskatu zien eskola horretan inplikaturik dauden hiru Erakundeei.

Eskolako zuzendariak eta heziketa programen udal-arduradunek azaldu zuten, kexadunak ez zuen ikastaroarekin loturiko ihardueretarako inolako interesik, askotan kale egiten zuen eta bestalde, taldearekiko eta bere lanarekiko jarrera ez zen batere ona. Gainera, adaptaziorako oztupoak agertzen zituen eta arazoak sortarazten zituen beste ikasleengan. Guzti horrek eztabaidagarri bihurtu zuen eskolan jarraitzea.

Halaber, lehen aipaturiko 1989ko apirilaren 4eko Ministrarritza Aginduaren 22.3. atalak ikasleak kaleratzeko beste zenbait balitzeko motiboren artean zera ezartzen du: "dagokien arduradunen erizpidez ikastaroa probetxamenduz segituko ez balute".

Bestalde, eskolan eragina duten hiru erakundeetako arduradunak bat zetozen kaleratze-espedientearekin; horren ondorioz Erakunde honek ere ontzat eman zuen.

Administraritzak berari zegokion eskurantzaren arabera ihardun zuela eta bere prozeduran irregulartasunik ez zegoela ikusirik, Ararteko Erakundeak bere eritzia agertzen zuen idazki bat bidali zion kexadunari, eta espedientea itxi egin zen.

Hirigintza Jabetzaren Ganbara Ofizialaren funtzio berriak, eta norbanako interesen legezko defentsa. (361/89)

Kexadunak zenbait urte zeraman Hirigintza Jabetzaren Ganbara Ofizialeko kuota ordaintzen, eta 1989an abokatu baten defentsa behar izan zuen bere etxean zuen arazo partikular batetarako.

Aipaturiko Ganbararen egoitzara joan zen, eta letradu bat izenda ziezaioten eskatu zuen, juizioan defendatuko zuena. Baina Ganbaran zera erantzun zioten, ez zutela zerbitzu hori eskaintzen urte hasieratik alegia, eta zergatiaz galdetu zuenean Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera bidali zuten. Kexadunak zioenez, hor ere ez zioten neurri horren zergatia argitu; esan ziotenez aipaturiko

Ganbarako abokaturen batengana jo zezakeen baina era pribatuan, hau da, haren zerbitzuak ordainduz.

Hirigintza Jabetzaren Ganbara Ofizialaren ihardupide aldaketa hori ulertzen ez zuenez, kexadunak Ararteko Erakundera jo zuen.

Kexa onartu eta gaia aztertu ondoren, Jabetza Ganbarak arautzen dituen legedia aldatua izan zela konprobatu zen.

Ganbara horiek, Etxebizitza Ministraritzako ekainaren 2ko 1649/77 Dekretuak arautzen zituen, zeinaren 13.g atalak honako funtzio hau ezartzen bait die: "jabeen legezko ordezkapena edo defentsa judiziala edo estrajudiziala beren interes partikularrei dagokienez, behin eta prozesuzko postulaziorako baldintzak bete ondoren". Atal honi jarraiki, Jabetza Ganbarek kexadunak eskatutako zerbitzu mota hori eskaintzen zuten. Hala eta guztiz ere, aipaturiko Dekretua abenduaren 27ko 312/88 Dekretuaren bitartez aldatu zen.

Arautegi berriak bere 7.10. atalean Jabetza Ganbaren zeregin eta zerbitzuak ezartzen ditu, hau da, Ganbaren jabetzari dagozkion interes orokorren legezko ordezkari eta defentsa, baina ordezkari kolektiboan eta ez partikularren banakako ordezkarietan.

Bestalde, aipaturiko Dekretu berri hori indarrean sartu zenez geroztik, Hirigintza Jabetzaren Ganbara Ofizialei ordaintzen zaien kuota, borondatezko kuota bihurtu da.

Beraz, kexadunari eman zioten erantzuna galdetu zuen Erakundeetan zuzena zen eta indarrean dagoen legedian oinarritutakoa. Horren ondorioz kexadunari idazki bat bidali genion gure gestioen berri emanez, eta espedientea itxi egin zen.

Familia bakar batentzako etxebizitza landalurrealdean eraikitzeko baimena ukatzen da. (680/89)

Kexadunak Ararteko Erakundera jo zuen, herri batetako landalurrealdean familia bakar batentzako etxebizitza eraikitzeko lan-baimena eman ziezaioten eskubide osoa zuela bait zeritzon. Berak zioenez, Udalak eskatutako agiri guztiak bete eta aurkeztu zituen, baina honek ez zion erantzunik eman. Horren ondorioz, Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Foru Sailera jo zuen, bere funtzioek ematen dioten ahalmenari jarraiki Udalaren eskua har zezan eta eskatutako lan-baimena hilabeteko epe barruan eman zieziaion. Hilabeteko epe hori igaro eta Foru Diputazioetik erantzunik jaso ez zuenez, kexadunak lan-baimena eman ziotela eritzi zuen.

Ararteko Erakundeak zegokion azterpideari ekin eta gaiari buruzko informazioa eskatu zion Foru Diputazioari. Honek adierazi zuenez, Foru Diputazioak Udalaren eskua bere gain hartu zuen une horretan, beraz lan-baimena emateko eskua onartu zitzaion horretan, Foru Diputazioak Udalarari lan-baimena emateari zegokion administraritza-espedientea eskatu zion.

Gaia aztertu ondoren zera atara zen, kexadunak uste zuenaren kontra, ez zituen Udalak eskatutako agiri guztiak aurkeztu. Konkretuki, nekazaritza-esplotazioa bazegoeneko zihurtagiria aurkeztu gabe zuen artean, beraz, eskatutako agiriak aurkeztu ez zituenez, ezin zuen inolaz ere ulertu bere alde jokatzeko zuela bere egin ezak, eta horren ondorioz ez zegoen interpretatzerik Administaritzaren siltasuna lan-baimena ematea zenik.

Hala eta guztiz ere, Ararteko Erakundea ez dago ados Foru Diputazioaren ihardupidearekin, zeren bere ustez Erakunde horrek baimena emateko duen hilabete hori, eskaera Foru Erroldan sartzen den unetik konputatu behar da, eta ez Foru Diputazioak Udalaren eskua bere gain hartzen duen unetik.

Kexadunari jasotako informazio guztiaren berri eman zitzaion, eta espediente itxi egin zen.

Etxegintza hutsuneak agintaritza babespeko etxebizitzan. (33/89)

Kexadunak bidalitako idazkian adierazten zuenez, bizilagun talde batek, agintaritza babespeko etxebizitzadunak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzara jo zuen, haien etxeetan agertutako etxegintza akatsak eta erremate txarrak salatuz, horietatik funtsezkoenak hezetasun kondentsazioak eta aszentsoreko ganbaratxoaren estaltze akasduna zirelarik.

Etxebizitza Ordezkaritzatik audientzia eman zitzaion etxebizitzen eragileari, eta etxegintza akatsak berdindu edo konpon zitzaion eskatu zitzaion; pauso hori eman ez zuenez zigor-espedientea ireki zitzaion, eragileak oraindik beharrezko diren konponketei ekin ez diolarik.

Une hauetan espedientea jarraipidean aurkitzen da, balitzeko erantzunkizunak zehazteko instrukzio-aldian, eta beraz erabaki zai.

Desjabetzapen-espedientearen bideratze ez zuzena, funtsezko tramiteari eragiten ez diona. (201/89)

Kexadunak bidalitako idazkian bere adostasun eza agertzea du Udalak bere finkaren desjabetzapenerako jarraitu duen tramitea dela eta. Udal Batzarrak, 15 eguneko epea eman zuen finka okupatzeko beharraren adierazpena eta desjabetzapenaren eraginpeko eskubide eta ondasunen deskribapen fisikoa eta juridikoaren herri-argipideketa egiteko. Emandako epe hori Udalak berak hautsi zuen, kexadunak epeko azken egunean aurkeztu bait zuen idazki bat, eta ez zuten haintzakotzat hartu legezko epetik kanpo aurkeztu zela hartu bait zuten.

Ararteko Erakundeak gaia aztertu ondoren, kexadunak arrazoia zuela atera zuen, herri-argipideketari zegokion 15 eguneko epea errespetatu ez zen heinean; baina, bestalde zera ikusi zuen, nahiz eta kexadunaren azalpena onartua izan, desjabetzapenaren azken emaitza ez litzateke ezertan aldatuko, Udalak ere aztertu eta neurtu bait zuen azalpenaren edukia, hurrengo tramite batetan izan bazen ere.

Ararteko Erakundeak idazki bat igorri zion kexadunari non espedienteari buruz ateratako ondorioa agertzen bait zion; halaber, beste idazki bat bidali zion Udalari, hirikideen defentsa bermatzearen legeak ezarritako tramiteak errespetatzeko beharrezkotasuna gogoraraziz. Pauso hauek eman ondoren, espedientea itxi egin zen.

Legez kanpoko jatetxeak bizilagunei eragiten dien eragozpena. (286/89)

Kexadunak bidalitako idazkian adierazten zuenez, bera bizi deneko etxearen lehen solairuan jatetxe bat ireki dute, udal-baimenik gabe funtzionatzen duena;

horrez gain, bizilagunen etxartearen zati bat hozkailu-kamarekin okupatu dute haien baimenik gabe. Hori zela eta, Udalaren aurrean behin eta berriro salaketa aurkeztu dute, egun*arte erantzunik jaso ez dutelarik.

Ararteko Erakundeak behin kexa onartu eta aztertu ondoren, informazioa eskatu zion Udalari eta honek zera baieztatu zuen, aipaturiko etxeko lehen solairuan pasilu bat desagertarazi eta ondorioz jangela zabaltzeko udal-baimena emana zela, eta Udaltzaingoak egindako ikuskaketaldian kexadunaren etxean zarata soinua neurtu eta legeak onartzen duen dezibelio kopurua gainditzen zela, eta horren ondorioz Udaltzaingoari aldikako ikuskaketak egiteko agindua eman zitzaiola salatutako gertaerak ondo ezagutu eta finkatzeko.

Kexadunari idazki bat bidali genion, Udalaren informarean berri eta emandako pausoak azaltzen zituena, eta gure ihardupidea bukatutzat emanaz, espedientea itxi egin zen.

Bilboko etxejabe elkarte baten zabortegia osasunerako kaltegarri dena. (561/89)

Kexadunak Ararteko Erakundera bidalitako idazkian, Deustuko etxebizitzatalde baten bi etxe-multzotako jabe elkartearen zabortegian arratoiak eta labazomorroak, eta usai txarra zegoela salatzen zuen.

Esaten zuena eta artean jarraitutako ihardupidearen egiaztagiri moduan, Udaleko Etxegintza Jaurpide Sail delako arkitektu-buruak egindako txostena agertzen zuen, bertan zabortegiaren egoera txarra baieztatzen zelarik.

Osakidetzak eginiko txostenean zabortegiaren desagertzea eta desinfektaketa gomendatu zuen. Udalak bere ihardupideari ekinez, 10 eguneko audientzia eman zien zabortegiaren eraginpeko etxejabeei. Ondoren, egite-agindu bat zuzendu zien zeinaren bidez zabortegiko konponketa lanak egin, edo behar izanez gero, betirako desagertaraz zezaten agintzen bait zitzaien; halaber, hori egin ezean Udalak berak egitaratuko zuela ohartarazten zituen.

Udalak agindutakoa betetzen ez zenez, kexadunak berriro salatu zuen egoera Osakidetza aurrean. Horren ondorioz, Udaleko Etxegintza Jaurpide Sailak erabaki bat hartzen du zeinaren bidez etxejabe elkarteari epe berri bat eta azkena eman zitzaion, aldi berean zigor-espedientea irikitzea erabaki zelarik.

Ararteko Erakundeak eskatuta Udalak administrarritza-espedientearen egoeraz txosten bat bidali zuen, bertan, zabortegia desagertarazi edo osasunerako kaltegarri izan ez zedin beharrezko egokitzapenak egin zirenik agertzen ez zelarik.

Arartekoak idazki bat bidali zion kexadunari, Udalak egindako txostenaren berri agertzen zuena, eta espedientea bukatutzat eman zen.

Ur-iragazketak agintaritzza babespeko etxebizitzan. (453/89)

Kexadunak Ararteko Erakundearen aurkeztutako idazkian, bere gurasoek Zestoan duten etxebizitzan, aspalditik ur-iragazketak gertatzen ari direla salatu zuen. Idazkiarekin batera igorritako agirien artean, Barruti-Epaitegi batek ateratako erabakia, zeinaren bidez goiko etxebizitzako bizilagunari, hau da, ur-iragazketen eragileari, beharrezko konponketak egin eta kaltetunei ordaintzera kondenatzen bait zitzaion. Hala eta guztiz ere, epai-erabaki hori ezin izan zen bete, aipaturiko bizilagunak ordainezintasuna adierazi bait zuen.

Ararteko Erakundeak kexa onartu eta zenbait gestio egin zuen, bai Udala, bai Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendariak balitzeko irtenbide bat proposatu zuen. Auzi honetako etxebizitzak lehen-go agintaritza-babespeko etxebizitzak izanik, eta ekainaren 24eko 2114/68 Dekretuaren menpekoak izanik, zigor-espedita bat ireki zezakeen bizilagunaren aurka, etxebizitza higie-ne eta kontserbazio baldintza onetan ez mantentzeagatik, eta sal-erosketa kontratuaren 6. atala aplikatu, zenbait baldintzaren menpekoa dena. Horren ondorioz, etxebizitzaren behin-betiko jabegoa bizilagunarengana pasatuko litzateke, eta beraz, ordainezintasuna hautsi, eta konponketa lanak egitera eta beheko bizilagunei ordaintzera behartuta geratuko litzateke.

Hala eta guztiz ere, irtenbidea Udalaren eskutik etorri zen, zeinek aipaturiko bizilagunaren diru aldetiko egoera larria ezagutu, eta Udalak berak 1990 urte hasieran 5. solairuko etxebizitzako aberia eta horrek 4. solairuko horretan eragindako kaltea konpontzea erabaki bait zuen.

Kexaduna konponbide horrekin ados zegoenez, Erakunde honek amaitutzat eman zuen bere ihardupidea eta espedita itxi egin zen.

Arrasateko alde historikoan dagoen etxebizitza baten hondamendia. (285/89)

Kexadunak Ararteko Erakundearen aurkeztutako idazkian, Arrasateko Udalak alokairu moduan bizi zeneko etxearen hondamendi aitortpena egin zuela salatu zuen.

Kexadunak zioenez, eraiketaren egoera nahiz eta zaharra ona zen, baina jabea etengabe ari zen etxea alferrik galdu nahian eta horrela hondamendi aitortpena eragiten zuen. Bestalde, zera azpimarratzen zuen, aipaturiko eraikuntza herriko alde zaharreko multzo historiko-artistiko izendatu nahi den barrutian zegoela, alegia.

Ararteko Erakundeak auzian inplikaturik zeuden Administraritzak ezberdinekin jarri zen harremanetan, eta Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak aipaturiko eraikuntzaren erauzpena agindu zuela informatu zuen. Bestalde, herriko Alkateak, eraikuntzaren botaezatea eragiten zuen hondamendi aitortpena onartu zuela baieztatu zuen.

Azkenik, Administraritzaren ihardupidean inolako irregulartasunik agertu ezenez, kexadunari gure ondorioen berri eman zitzaion, eta espedita itxi egin zen.

Herri-bide baten itxidura erretiratzeko udal erabakiaren ez betetzea. (118/89)

Kexadunak Dimako (Bizkaia) Udalaren ihardupidea salatu zuen, 1986ko azaroaren 19an eta 1987ko maiatzaren 6an Udal-Batzarrak hartutako Erabakiak ez betetzeagatik. Erabaki horiek zirela medio, herri-bide baten legez kontra-ko itxidura erretiratzeko eskea egiten zitzaion herriko bizilagun bati.

Baina, 1988ko otsailaren 3an Udalak egindako Osoko Bilkuran, aurreko erabakiekin kontrajartzen zen erabakia hartu zuen, eta bidea galerazten zuten oztopo eta itxidurak kentzea ez zela beharrezkoa zeritzoten, bidea berez erabilgari zen eta.

Ararteko Erakundeak zenbait gestio egin zuen, eta azkenik 1989ko maiatzaren 17an Udalak Osoko Bilkuran, bidearen erabilera galerazten zuten oztopo eta itxidura guztiak bere kontura kentzea erabaki zuen.

Kexadunak Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren berri izan zuen eta besterik gabe espedientea itxi egin zen.

Etxebizitzaren berehalako hondamendi aitorpena dela eta, etxebizitza sozial baten eskaintza. (297/89)

Kexaduna Ararteko Erakundeak aurkeztu zen honako arazo hau azalduz. Hirigintza Saileko Teniente-Alkate Zinegotzi Ordezkararen Erabakiaren bitartez, bera bizi zeneko etxearen hondamendi aitorpena egin zen. Etxea hutsik uzteko 72 orduko epea jarri zuten, aldi berean, erauzte lanak eta hondakinak erretiratzekoak, eta azaldutako orubearen egokitze lanak agindu zituztelarik.

Kexadunak adierazi zigunez, 1988ko ekainaren 1ean erosi zuen aipaturiko etxea; ordaindu ahal izateko ia bi milioi (2.000.000) pezetatako kreditua eskatu behar izan zuen. Bestalde, 9 urteko semea du, bere kargu, bere egoera zibila separatua izanik.

Ararteko Erakundeak zenbait gestio egin ondoren, Udalak emakumeari hiri bereko auzo batean etxebizitza sozial bat eman zieziain konpromezua lortu zen, aipaturiko etxebizitzak urrian bukatzekoak zirelarik. Halaber, hondamendi aitorpena egindako etxebizitza horiek Udalak erosi zitzaion konpromezua ere lortu zen, haien prezioa bi milioi bostehun mila pezetatan (2.500.000) ezarri zelarik.

Nahiz eta kexadunak lehen zuen etxebizitzatik ahalik eta hurbileko etxebizitza berria nahi izan, azkenik konformitatea eman zion Udalaren eskaintzari. Beraz, Erakunde honek konpondutzat eman zuen arazoa, eta irtenbide baten bilaketan Udalaren jarrera ona haintzakotzat hartuz, espedientea itxi egin zen.

7.12. GESTIO EZBERDINAK

A) Sarrera

Kapitulu honetan sartzen diren kexak, beren edukiarengatik edo, aztertutako beste sailetan zehazki sartu ezin izan diren kexak dira, beraz "denetariko kutxa" bezalakoa da hau eta bertan oso gai ezberdinak sartzen dira.

Guztira 129 kexa aurkeztu dira, aurkeztutako guztien %27a ingurua delarik.

Beraz, aipatutako kexak, duten izaera sozialagatik edo presaka konpontzea eskatzen dutelako, Arartekoak zuzenki esku hartzea eskatzen duten kexa edo idatziak dira, nahiz eta sarritan Arartekoari berez dagozkion arazoak ez izan.

Beste kasu batzutan, eremu pribatuko arazoak izan arren, giza izaera sako-na zutelako Arartekoaren tartekaritza eskatzen zuten arazoak tratatu dira.

B) Kexen aukeraketa

Epaitegien funtzionamendua eta luzapenak. (23/89)

Kexadunari diru-kopuru bat egokitu zitzaien kalte-sari moduan, baina epaia egin eta handik zenbait hilabetetara horren jakinerazpen ofiziala jaso gabe jarraitzen zuen eta, beraz, legez zegokion diru-kopurua jaso gabe.

Erakunde honek zenbait gestio egin zuen zegokion epaitegiaren aurrean, horiei esker kexadunak epai-erabakia jakin ahal izan zuen eta bertan asignatzen zitzaion diru-kopurua kobratzerik izan zuen.

Ararteko Erakundeak antzeko beste zenbait kasutan esku hartu du (659/89 eta 459/89 espedienteak), horietan ere emaitza ona izan delarik; halaber, beste zenbait espediente judizial egoeraz ere eman izan du informazioa (412/89 eta 424/89 espedienteak).

NANeko zenbaki errepikatua eta alargun-sariaren ordainketa. (699/89)

Baziren lau urte Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalak kexadunaren NANeko zenbaki hutsaz ohartu zela, Cordobako beste pertsona baten zenbakia-ekin bat bait zetorren. Hori zela eta ezin zioten alargun-saria eguneratu.

Gauzak horrela, kexadunak Dokumentazio Saileko Komisaldegi Orokorreara jo zuen eta arazoa konpondu egin zen, NANeko zenbaki berria eman zioten eta.

Hala ere, 1989 urte hasieran, alargun-saria eguneratzera joan zenean arazo berberaren aurrean aurkitu zen, NANeko zenbakia berriz ere gaizki zuen, oraingo honetan La Coruñaeko pertsona baten zenbakiarekin bat zetorrelarik. Gainera, arazo horrek bere agiri ofizial guztietan eragiten zuen, eta kexadunak ezin zituen egoera konpontzeko bidezkoak ziren gestioak egin.

Behin Erakunde honek kexa-idazkia jaso eta aztertu ondoren zera atera zen; batetik zegokion Erakunde Estatuko Administraritzaren menpe zegoela, eta bestetik gaiak ez zuela inolako konplexotasunik. Arartekoak Defensor del Pueblo-ri igorri zion gaia, baina gestioak bizkortzearen Estatuko Gobernuak Euskal Herrian duen Ordezkariekin jarri zen harremanetan.

Gestio horiei esker hilabete t'erdi pasa ondoren arazoa konpondurik zegoen erabat. Kexadunari zenbaki berri bat eman izan zen zitaon, hau da hirugarrena, eta Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalak ontzat eman zituen aurkeztutako agiriak. Beraz, alargun-saria eguneratu zioten eta baita ordaindu ere kobratzeko zuen guztia. Halaber, huts horretatik zetozen beste arazo guztiak ere konpondu ziren.

Presondegiz aldatu nahi zuen preso. (527/89)

Kexaduna Puerto de Santa Mariako presondegian (Cadiz) ari zen kondena betetzen. Familia gora-beherak zirela eta, Burgoseko presondegira alda zezaten nahi zuen eta Ararteko Erakundera jo zuen ea bere bitartekotzaz lortzen zuen.

Erakunde honek Madrilgo Defensor del Pueblo-ri igorri zion idazkia, eta aldi berean Autonomia Komunitate honetako Gobernu Ordezkariekin jarri zen harremanetan.

Zenbait gestio egin ondoren, kexaduna Burgoseko presondegira alda zezaten lortu zen, bere familia ere hara bizitzera joana zelarik.

Zahar-egoitzetan hauteskunde kanpainak egiteko debekua. (711/89)

Senatu eta Diputatuen Kongresurako Ordezkariek aukeratzeko hauteskundeen aurre kanpaina (urriaren 29ko Hauteskunde Orokorren aurre kanpaina)

hastear zela, eta aurreko hauteskunde kanpainetan jasotako zenbait esperientzia kontutan harturik, Euskal Herriko Giza-Eskubideen Aldeko Elkarteak idazki bat igorri zigun, gure Autonomia Komunitateko zahar-egoitzetan eman izan diren egoeren berri eman eta horiek berriro gerta ez zitezen Erakundearen esku-hartzea eskatzen zuena.

Idazkiak zera agertzen zuen:

“Konstituzioko 23. atala bete dadin, hauteskunde kanpainetako garapenean bermatu behar den intimitate eta norberetasuna, eta botua emateko eskubidearen izate pertsonalaz hitzegiten duena alegia, Arartekoaren esku-hartzea eskatzen dugu, herriko sektore garrantzitsu baten duintasuna eta intimitatea babes daitezen, hau da, adindun jendearena.

“Euskal Herriko Giza-Eskubideen Aldeko Elkarteak “aurreko hauteskunde kanpainetan ezagutu izan ditu zahar-egoitz kopuru ez jakin batetan (agian uste baino handiagoa) egindako hauteskunde propaganda eta botoak hartzeko praktikak, bai adindunen duintasunari, bai hauteskunde prozesuaren gardentasunari dagokionez lege hauste bat suposatzen dutenak.

“Gehiegikeriarik nabarmenenak asistentziatzko egoitzetan eman izan dira, bertako bezeroak oso liluraberak bait dira bi arrazoi hauxengatik:

“— Adindunengan maiz suertatzen den ezaguera eta borondatearen kaskartzea, askotan izaten dituzten buru-gaisotasunek areagotzen dutena.

“— Haien egoera fisiko eta soziala dela eta, izaten duten segurantza-eza, eta horren ondorioz egoera horretan nolabaiteko eragina izan dezakeen pertsona edo taldearekiko menpekotasun izugarria eraman lezakeena.

“Horrela ohitura bihurtzen ari da alderdi politikoetako militante eta kargu-gaiak zahar-egoitzetara joatea hauteskunde eginkizunak burutzerara. Aztertu diren kasuetan, alderdiek beraiek hartu zuten erabakia, egoiliarrei aurretiko kontsultarik egin gabe, nahiz eta horrelakorik ez egiterik izan egoitza pribatuak bait dira. Halako zenbait eginkizunetan egoitza barneko baldintzei buruzko eskaintzak ere egin izan ohi zaie adindunei, hauteskunde prozesuaren ondorioz ezertan aldatzerik izango ez luketanak.

“Hala ere, aipatutako hauteskunde eginkizunek beste motatako eginkizun itsusiagoen hasiera besterik ez dira. Asistentziatzko zahar-egoitzetan botua emateko erarik ohizkoena, zaharrek batetik bestera joateko dituzten oztopoak direla eta, postazko botua da. Gauzak horrela, alderdi politikoei lotutako pertsonak zaharren gela pribatuetan sartzten dira haien aurretiko baimenik gabe, eta botua ematera gonbidatzen dituzte beren bitartekotza eskainiz. Gero beste gelara eramaten dituzte; han alderdi politikoak berak jarritako notaria izaten da, zaharren izenean postaz emateko eskatu behar diren agiriak eska ditzateneko esku-ematea sinatuko duena. Kasurik itsusienean, aurretik prestatutako eskaera-orrian nora bidali behar den jartzen duen lekuan, zahar-egoitza jarri beharrean, parte hartzen duen alderdi politiko beraren egoitza jartzen da. Horrela, hauteskunde-agiriak (papeleta, sobrea, herri-eroldan agertzen deneko zihurtagiria e.a.) botu-emailearen eskutara iritsi ez baina, alderdi politikoen eskutara iristen da, zeinek zuzenean bete eta igortzen bait du.

“Gauzak egiteko era honek ez du inolaz ere bermatzen botua postaz emateko eskaria egiten duenak beharrezko diren libertade eta arduraz egiten duenik. Alde batetik, zaharraren gelan sartzeak suposa lezakeen presio-indarra.

Bestetik, ardura eta borondate maila behar adinekoa ez dutenei begira, ulergaitza da benetan, legediak postazko botua eskatzen duenari, norbera joatea galarazten dion gaisotasun edo elbarritasunaren zihurtagirira besterik ez eskatzea, eta elbarritu horrek botu baliagarria emateko duen gaitasunez ez arduratzea; edo besterik ezean esku-emate bat egiten denean, presioaren bidez lortutako baiezoak izan ez ditezen, parte hartzen dutenen ardura nolabait ez kontrolatzea.

“Bestalde, aipatu dugun prozedurak, botu-emailea zaharra ez baino hauteskundeetan zuzeneko interesa duen hirugarren bat izateko aukera ematen du, eta ez da existitzen ordezkozta hori emango ez den berririk.

“Egoera horren aurrean Euskal Herriko Giza-Eskubideen Aldeko Elkarteak zenbait egipide proposatzen du:

“—Hauteskunde eginkizunei dagokionez, zahar-egoitzetako zaindarien beren lokalak pribatutzat eman ditzaten; beraz, bertako kolektiboaren gehiengoak hala eskatu ezean eginkizun horiek, eta bereziki gela pribatuetan sartzea, galeraz dezaten, botuak hartzeko egintzapide maltzurak ebitatzearren.

“—Hauteskunde-Administraritzak ikuskatzaileen bidez, postazko botua eskatzeko esku-ematea eta botua igortzearen garbitasuna kontrola ditzan, libertade eta borondatezko baldintza hoberenetan gerta daitezten. Halaber, postazko botua eskatu duenaren zuzenbidea konproba dezan, agertzen den zuzenbidea alderdi edo koalizio hautagai baten egoitzarekin bat egiten duenean bereziki”.

Ararteko Erakundea gure Autonomia Komunitateko hiru probintzietako Hauteskunde Batzordeko Presidenteekin harremanetan jarri eta kexaren kopia bana eman zien horrelakorik berriz gerta ez zedin beharrezko neurriak har zitzaten eskatuz.

Bizkaiko Hauteskunde Batzordeak urriaren 18an egindako bileran, bai alderdi politiko guztietako ordezkariei, bai Notarien Elkarteko Dekanoari, idazkiaren kopia bana bidaltzea erabaki zuen. Kopiarekin batera, indarreango legedia zorrotz bete zedin zain zezaten eskatzen zitzaien. Bestalde, bilera hartan zahar-egoitzak toki pribatuak zirela eta dagokion erakundearen baimenik gabe ezin zirela hauteskunde helburuekin erabili azpimarratu zen.

Joan zen urriko hauteskundeak igaro ziren, eta Erakunde honek ez du salatu ziren irregulartasunak berriro eman diren berririk izan.

Kreditu-txartel baten lapurreta eta kontuan zegoen diru-kopurua baino gehiagoko ateraldia. (611/89)

Kexaduna, Bizkaiko Aurrezki Kutxako bezeroa, “Txartel Berdea” edo “Txartela 6.000” delako txartela zuen, zeinaren bidez batek aipaturiko entitate horren kutxa automatikoen sarean sartzetik bait du. Zerbitzu hori dela medio, entidade horrek txartel hori duen bezeroari diru-kopuru jakin baten erabilgarritasuna —90.000— bermatzen dio, nahiz eta une horretan kontu korrontean izandako diru-kopurua eskainitakoa baino gutxiago izan.

Kexadunak adierazi zuenez, Txartel Berdea galdu zuen, horretaz zenbait egun igaro ondoren konturatu zelarik. Konturatu ahala parte eman zuen aipaturiko Aurrezki Kutxan, baina bitartean bere saldoa 14.000 pezetatakoa zenean, txartela erabiliz 90.000 pezeta ostu zizkioten kontu korrontetik.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren uztez, txartelaren jabeak ostutako diru-kopuru osoaren kargu hartu behar zuen, eta horren ondorioz, bezeroak bere kontu korrontean zuen saldo erreala eta ostutakoaren arteko diferentzia hori (76.000 pta.) eskuratzeko, bezeroak hilabetero Aurrezki Kutxa horren bitartez jasotzen zuen pentsiotik kopuru bat kentzea erabaki zuen.

Kexadunak zegokion helegite edo erreklamazioa aurkeztu zuen aipaturiko Aurrezki Kutxako Bezeroaren Erreklamazio Zerbitzuan eta Bilboko Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoan; baina Aurrezki Kutxak kexa onartu ez zuenez, emakumeak Ararteko Erakundera jo zuen.

Erakunde honek zenbait gestio egin, eta harremanetan jarri zen Bizkaiko Aurrezki Kutxako arduradunekin. Hauen ustez, txartelaren iruzurrezko erabilera ote zenaren ezaugarri guztiak agertzen zituen kasuak, zeren honako gertaera hauek eman bait ziren:

– Etxetik lapurtu zioten txartela, beste ezer eraman ez ziotelarik.

– Kutxa automatikoan eragiteko behar den isilpeko kodigoa, bezeroak txartelarekin batera gordetzen zuen, hori erantzunkizun eza bezala har zitekeelarik.

– Txartelaren jabeak ez zuen lapurreta salatu ez Polizia ezta horretarako espreski eraturik dagoen Bizkaiko Aurrezki Kutxako Zerbitzuaren aurrean, 24 orduz zabalik dagoena, baizik eta Aurrezki Kutxan bertan zenbait egun igaro ondoren.

Arrazoi horiengatik Bizkaiko Aurrezki Kutxak erreklamazioa ez onartzea erabaki zuen.

Hala eta guztiz ere, behin Ararteko Erakundeak gaia sakonki aztertu ondoren, zera atera zen, nahiz eta txartela eta bere kodigoaren zaintzeari zegokionez bezeroaren erantzunkizun eza onartu, eta nahiz eta zegokion salaketa jarri ez, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren jarrerak zalantza ugari sortzen zuela eta ez zela onartzekoa alegia.

Legezko testuak irakurriz gero zera atera zen, Bizkaiko Aurrezki Kutxak ezin zituela bezeroak alde aurretik onartu zituen mugak gainditu, berak jakin gabe. Entitateak bere dirua bezeroaren erabilerako jarri bazuen, zalantzakoa da gero bezeroak erantzun behar izatea diru horren lapurretaz, berak ezezaguna zuen diru horren lapurretaz alegia.

Bezeroaren borondate ona auresuposatu behar denez, kontrakoa frogatzen ez den bitartean, banka entidadeei dagokie, kasu honetan Bizkaiko Aurrezki Kutxari, kontratua sinatzerako orduan, zalantza guztien argipidea eta bezeroek beren txartelen erabilgarritasuna ezagun dezaten ardura. Horrela izan bada, eta bakarrik orduan, izan daiteke bezeroaren erantzunkizuna txartelaren erabilera ez zuzenak ekar lezakeen ondorioa.

Bizkaiko Aurrezki Kutxak ontzat eman zuen argudio hori eta txartelaren jabeak bere saldoan zuen diru-kopuruaz bakarrik ardura zedin onartu zuen, eta ez hasieran eskatzen zion lapurtutakoaren kopuru osoaz.

Oraindik gainditu gabeko Gerra Zibileko zatiketak. (634/89)

Espainiako Gerra Zibileko –1936/1939– Mutilatu eta Elbarri eta Alargun-
tsen Ligen Zuzendaritza Nazionaleko presidentek Erakunde honi bidali zion

idatzian Arartekoari elkarrizketa eskatzen zion, "bando errepublikarraren" eta "bando nazionalaren" artean beraien ustez egiten den diskriminazioa azaltzeko, diskriminazio hori indarrean dagoen lege araudian isladatzen dela esanaz. Kolektibo honen helburua da Gerra Zibileko mutilatu guztiak parekatzea.

Elkarrizketara, eskaria egiten zuen kolektiboko ordezkari bat etorri zen, eta laburbilduz, hau da azaldu zutena:

Bi dira iragan Gerra Zibileko mutilatuak babesten dituzten legeak: Aberriarengatik Gerran Mutilatutakoena, martxoaren 11ko 5/1976 Legea eta ekainaren 26ko 35/1980 Legea, zona errepublikarreko gudari-ohiei ezartzen zaien pentsioei dagokiona. Bi xedapen hauek mutilatuak bereiztu egiten dituzte zona edo bandoen arabera, tratu desberdina ematen zaielarik batzuei eta besteei.

Kolektibo honen ustez, 5/76 legeak "zona nazionaleko" mutilatuak babesten ditu, guzti hauek, beraien jatorria edozein delarik ere (maila profesionala, errenplazoa, boluntarioak, etab.), Aberriarengatik Gerran Mutilatutako Jaunen Gorputz Beneméritoan sartuta eta mutilatuak izan zireneko maila edo enpleguarekin geratzen direlarik. Era berean, gerra mutilatutzat hartzen dituztenez, militar profesionaltzat jotzen dituzte.

Bestalde, "zona errepublikarrekoak", pentsioetarako aktiboan dauden militar tzat jotzen dituzte, 1936ko abuztuaren 27ko 210 zenbakidun Aldizkari Ofizialean argitaratutako Dekretuko 5. atalaren arabera.

Pertsona hauek edo beraien alarguntsek jasotzen duten pentsioan, eragin zuzena du bereizketa honek.

Zona errepublikarreko gudari ohi mutilatuentzat pentsioei buruzko 35/1980 Legeak, bi taldetan banatzen ditu mutilatuak: zona errepublikarreko mutilatu militar profesionalak eta zona errepublikarreko gerra militar gudari-ohiak, eta hauei elbarri zibilak gehitzen badizkiegu, gerra zibileko hiru mutilatu mota dauzkagu.

Pentsioei dagokionez, 5/76 Legeak, 10. atalean, "zona nazionalekoei", gorputzari dagozkion ordain eta pentsioak aitortzen die, aldiz, 35/80 Legeak ez dio horrelako ezer beste zonakoentzat.

Zentzu berean, 5/1976 Legeko 3a.b xedapen amankomunak dio: "Gerran Mutilatutako Jaunen Gorputz Beneméritoan pertsonal guztiak, beraien enpleguei dagozkien kantitateen hirurteak jaso eta osatuko ditu hil arte".

Alderantziz, 35/80 Legeak ez du horrelako ezer adierazten. Bertako 4a xedapen gehigarrian, 5/76 Legea bildutako mutilatuei bakarrik aitortzen die beraien soldataren (5/76 Legearen arabera) eta 35/80 Legean ezarritakoari dagokionaren artean dagoen aldearengatik konpentsazioa.

Jaso beharreko pentsioari dagokionez, 5/76 Legeak, bere 10.2 xedapen amankomunean oinarri arautzailearen ehuneko ehunetan finkatzen duen bitartean, 35/80 Legeak dio, pentsioa kobratzeko oinarritzko soldata hartuko dela oinarri arautzailatzat, eta ez %100ean.

Aipatutako puntu guzti hauek, erreklamatzailen ustez, diskriminatzaileak dira eta Konstituzioan ezarritako hiritar guztien berdintasunaren kontra doaz. Gainera diote, 35/80 Legearen izpiritua ez dela betetzen, honek bait dio: "iragan gerran espainiarrak aldenitu zituzten desberdintasunak gainditzeko premia dela medio, edozein ejerzitotan burukatu zirela ere, 1936-1939 Gerra Zibilaren ondorioz mutilatuta geratu ziren hirikideei tratu berdina eman behar zaie, oraindik beren eskubideak behar bezala aitortuta ez badauzkate ere".

Gerra Zibilean mutilatutako guztientzat berdintasuna eskatzen dute, bandoen bereizketarik egin gabe, eta 5/1976 Legea biltzeko ahalmena ere eskatzen zuten. Era berean, Epaitegi Konstituzionalean 35/80 legearen kontrako errekur-

tso bat sartzea eskatzen zuten, Karta Magnako 1.1, 9 eta 14. atalak hausten direlakoan.

Gaia aztertu ondoren eta Defensor del Pueblo-ri zegokiola ikusita, arrazoitu-tako errebindikazioak jasotzen zituzten dokumentu guztiak igorri zitzaizkion. Une honetan Erakunde hori ari da gaia aztertzen.

Beharraren beharrezko iharduketa. (778/89)

Gazte baten gurasoek Ararteko Erakundera jo zuten familia arazo larri batek estutzen bait zituen. Erakunde honek nahiz eta arazoaren izaera pribatuaz jabetu, salatutako egoeraren premia eta larritasuna ikusirik, esku hartzea erabaki zuen.

Matrimonio horren semeak, 31 urteko gazte bat, bizitza erabat normala zeramah bai lanean bai sozial mailan. Bat batean eta sekta hindu batetako kide bat ezagutu eta harekin ibiltzen hasiz gero, bere jarrera eta izaerazko ohiturak zeharo aldatu ziren.

Sektak komentzitua, gazteak bere ondasun pertsonal guztiak entregatu zituen bere erlijio berri horren ondareari gehitzeko, eta familiak ere zeukan guztia eman behar izan zuen semeari laguntzeko. Gaztea handik gutxira behar gorri-gorrian geratu zen.

Behin bitartean, bere egoera fisiko eta psikikoa gaizkitzen zihoan, oso egoera larrira iritsi zelarik. Erakundeak gaia aztertu ondoren, auzi horretan jakitun den batekin harremanetan jarri zen. Familiarekin zenbait aldiz bildu, eta Bartzelonako Gazteen Aldeko Elkartera jo zuen, gaztea bertan sartzeko gestioak egin zituelarik.

Txosten hau ixterakoan, gaztea errekuperazio bidean dago.

VIII. ATALA

ESTATISTIKA

8.1. OHAR OROKORRAK

Martxoaren 8tik abenduaren 31a bitartean, 1.175 idatzi aurkeztu dira Arartekoaren erakundearen. Agiri hauek era askotako edukinekoak, 585 kexa eragin dituzte. Epe berean 1.625 idatzi atera dira.

Idatzi eta kexa kopuruaren artean dagoen aldearen arrazoia zera da, idatzi horietako asko Erakundeak Administraritzari edota erreklamatzaileri datu, agiri, txosten edo argibideak eskatzekoak izatea, edo beste batzutan interesatuak berak komenigarria eritzi diolako bere kexari dagozkion datu berriak ekartzea. Bestalde, aipatu beharrekoa da, aurkeztutako kexa asko ez direla Arartekoaren berezko konpetentzien eremu barruan sartzen; honen zergatia, Arartekoa Erakunde sortu berria izanik herritarrek zeintzu diren haren konpetentzia eta jokaera-eremua ez jakitean datza, baina horregatik aurkeztutako auziak ez dira zehaz-mehatz aztertu gabe utzi, edo interesatuei beren eskubideen defentsarako nola jokatu eta nora jo behar duten erantzuteke.

Erakundearen aurkeztutako idatzien hilabeteroko sarrera-irteera, martxotik (Arartekoaren izendapenarekin sortu zenetik) abenduaren 31a bitartean honako hau izan da:

Hilabetea	Sarrerak	Irteerak
MARTXOA	54	47
APIRILA	90	91
MAIATZA	151	134
EKAINA	144	223
UZTAILA	139	206
ABUZTUA	54	97
IRAILA	130	176
URRIA	140	295
AZAROA	152	211
ABENDUA	116	145
1989 URTEA	1.175	1.625

(Ikus 1. diagrama 137 or.)

Honek esan nahi du, hilean, batz besteko 118 idatzi sartu direla Erakundearen, eta 167 atera batz besteko.

Lehenengo iharduera-urte honetan jasotako kexa kopuruaren garrantzia ebaluatzeko, interesgarria da azterketa konparatibo bat egitea "Defensor del

Pueblo" eta Estatuko beste Parlamentu Ordezkarri Autonomikoek beren lehenengo iharduera-urtean jaso zituzten kexekin.

A) Lehenengo iharduera-urtean jasotako kexak

	Aldia	Kopurua
DEFENSOR DEL PUEBLO	82-12-30etik 83-12-31ra (12 hilabete)	30.763
SINDIC DE GREUGES DE CATALUNYA	84-7-11tik 84-12-31ra (6 hilabete)	606
DEFENSOR DEL PUEBLO ANDALUZ	84-12-13tik 85-12-31ra (12 hilabete)	1.036
DIPUTADO DEL COMUN DE CANARIAS	86-3-21etik 86-12-31ra (9 hilabete)	270
JUSTICIA DE ARAGON	88-1-11tik 88-12-31ra (12 hilabete)	1.044
ARARTEKO	89-3-8tik 89-12-31ra (10 hilabete)	585

Datu hauek behar bezala kokatu eta ebaluatzeko, kontutan hartu behar da oso biztanle kopuru desberdineko lurraldeei dagozkiela, eta Erakunde Autonomiko hauek data ezberdinetan sortu zirenez, lehenengo urteko iharduena ere desberdina dela kasu bakoitzean.

Horregatik eta gonbaratzekotan, parlamentu ordezkarri bakoitzari biztanle kopuru berdineko iritsi zaion kexa kopurua ezagutu nahi badugu, beharrezkoa izango da emandako datuetatik urteko kexa kopuru teorikoa estrapolatzea, eta datu hau ematea 10.000 biztanleko kexa kopurua adieraziz.

Erakundea	Kexa kopurua	Biztanlegoa	10.000 b.ko kexak
D.P. ESPAÑOL	30.763	38.473.418	7,99
S. GREUGES	1.278	5.978.638	2,13
D.P. ANDALUZ	1.036	6.789.772	1,5
D.C. DE CANARIAS	360	1.466.399	2,4
JUSTICIA ARAGON	1.044	1.184.295	8,8
ARARTEKO	699	2.154.828	3,24

(Ikus 2. diagrama 138 or.)

Datu hauek ateratzeko, martxoaren 8tik abenduaren 31ra Arartekoak jasotako 585 kexak urtebetera proiektatu dira, eta horregatik dira 699 kexa.

Berdin egin da "Diputado del Común de Canarias" eta Síndic de Greuges-ek jasotako kexekin. Hauetan ere lehenengo iharduera-urtea ez zen iritsi 12 hilabetera eta horrexegatik kalkulatu dira urtebeteko kexa teorikoak.

Emaizten taula horretan adierazgarria da ikustea, "Defensor del Pueblo", eta "Justicia de Aragon" ezik (lehenengoa, Estatuan artean tankerako beste erakunderik ez zegoenean sortu zelako, eta bigarrena erakunde historiko baten erantzuna delako, mendetako tradizioa duena eta beraz oso eratua gizartean), Arartekoa izan dela kexa gehien jaso dituen Estatuko Parlamentu Ordezkarria, lehenengo iharduera-urtean.

Bestalde, azertzen badugu euskal Autonomia Komunitateko biztanleek Defensor del Pueblo-ren Erakundearen 1983tik 1988ra bitartean aurkeztutako kexa kopurua, ikusten da urtetik urtera beheraka handia egiten dela aurkeztutako kexa kopuruan, 1983eko 1.138etatik 1988ko 374etara. Eta erreferentzia gisa 1984a hartuta ere, 1983a "Defensor del Pueblo" Erakundearen lehenengo iharduera-urtea izaki ez zelako hain adierazgarria izango, kexak gutxitu egin dira 5 urteren buruan 838etatik 374etara. Datu hauek portzentajetan aztertuz gero, adierazten dute Euskal Herriko Autonomia Komunitateko biztanleek Defensor del Pueblo-ri aurkeztutako kexak, 6 urteren buruan Estatuan aurkeztutako %3,70tik %2,71 izatera pasa direla.

B) "Defensor del Pueblo" Erakundeak euskal Autonomia Komunitatetik jasotako kexak.

	1983	1984	1985	1986	1987	1988
ARABA	134	109	78	89	78	61
GIPUZKOA	410	291	160	139	103	89
BIZKAIA	594	435	268	298	248	224
AUTONOMIA K.	1.138	838	506	526	429	374
ESTATUKO %a	3,70	3,41	3,04	3,90	3,50	2,71

(Ikus 3. diagrama 139 or.)

Hala ere, Ararteko Erakundean 1989. urtean aurkeztutako kexak gehitu egin dira era adierazgarrian Defensor del Pueblo-ren aurrean aurreko urtean aurkeztu ziren kexa kopuruarekiko.

Euskal Herriko Autonomia Komunitateari dagokionez, kontutan eduki beharreko datuak dira, alde batetik, Autonomia Komunitate guztietatik, gureak aurkeztu duela kexa-indizerik txikiena "Defensor del Pueblo" Erakundean; eta bestetik, urteen buruan gutxi-gutxika behera egin duela aurkeztutako kexa-kopuruak.

Hildo beretik, interesgarria da aztertzea nola gutxitu den Euskal Herriko Autonomia Komunitateak Defensor del Pueblo-ri 100.000 biztanleko aurkezturiko kexen portzentaia 1983tik 1988ra bitartean, hots, 55,30 izatetik 17,50 izatera jaitsi da. Honek esan nahi du, beste Komunitate batzuekiko, Euskal Herria izan dela Estatuko Defensor del Pueblo-ren aurrean bi urteotan kexa gutxien aurkeztu dituen Autonomia Komunitatea, zeren 17 Autonomia Komunitateetatik azkenekoa izanda 1983 eta 1986 urteetan salbu, hauetan 16.a izan zelarik.

C) "Defensor del Pueblo" Erakundeak euskal Autonomia Komunitatetik jasotako kexak 100.000 biztanleko

	1983	1984	1985	1986	1987	1988
100.000 biztanleko	55	39	24	24	20	17

Begi bistakoa da ez dagoela erlazio zuzenik aurkeztutako kexa kopurua eta herri-Administraritzaren funtzionamenduaren artean; ezta aurkeztutako kexa eta Parlamentu Ordezkarrien jokaeraren artean ere, ez bait du esan nahi beste Autonomia Komunitateetan baino kexa gutxiago izateak Komunitate honetako botere publikoek nahitanahiez hobeto funtzionatzen dutenik, eta ezta "Defensor del Pueblo" Erakundearenganako deskonfidantza dagoenik ere. Halere, baieztatu daiteke oso positiboa izan dela Ararteko bezalako Erakunde bat martxan jartzea, euskal gizartearenganako hurbilketa ezezik, biztanleek Erakundearen ezagutzea eta onartzea ere ekarri bait du.

8.2. ESTADISTIKA PROZEDIMENTALA

Arestian aipatu bezala 1989an, martxotik abendura 585 kexa jaso dira guztira; hauetatik 107, "Defensor del Pueblo" eta Defentsore autonomikoei igorri zaizkie, lehenengoari bigarrenei igorritakoak baino kopuru handiagoa osatzen dutelarik.

Beste kexa multzo batek, guztira 60, zenbait kudeaketa lan eragin dio Arartekoari, arazoari erantzuteko irtenbide egokia bilatzen saiaraziz.

Partikularren arteko arazo edo auziei dagozkien kexak, guztira 69, Arartekoaren jokaera-eremutik at egonik baztertuak izan dira.

Azkenik, euskal herri-Administraritzaren jokaera eta kompetentzia-eremuari zegozkien kexek, Udaletxe eta Aldundiak barne, 349 espediente osatu dituzte.

Argitasun gehiagorako datuon banaketa ematen da honako taulan:

AURKEZTUTAKO KEXAK: 585

– Defensor del Pueblo-ri igorriak	107
– Gestio ezberdinak	60
– Kexa pribatuak	69
– Euskal herri-Administraritzaren aurkako kexak	344
GUZTIRA	585

(Ikus 4. diagrama 140 or.)

Bistakoa da ez direla onartu kexa guztiak. Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen Legeak ezarritako arrazoiengatik zenbait kexa baztertu egin dira, "Kexaren Iter-a" deituriko Txostenaren zatian ikusteko aukera izan dugun legez. Guzti hau zenbakietan adieraziz eta Defensor del Pueblo-ri igorritakoak kontutan hartu gabe, 367 kexa *onartu* dira, hau da %77a; eta 111 *baztertu*, hau da %23a. Ondorengo taulan azalduko ditugu datu guzti horiek, onartutako eta baztertutako kexak dagokien Sailarekin erlazionaturik:

SAILAK	Jasotako kexak Kopurua	Onartuak		Baztertuak	
		Kop.	%	Kop.	%
Lehendakaritza	29	25	86	4	14
Nekaz.-Arrantzua	6	5	83	1	17
Kultura	7	7	100	–	–
Hezkuntza	52	50	96	2	4
Herriogasun Saila	38	30	79	8	21
Industria	3	3	100	–	–
Herrizaingo	19	18	95	1	5
Osasunketa	87	79	91	8	9
Lan Saila	3	3	100	–	–
Garraio-Herrilana	5	5	100	–	–
Hirig.-Etxeb.-Ingurug.	100	92	92	8	8
Gestio ezberdinak	129	50	39	79	61
GUZTIRA	478	367	77	111	23

(Ikus 5. eta 6. diagramak 141 eta 142 or.)

D) Onartutako kexak

Onartutako kexa guztiak ikertuak eta aztertuak izan diren arren, abenduaren 31an zenbait espediente oraindik burutu gabe zeuden, hau da, tramitean.

Honek kuantitatiboki ematen digu, onartutako 367 kexetatik 189 burutuak izan direla, hau da, %52a; eta beste 178 kexa erabakitze bidean aurkitzen direla, hau da, %48a. Ondorengo taulan adieraziko ditugu datu guzti horiek, bukatutako kexak eta tramitean daudenak dagokien Sailarekin erlazioztatzen direlarik:

SAILAK	Guztira Kopurua	Tramitean		Burutuak	
		Kop.	%	Kop.	%
Lehendakaritza	25	15	60	10	40
Nekaz.-Arrantzua	5	3	60	2	40
Kultura	7	4	57	3	43
Hezkuntza	50	20	40	30	30
Herriogasun Saila	30	17	57	13	43
Industria	3	1	33	2	67
Herrizaingoa	18	8	44	10	56
Osasunketa	79	34	43	45	57
Lan Saila	3	1	33	2	67
Garraio-Herrilana	5	1	20	4	80
Hirig.-Etxeb.-Ingurug.	92	59	64	33	36
Gestio ezberdinak	50	15	30	35	70
GUZTIRA	367	178	48,5	189	51,5

(Ikus 7. eta 8. diagramak 143 eta 144 or.)

Azkenik, 189 kexa (%52a) burutuetatik, Arartekoak eritzi duenez, 81 kasutan alegatzaileak arrazoia zuen, eta 95 kasutan arrazoia kexa aurkeztu zaion Administrazitza, edo behintzat ez alegatzen zuenak. Halaber, aurkeztutako beste 13 kexa, onartutako %7a direnak, ez zioten ezer berezirik eskatzen Arartekoari, ez zuten kexarik agertzen. Obserbazio hutsak ziren edo zehaztasun ximpleak edo aurkatasun partikularrak aurkezten zutenak. Ondorengo taulan adieraziko ditugu datu guzti horiek dagokien Sailarekin erlazioaturik:

SAILAK	Kopurua	Arrazoia erreklam.	Arraz. ez erreklam.	Eritzi hutsak
Lehendakaritza	10	4	5	1
Nekaz.-Arrantzua	2	2	—	—
Kultura	3	2	1	—
Hezkuntza	30	8	19	3
Herriogasun Saila	13	1	12	—
Industria	2	1	1	—
Barne Saila	10	3	7	—
Osasunketa	45	23	22	—
Lan Saila	2	—	1	1
Garraio-Herrilana	4	1	3	—
Hirig.-Etxeb.-Ingurug.	33	14	16	3
Gestio ezberdinak	35	22	8	5
GUZTIRA	189	81 (%43)	95 (%50)	13 (%7)

(Ikus 9. eta 10. diagramak 145 eta 146 or.)

E) Baztertutako kexak

Baztertutako kexei dagokienez, baztertuak izan diren gehienak partikularren arteko arazo pribatuak planteiatzen zituzten; beste kexa-kopuru handia baztertu da bertan planteiatutako gaia justizia auzitegian zegoelako, eta kasu hauetan Arartekoak ez dauka eskuhartzerik, legeak hala erabakitzen bait du. Ondorengo taulan adierazten ditugu datuok dagokien Sailarekin erlazionaturik:

SAILAK	Guztira	Pribatuak	Urte 1+	Justiz.	Beste.
Lehendakaritza	4	—	—	2	2
Nekaz.-Arrantzua	1	—	—	—	1
Kultura	—	—	—	—	—
Hezkuntza	2	—	—	1	1
Herriogasun Saila	8	—	1	—	7
Industria	—	—	—	—	—
Barne Saila	1	—	—	—	1
Osasunketa	8	2	—	1	5
Lan Saila	—	—	—	—	—
Garraio-Herrilana	—	—	—	—	—
Hirig.-Etxeg.-Ingur.	8	2	1	—	5
Gestio ezberdinak	79	45	2	20	12
GUZTIRA	111 (%100)	49 (%44)	4 (%4)	24 (%22)	34 (%31)

(Ikus 11. eta 12. diagramak 147 eta 148 or.)

8.3. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA

1989an jasotako 585 kexak ikuspuntu soziologiko batetik aztertuta, oso datu interesgarriak lortu dira, hilabeteotan Erakunde honetara jo duten pertsonen ezaugarri-egoerak zeintzu diren agerian jartzen dutelako hain zuzen.

Hona hemen datu azpimarragarrien eskema:

1. *Alegatu dutenen bizilekuari dagokionez*: egiaztatu ahal izan dugu Erakunde honetara zuzendu diren ia pertsona guztiak Autonomia Komunitatean bizi direla, zehazki %98a.

Aurkeztutako kexa guztien %2ak baino ez dute osatzen Euskal Herritik kanpora eta atzerrian bizi diren hiritarrek egindakoak.

2. *Alegatu dutenen kopuru eta sexuari dagokionez*: kexa indibidualak 543 dira (hala hartuta arazo hertsiki pertsonalak direnak), hau da, guztiaren %93a. Kexa indibidual hauetatik 187 emakumezkoak aurkeztutakoak dira eta 356 gizonezkoak, hau da %31a emakumezkoak aurkeztutakoak eta %6a gizonezkoak. Kexa kolektiboak (hala hartuta talde konkretuei dagozkienak eta beraien izenean formulatutakoak) 42 dira, hau da, guztiaren %7a.

(Ikus 13. diagrama 149 or.)

3. *Erabilitako hizkuntzari dagokionez*: egiaztatu ahal izan da 40 kexa euskaraz zuzendu zaizkiola Arartekoari, hau da, guztiaren %7a; aldiz, gaztelanieraz aurkeztutakoak 545 dira, hau da %93a.

(Ikus 14. diagrama 149 or.)

4. *Kexak idatzitako erari dagokionez*: kexa guztietatik 158 besterik ez dira eskuz idatzita aurkeztu, hau da %27a; aldiz, kexadunen gehiengoak egokiago eritzi dio mekanografiatuta aurkezteari, hauek 427ko kexa-kopuruari dagozkio, %73ko portzentaia osatuz. Garrantzitsua da aipatzea eskuz idatzitako kexa gehienak oso heziketa maila baxuko eta zailtasun handiaz espresatzen diren pertsonen dagozkiela. Azkenik, beste 12 kexa, guztiaren %2a direnak, Ararteko Erakundearen dagoen pertsonalak idatzitakoak dira, interesatuaren bitartean.

(Ikus 15. diagrama 150 or.)

8.4. UKITUTAKO ADMINISTRARITZAREN ARABERAKO ESTADISTIKA

Aurkeztu diren kexa gehienak Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurka egin dira, eta guztira 175 dira, hau da %50a; ondoren Udalen aurka aurkeztutakoak datoz, 132 guztira, hau da %38a; eta azkenik, Foru Administrazioak bildu ditu kexa gutxien, 42 hain zuzen, hau da, %12a. Esandako guztia honako koadro honetan isladatzen da:

Administrazioa	Kexa kop.	%
– Eusko Jaurlaritza	175	50
– Udalak	132	38
– Diputazioak	42	12

(Ikus 16. Diagramak 151 or.)

Eusko Jaurlaritzako Administrazioaren aurka aurkeztutako kexak, honela banatzen dira Sailen arabera:

SAILA	Kexa kopurua	%
1. Justizia eta Lehendakariak	10	6
2. Nekazaritza eta Arrantzia	10	1
3. Kultura	5	3
4. Hezikuntza	51	29
6. Herriogasun Saila	3	2
7. Industria	2	1
8. Herrizaingoa	12	7
9. Osasunketa	58	32
10. Lan Saila	3	2
11. Garraio eta Herri-lana	5	3
12. Hirigin.-Etxe.-Ingurug.	25	14
GUZTIRA	175	100

(Ikus 17. Diagrama 152 or.)

Udalen aurka aurkeztutako keak, honela sailkatzen dira Udalez Udal banaturik:

ARABA

VITORIA-GASTEIZ	64
OKA-IRUÑA.....	18
LLODIO-LAUDIO	5
AGURAIN	3
AMURRIO	2
URKABUSTAIZ	2
BILAR	1
LEGUTIANO	1
ZUIA	1
	<hr/>
	97

BIZKAIA

BILBO	143
BARAKALDO	17
GETXO	17
SANTURTZI.....	13
BASAURI	10
GALDAKAO	7
LEIOA	6
PORTUGALETE	6
SESTAO	6
DURANGO	5
ERANDIO	5
TRAPAGARAN	5
GERNIKA	5
BERMEO	4
DERIO	4
ORTUELLA	4
AMOREBIETA	3
LEKEITIO	3
ABANTO-ZIERBENA	2
ARRIGORRIAGA	2
GORDEXOLA	2
BALMASEDA	2
UGAO-MIRAVALLS	2
ABADIÑO	1
ARACALDO	1
ATXONDO	1
BERANGO	1
DIMA	1
ELORRIO	1
ERMUA	1
GAMIZ-FIKA	1
GÜENES	1
IZURTZA	1
MUSKIZ	1
ONDARROA	1
URDUÑA	1
PLENTZIA	1
ZALLA	1
	<hr/>

GIPUZKOA

DONOSTIA	77
IRUN	15
EIBAR	11
HONDARRIBIA	8
TOLOSA	8
BERGARA	6
LASARTE-ORIA	5
ELGOIBAR	4
ORDIZIA	4
ERRENTERIA	4
ZARAUTZ	4
BEASAIN	3
DEBA	3
LAZKAO	3
ZUMAIA	3
ARRASATE	2
HERNANI	2
LEZO	2
OÑATI	2
OIARTZUN	2
PASAIA	2
URRETXU	2
ALEGIA	1
ARETXABALETA	1
AIA	1
AZKOITIA	1
ASTEASU	1
ATAUN	1
GAINTZA	1
LEGAZPIA	1
MUTRIKU	1
OLABERRIA	1
ORIO	1
ORMAIZTEGI	1
ERREGIL	1
USURBIL	1
ZESTOA	1

188

(Ikus 18 A eta B Diagramak 153 eta 154 or.)

Foru Diputazioetako Administaritzaren aurka aurkeztutako kexetatik gehienak beren Foru Ogasuntzen ebazpen edo iharduketan aurka izan dira, eta honela banatzen dira Lurralde Historiko bakoitzeko:

KEXAK FORU DIPUTAZIOEN ARABERA

SAILA	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Lehendakaritza	—	3	3
Nekaz.-Arrantzua	2	—	—
Kultura	—	—	2
Herrigasun Saila	—	3	8
Osasunketa	2	6	9
Hirig.-Etxeb.-Ingurug.	—	2	2
GUZTIRAL	4	14	24

(Ikus 19. diagrama 155 or.)

8.5. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Lurralde historikoen artean, Bizkaitik igorritako kexa-kopurua da nagusi, 288; segidan Gipuzkoakoa, 188; eta azkenik Arabakoa, 97ko kopurua osatuz.

Aldiz, aztertzen badugu lurralde historiko bakoitzean aurkeztutako kexa kopurua lurralde horretan eroldaturiko 10.000 biztanleko, oso bestelako emaitzekin egiten dugu topo, alderantzizkoak ere: Arabak agertzen du portzentairik altuena (%4,33), gero Gipuzkoa dator (%3,29), eta azkenik Bizkaia (%2,97).

	Aurkeztutako kexa kopurua	% E.A.K.n	Kexak/10.000 biztanleko
Araba	97	17	4,33
Bizkaia	288	50	2,97
Gipuzkoa	188	33	3,29
E.A.K.	573	100	3,24

(Ikus 20. eta 21. Diagramak 156 or.)

8.6. SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Kexa guztiak administraritzaren arabera sailkatu eta banatu asmoz, eredu berezi bat sortu da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren eta gainontzeko herri-Administrazioaren Sail desberdinak oinarritzat harturik eta hauek baliokidetzuz eta asimilatuz, aurrerago agertzen den sailkapen-eredua osatu da.

Sailkapen honen ondorioz, kexa gehien eragin dituzten administraritzaren Sailak modu eta ordena honetan banatzen dira: Hirigintza, Etxebizitza eta Ingu-ru-giroa lehenik, Osasunketa, eta Hezkuntza ondoren. Honako taulan ikusten den bezala honela azaltzen da ordena kuantitatibo eta portzentatuetan Sail bakoitzean jasotako kexa kopurua:


SAILA	Kopurua	%
Hirig. Etxebiz. Inguzug.	100	21
Osasunketa	87	18
Arazo Partikularrak	69	14
Gestio ezberdinak	60	13
Hezkuntza	52	11
Herriogasun Saila	38	8
Lehendakaritza	29	6
Herrizaingoa	19	4
Kultura	7	2
Nekazaritza-Arrantzua	6	1
Garraioak-Herrilana	5	1
Industria	3	0,5
Lana	3	0,5
GUZTIRA	478	100,0

Hobeto ezagutzeko zein arazo dituen hiritarrak Sail bakoitzean, ondoren taula konparatibo bat aurkezten da, hiritarrak Administrazioarekin dituen arazo moten adierazgarri eta argigarri dena:

SAILA	Azpisaila	Kexa kopurua
LEHENDAKARITZA	1.-Funtzio Publikoa	12
	2.-Toki Administrazioa	3
	3.-Elebitasuna	2
	4.-Beste	8
	GUZTIRA	25
NEKAZARITZA ETA ARRANTZUA	1.-Nekazaritza	2
	2.-Arrantzua	1
	3.-Beste	2
	GUZTIRA	5
KULTURA	1.-Kirolak	4
	2.-Gazteria	1
	3.-Funtzio Publikoa	1
	4.-Elebitasuna	1
	GUZTIRA	7
HEZKUNTZA	1.-O.H.O.	4
	2.-Ikasketa Ertaina	7
	3.-Unibertsitatea	7
	4.-Bekak	8
	5.-Elebitasuna	7
	6.-Funtzio Publikoa	17
	GUZTIRA	50
HERRIOGASUN SAILA	1.-I.R.P.F.	7
	2.-Gainbalioak	4
	3.-Zirkulazioaren gaineko Zerga	5
	4.-Beste zergak	5
	5.-Elebitasuna	1
	6.-Beste	8
	GUZTIRA	30
INDUSTRIA ETA MERKATARITZA	1.-Elebitasuna	1
	2.-Beste	2
	GUZTIRA	3
HERRIZAINGOA	1.-Poliziaren Iharduketak	9
	2.-Trafikoa	6
	3.-Jokua	1
	4.-Funtzio Publikoa	2
	GUZTIRA	18

SAILA	Azpisaila	Kexa kopurua
OSASUNKETA SAILA *	1.-Funtzio Publikoa	20
	2.-Gizarte Ongunea	20
	3.-Ospitaletik kanpoko Zerbitzu	23
	4.-Ospitaleko Zerbitzuak	4
	5.-Farmazia	2
	6.-Albaiteritza	1
	7.-Elebitasuna	1
	8.-Beste	8
	GUZTIRA	79
LAN SAILA	1.-Laguntzak	2
	2.-Beste	1
	GUZTIRA	3
GARRAIOAK ETA HERRILANA	1.-Eusko Trenbideak	4
	2.-Herrilanak	1
	GUZTIRA	5
HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIROA	1.-Hirigintza	52
	2.-Etxebizitza	24
	3.-Ingurugiroa eta Aktib	16
	GUZTIRA	92
E.A.K.TIK KANPOKO KEXAK	12	
		585

KEXEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE
MARTXOAK 8-ABENDUAK 31 BITARTEKO ALDIA



SARRERAK	54	90	151	144	139	54	130	140	152	116
IRTEERAK	47	91	134	223	206	97	176	295	211	145

■ SARRERAK ▨ IRTEERAK

DIAGRAMA 1

PARLAMENTU-ESKUDUNEI BEREN 1. URTEAN 10.000
BIZTANLEKO AURKEZTUTAKO KEXAK




DIAGRAMA 2

1983-1988 URTEETAN ZEHAR "DEFENSOR DEL PUEBLO"RI BĪDALITAKO KEXAK





DIAGRAMA 3

AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 4

KEXEN EGOERA




DIAGRAMA 5

ONARTU ETA EZEZTU DIREN KEXEN SAILEKO
BANAKETA






DIAGRAMA 6

ONARTU DIREN KEXEN EGOERA


AMAITUAK
189



TRAMITEAN
178

DIAGRAMA 7

BUKATUTA ETA TRAMITEAN DAUDEN KEXEN
SAILEKO BANAKETA



AMAITUAK	10	2	3	30	13	2	10	45	2	4	33	35
TRAMITEAN	15	3	4	20	17	1	88	34	1	1	59	15

■ AMAITUAK ▨ TRAMITEAN

DIAGRAMA 8

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA EMAITZAREN
ARABERA





DIAGRAMA 9

BUKATUTAKO KEXEN SAILEKO
BANAKETA EMAITZAREN ARABERA



ARRAZOIRIK	4	2	2	8	1	1	3	23	0	1	14	22
IRADOKIZUN	5	0	1	19	12	1	7	22	1	3	16	8
ARRAZOIRIK EZ	1	0	0	3	0	0	0	0	1	0	3	5

ARRAZOIRIK
 IRADOKIZUN
 ARRAZOIRIK EZ

DIAGRAMA 10

EZEZTUTAKO KEXEN BANAKETA





DIAGRAMA 11

EZEZTUTAKO KEXEN SAILEKO BANAKETA



	LEHNE-AKUL	HEZOGA	INDHER	OSA	LAN	GAR	HIR	EZB
PRIBATUAK	0	0	0	2	0	0	2	45
URTEBETE	0	1	0	0	0	0	1	2
EPAIT.AURREKO	2	0	0	1	0	0	0	20
BESTELAKOAK	2	1	0	1	5	0	5	12

PRIBATUAK
 URTEBETE
 EPAIT.AURREKO
 BESTELAKOAK

DIAGRAMA 12

KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 13

KEXEN HIZKUNTZAREN ARABERAKO BANAKETA




DIAGRAMA 14

KEXAK AURKEZTUTAKO ERA






DIAGRAMA 15

ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO KEXEN
BANAKETA

EUSKO JAURLARITZA

175



DIPUTAZIOA

42

UDALAK

132

DIAGRAMA 16

JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN
SAILEKO BANAKETA





DIAGRAMA 17



DIAGRAMA 18 A


AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA
HIRIKIDEEN JATORRIAREN ARABERA



HIRIBURUA
 HERRIAK

DIAGRAMA 18B

FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN SAILEKO BANAKETA



	LEH	NE-A	KUL	OGA	OSA	HIR
ARABA	0	2	0	0	2	0
GIPUZKOA	3	0	0	3	6	2
BIZKAIA	3	0	2	8	9	2

SAILA

ARABA
 GIPUZKOA
 BIZKAIA

DIAGRAMA 19

KEXEN LURRALDE-BANAKETA




DIAGRAMA 20

10.000 BIZTANLEKO KEXEN LURRALDE-BANAKETA




DIAGRAMA 21

IX. ATALA

**IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK.
AZKEN ONDORIOAK**

Kexa ugari aurkeztu dira Erakunde honetara lehenengo iharduera-urte honetan, eta baita ugari ere erabaki direnak, garrantzitsuak batzu, gutxiago beste batzu, baina nolana ere behar-beharrezkoak kexadunentzat, hauentzat beren kexa, kexa bakarra eta maiuskulaz idatzirikoa baita.

Kexa hauetakoa bakoitza erabakitzeak justifikatuko luke, berez, Erakunde hau izatea, herri-Administraritzapean dauden administratu gizarajoak dituen ezinbesteko harremanetan itotzen duen prozedurazko mordoilo nahasgarria askatzen lagunduko dion tresna bezala.

Baina nahiz eta garrantzitsua izan, Erakunde honek ezin du bere zeregina hiritar bati edo hiritar talde bati dagozkien ekintzak kontrolatzera baino mugatu. Arriskua egongo litzateke Ararteko Erakundea tresna pribilegiatu bihurtzeko, zeinaren bitartez, bertara joko luketen hiritarrek beren arazoak botere publikoekin ebaztea lortuko luketen, onenean; eta bitartean herri-Administraritzak, orokorrean, beti bezala jokatzeko jarraituko lukeelarik.

Ararteko Erakundea administratuek irtenbide miragarrien bila jotzen duten lekua bihurtu ez dadin, kasu partikularretatik at joan behar da, hauek administratza jokoera erakusle bezala hartuta, irtenbide globalak bilatzeko, kasuon errepikatzea galerazi dezaten.

Ikuspuntu honetatik aurkeztutako kexa guzti-guztiak hainbeste deklarazio handizalaren kontrapuntu gisa azaltzen dira, eta botere publikoen urritasuna erakusten duten euskal gizartearen radiografia dira.

Kexa hauek, kasu gehienetan gizarte maila kaltetuenekoak, Administraritzaren ihardueraren urritasunaren izeberg muturra balira bezala azaltzen zaizkigu. Beraz, botere publikoekin hurbilketa zintzo eta aurreritza gabea egin nahi badute, ez defentsazkoa alegia, horietako akats batzu zuzentzeko erreflexio motiburik aurkituko dute.

Ez du Erakunde honek asmo bilakaririk, eta ez da botere publikoen ihardueren organo zentsorea ere, eta garrantzitsua da botereok honela uler dezaten.

Aldiz, laguntzaile zintzoa da, erabilgarria hirikideen kezken boza Administraritzaren aurrean azaltzeko, eta nolana ere, hirikideen eskubideak errespetatu daitezkeen bultzatu eta Administraritzaren azken xedea izan behar duena lortzen laguntzen duena, hau da, interes publikoa.

Horregatik, gomendioak zuzentzea, organo kompetenteei betebeharrak legalen gogoraraztea, eta administratuen betebeharrak bermatzea gisa arautegian antzemandako hutsunak adieraztea, Ararteko Erakundea sortarazi eta arautzeari buruzko Legearen 11. atalean aurrikusitako funtzio guzti hauek, erabakiorrak izango dira Erakundearen ihardueran prebentziozko neurrien bitartez salatutako egoerak galeratzeko, kasu partikularretan gertatutakoak etorkizunean berriro errepika ez daitezkeen.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar edozein erakunde martxan jartzeko berezko zailtasunek, badaezpadako giza baliabide eta materialekin, hasierako ia

energia guztiak antolaketa lanetara ematera behartu dutela; eta Erakundearen berezko iharduera, planteatutako arazo partikularra ebaztera zuzendu dela bereziki, eta ez gure nahia izango zen bezala, arazoak aztertu eta gero planteamentu abstraktu eta proiektio orokorrekoak egitera, dudarik gabe datozen agerpenetan lehentasuna hartuko duen iharduera izango den hau.

Honek ez du esan nahi halere, ez dela era honetako iharduketarik egin, eta ekitaldi honetan aurkeztutako kexen azterketaren ondorioz, exhaustiboak izan asmo gabe iradokizun eta gomendio batzu egiten zaizkie botere publikoei, administratuen eskubideen bermetan, interesgarri eritzi diren arazo batzuri buruz, tratamendu berezia exigitzen duten beste egoera asko egongo diren ukatu gabe, eta datozen iharduketetarako atzejartzen direnak.

9.1. IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK

A) Administraritzaren geldikeria. Administraritzza-isiltasuna

Azpimarragarria da Arartekoari zuzentzen zaizkion kexetatik asko administratuek herri-Administraritzza desberdinetara idatzi eta erantzunik jasotzen ez dutelako, edo bestela, berandu erantzuten zaielako izatea. Era berean, beste batzutan, planteiatutako kexa batzu aztertu eta egiaztatu da, Administraritzaren geldikeria materiala edota administraritzza jokabide traketsa alde batera utzi eta erazko geldikeria edo isiltasuna gertatu dela.

Kasu askotan, herri-Administraritzaren aldetik erabilera gehiegikeriazko baten aurrean gaude, administraritzza-isiltasun ezezkorraren zuzenbidezko erakundeari dagokionean.

Harrigarria da Administraritzak hainbestetan nahikeria hutsez erabiltzen duen legezko irudiak, bere sorreran izaera bermea izatea administratuarentzat.

Administraritzza-isiltasuna sortzen da aldeazurreko ardulararitzza ikintzaren beharrea oinarritzen den sisteman eta ardulararitzza-auzipidetzaren ikuskaketa izaeran. Ez zen alferrik jaso izan lehenengo aldiz Ardulararitzza-Auzipidetzaren Legean.

Ez gara luzatuko administraritzza-isiltasun ezezkorra araututa datorren bi legeetan: 1956ko abenduaren 27ko Ardulararitzza-Auzipidetzaren Legea bere 38. eta 54. ataletan, eta 1958ko uztailaren 17ko Ardulararitzza Legea bere 94. eta 127. ataletan, eta ez dugu aipatu ere egingo gaiaz dagoen doktrina ugari eta zabala, ez baldin bada hemen esaten denaren, euskarri gisa, hau ez bait litzateke leku egokia, eta ez da gainera hori gure asmoa.

Adierazi egingo ditugu, bestalde, administratuari zeinen ondorio zoritxarrekoak dakartzkion, hain tinkoa den administraritzza ihardunaren gehiegikeriak.

Azpimarratu beharra dago administraritzza-isiltasunaz dagoen Konstituzio aurreko arauketak, iraitzia izan behar duela testu konstituzionaletik, eta zehatzago espainiar Konstituzioko 103. atalean oharmandako eginkortasun erizpidearen arabera, eta baita testu bereko 24.1. atalean gauzatzen den benetako legezko babes eskubidearen arabera, ahaztu gabe, inolaz ere, legezketasun erizpidea, berak, berez, behartu bait dezake zehazten duten biderapenezko arauak zehatz-mehatz betetzera.

Administraritzza-isiltasuna arauzkotzen duten manuak betetzeari dagokionean, komeni da azpimarratzea, sarritan, Administraritzak instituzio hori erabili izan duela prozeduraren amaiera modu bezala, hautsiaz eta astun gainera Ardulararitzza-

-Auzipidetza Legearen 38.2. atala, zeinetan jasota datorren: "dena den, uzteko ukapenak ez du baztertzin Administraritzaren betebeharra erabaki zehatz bat ematekoa, behar bezala oinarritua", eta baita Arduralaritzabide Legearen 94.3. atala ere non jasotzen den: "bai batean eta bai, bestean ustezko ukapenak ez du baztertzin Administraritzaren betebeharra erabaki zehatz bat ematekoa. Betebehar hau haustearen aurrean adierazi ahal izango da kexazko zuzenketa-eskea, zeinak balioko duen baita ere aurrez gogora erazteko norbanako erantzukizunez, agintari edo funtzionari zabarren bat suertatuko balitzaigu".

Espreski erabaki beharreko beharkizun hau sarriegi hautsi ohi da Administraritzaren aldetik, kasu askotan, konpontzea komeni ez zaion konturen bati irtenbiderik ez emateagatik edo ezezkoa indartzeko legezko argumenturik ez duelako; beste askotan prozedurak etengabe luzatzeagatik, azpikeriatan, administratuak atzera egin dezan asmotan, faltatzen ez delarik gainera kasu batzutan administraritza utzikeria edo zenbait funtzionariaren ustea, alegia, ez dagoela erantzuteko obligaziorik arauz erabakitako epeak igaro diren garaian.

Jokabide horrek ez ditu zuzitzen ezta zenbait toki-Korporazioen baliabide ezak ere.

Horra adibide gisa Foru Aldundi baten kontra Ararteko Erakundean aurkeztutako kexa bat.

Planteiatutako kexaren aurrean Erakunde honek eginiko informazio eskariari, aipatu Aldundiak erantzun zion:

"Hain zuzen, egia baldin bada ere Aldundiak ez duela erabaki zehatzik hartu aipatu jaunaren gora jotzeko errekurtsorearen aurrean, ez da egia aipatu errekurtsua konpondu ez denik (isilbidez), zeren Arduralaritzabide Legearen 125.1. atalak dioenez 'hiru hilabete pasatzen direlarik gora jotzeko errekurtsua sartu eta erabakiaren berririk ez dela, ulertuko da baztertua eta libre geratuko dela hartu beharreko bidea'.

"Ondorioz, gora jotzeko errekurtsua *administraritza-isiltasunez erabakia* izan zen, libre geratuz bere garaian sartzeko, oraindik hala nahi izan balu, arduralaritzaz-*auzipide errekurtsua*".

Idatzi honen aurrean, Erakunde hau behartua aurkitu zen ondorengo legezko orotarazpena igortzera:

"...Gainera, azpimarratzen da aipaturiko idatzian, alegia, 'gora jotzeko errekurtsua isiltasun administratiboz erabaki zela'. Gogora erazi beharra dago doktrinak behin eta berriz azpimarratzen duen bezala, administraritza-isiltasuna ez dela, berez, prozedura amaitzeko modu bat, baizik eta Administraritzak erabakitzeke orduan duen geldikeriaren aurrean Legeak interesatuaren bermetan ezartzen duen presuntzio bat. Administraritza-isiltasunaren doktrina egiten da, beraz, errekurtsua desestimatu legezko presuntzio bezala eta administratuak adierazi ahal izan ditzan legez dagozkion errekurtsuak, era berean Administraritzaren geldikeriak babesik eza eragin ez diezaion galeraziz.

"Foru Aldundi horrek bidalitako idatzian aipatzen den Arduralaritzabide Legearen 125.1. atalak jasota dakar arau berezi bat administraritza-isiltasunaz, zeinari buruz, guztizko heinean, badakarren baita ere Arduralaritzabide Legearen 94. atalak zerbait, eta kontua da gora jotzeko errekurtsorearen prozeduran ulertzen dela ustezko ukapena automatikoki gertatzen dela hiru hilabete pasatzean, luzapen salaketa beharrezkoa ez dela; hori eta guzti, gainontzean, administraritza-isiltasunari buruzko arau orokorrak erabat aplikatzen dira. Horrek esan nahi du, administratuarentzat dagokion bidea zabalik egonagatik, ez dela baztertuta gertatzen Administraritzak duen obligazioa erabaki zehatza ematekoa, alegia.

“Ez horixe, Arduralaritzabide Legaren 94.3. atalean jasota dator: ‘Batera edo bestera, ustezko ukapenak ez du baztertuko Administraritzak erabaki zehatza emateko duen obligazioa. Betebehar hau haustearen aurrean adierazi ahal izango da kexazko zuzenketa-eskea, zeinak balioko duen baita ere aurrez gogor eratzeko norbanako erantzukizunez, agintari edo funtzionari zabarren bat suertatuko balitzaigu’.

“Horregatik Ararteko Erakundea sortu eta arautzeari buruzko otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11.2. atalak emandako ahalmena erabiliz, legezko gomutakia egiten da Administraritzak horrek duen betebeharrak aurkezturiko gora jotzeko errekurtsuari erabaki zehatza ematekoa, alegia (Arduralaritzabide Legaren 94.3. eta Arduralaritzak-Auzipide Legaren 2. atalekoak), eta Arduralaritzabide Legaren 61. atalean jasotzen den epea iragan izanik, erabaki hori azkartasunik handienean ematea eskatzen da”.

Gogora erazten da beraz, herri-Administraritzak guztiek aurkezten zaizkien idatzi guztiei irtenbide zehatza emateko betebeharrak dutela, administraritzak-isiltasunak ez bait ditu eginbehar horretatik libratzen.

Bestalde, eta aipatu dugun bezala, ezin dugu azpimarratu gabe utzi gehiegikeriazko administraritzak-isiltasunaren erabilerak legezko benetako babesketa eskubidean duen eragina, zeren Administraritzak betetzen ez badu erabaki zehatzak emateko betebeharrak, partikularra aipaturiko eskubidetik kanpo gera daiteke.

Horregatik, beharrezkoa da azpimarratzea badagoela erlazioa administraritzak-isiltasun ezezkorra eta epe preklusiboen artean, nola administraritzak bidean hala auzipide mailakoan.

Berriz ere egiaztatzen da administraritzak-isiltasunaren ezarketak, hasiera batean administratuaren berma gisa sortua, eragin kaltegarriak izan ditzakeela beronek dituen eskubideetan.

Lehenengo eta behin, administratuak, zeinaren eskaria ustez administraritzak-isiltasunez ukatua izan den, ezingo du joan zuzenean arduralaritzak-uzipidera, erabakia zehatza izatera gora jotzeko errekurtsua sartzea bidezkoa litzatekeelarik. Partikularren babesik eza sortzen duen egoera honek, ez dakitelako noiztik aurrera aplikatzen den epea lehen aipatutako administraritzak errekurtsua sartzeko, prima erazten du bidegabeki Administraritzaren geldikeria administratuen eskubideen kaltetan, eta hori nahiz eta, Auzitegi Konstituzionalaren urtarilaren 21eko 6/86 sententzia paradigmaticoak ondorio horiek arintzen dituen, administraritzak-isiltasun ezezkorra eta ekintza oker notifikatua parekatzen bait ditu.

Egoera txarragoan gera litezke beren borondate onean burua trufa egin dietela ikusten dutenak, administraritzak-isiltasunez ukatutako eskaeraren kontrako erabaki administratiboaren zain egon eta agintemende-mailako arduralaritzak-uzipidera joateko urtebeteko epea amaitzen zaienean, zeren eta gertatzen bada ondorenean jazarpen egilearen asmoen beranduko erabaki estimatorioa eta erabaki horrek baldin baditu ondorio aurkakoak beste interesaturen batentzat, Epai-bildumen Auzitegi Gorenak balio gabetzat jotzen du beranduko administraritzak ekintza.

Baiezta dezakegu, beraz, Administraritzaren aldetik, erabaki zehatza emateko eginbeharra ez betetzeak, legezkotasun printzipioa hautsi ez ezik, eginbehar horrek bere baitan zehazki arautzen dituen prozedurazko arauak baztertuz, eragin ezezkorra du, baita ere, administratuen legezko benetako babesketa eskubidean, espainiar Konstituzioko 24. atalean ezartzen den horretan hain zuzen.

Horregatik egiten zaie legezko gomutakia Erakunde honen ikerketa boterea iristen den herri-Administraritzak guztiei, erabaki zehatzak emateko betebeharrak.

Botere hauek izendatuak datoz Ararteko Erakundea sortarazi eta arautzen duen Legearen 9. atalean.

Ez dugu ahazten halere, herri-Administarritzan hain errotua dagoen portarea batekin amaitzea zeinen zaila den, eta Arartekoa beldur da arazo hau ez ote den bilakatuko hemendik aurrerako Estatuko "Ombudsmen" guztien memorieta-ko gaia. Horregatik datozen ondorengo urteetan administarritza-isiltasun ezezkorraren figurak irauten baldin badu, Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari eskatuko dio testu konstituzionalak 87.2. atalean ematen dion legezko iniziatiba erabiliz, eska diezaiola Estatuko Gobernuari lege-egitasmo bat gaia arautuko duena, edo bestela, igor diezaiola Kongresuko Mahaiari lege-salo bat isiltasun ezezkorraren ezarketa aldatuko duena, konstituzionalki gauzafutako administrazioen eskubideak berma daitezzen egokituko dena.

B) Herri-Administarritzaren gehiegizko formalismoa eta informaziorik eza

Administarritzak hirikideari bidalitako idazkietan hizkuntza formalistegia egiaztatu da, eta zenbait kasutan, iluna, babesgabe uzten duelarik administrazioak ez duelako ezagutzen ikasientzako den hizkera hori, eta askotan arauzko agindu eta erreferentzia hutsezko nahasketa baino ez dena, era argi eta laburrean azaldu beharrean administrazioari zeintzu diren administarritza iharduketa eragin duten arazoak.

Alde batetik termino zaharkituek diraute, Administarritza dezimononikoarenak bereziagoak direnak, eta Errestaurazio garaia gogorarazten digutenak Gallosek bere nobeletan hain ongi isladatu bezala; eta bestalde administarritza-forma berriekin aurkitzen gara, teknizismo eta barbarismoz josita, anglizismoak batez ere, zeintzutara neofitoen gogo beroz atxekitzen diren funtzionario berriak administarritza-idatziak hitz mordoilo bat bihurtuz, non elkarren ondoan azaltzen diren "inplimentazio" eta "orobatak", "parametro" eta "kontutan hartzekoak".

Erreflesio honek ez du esan nahi administarritza-idatziaren bulgarizazioaren alde egiten dugunik, konszienteak bait gara zaila dela idatzi horietan taiutzea hitz tekniko zehatzak eta ulergarriak egitea gai horretan ez-ikasiak direnei, baina erreibindikatu egiten dugu argitasun handiagoa azaltzea Administarritzaren iharduketa gardenagoa izan dadin.

Aipatutakoaren adibide bezala ekarri behar da, Donostian bizi den ifarmerikar batek aurkeztutako kexa, zeinek planteiatzen zuen bere eskariaren erantzun gisa jasotako administarritza-idatziaren argitasun eskasa, eta definitzen zuena "zenbaki, puntu, atal, lege eta dekretu parrastada" bezala, eta gainera esaten zuen Administarritzako informazio ezagatik ezin izan zituela bere eskubideak erabili zeintzu zituen ezin jakinagatik, kalte ekonomikoak sortarazi zizkiolarik.

Kexa honekin erlazonaturik, beharrezkoa da gogoratzea baita ere, Administarritzak informazio orokor eza duela, askotan, kexa partikular gehientxoan eragile dena eta ebitatu zitezkeenak administrazioak aurrez jakin izan balitu zeintzu ziren bere eskubide eta betebeharrak.

Ezinbestekoa da, beraz, Administarritzak beregain har dezan hirikideei informazio egokiagoa ematea administarritza-iharduketaren ezagutzearen onetan izango litzatekeela, eta gainera, gertatzen diren arazotako asko ebitatuko liratekeela, eta hau, ez bakarrik administrazioek beren eskubidea erabiliko litzuketelako, baizik eta efikazia-printzipioa bete behar delako, zeinarekin adostasunean ihardun behar

bait du Administraritzak objetibitatez zerbitzatzeko interes orokorrei. (espainiar Konstituzioko 103.1. atala).

C) Ibilgailuen zirkulazioaren santzio-eskubidea

Trafiko gaietan konpetentziak dituen agintaritzak jarritako zigorreatatik kexa eta telefono kontsulta asko jaso dira eta beraietan alegatzaileen protesta da abiadura muga gainditu dutelako zigortu dituztela, hutsegitea salatu duten agenteek (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) ibilgailuaren gidaria identifikatzeko autoa gerazi ez dutelarik.

Gaur egun, trafiko isunez hitzegiterakoan, gertatzen ari den legeri aldaketa handiaz hitzegin beharra dago. 1934ko irailaren 25ean Ministroen Kontseiluko Presidentziaren Dekretuz onartu eta orain arte indarrean dagoen Zirkulazio Kodea, onartu zenetik aldaketa asko izan dituen, bertan behera utziko da eta bere orde, Estatuko Gobernuaren uztailaren 25eko Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta errepideetako seguritatearen oinarri buruzko 18/89 Legea garatuz onartuko duen beste Errege Dekretu Arauemaile berria sartuko da indarrean epe laburrean. Uste da testu artikulatu berri hau martxoan onartu eta apirillean sartuko dela indarrean.

Orain gutxi onartutako Legearen 8. oinarriko 6. atalean esaten denaren arabera, ibilgailua daramanak jabea ez izanik lege hausteren bat egiten badu, ibilgailuaren jabeak ardura betekizun berezia izango du, Administraritzari hutsegin duen gidaria ezagutzeko beharrezko datu guztiak ezagutzera eta ematera beharturik egongo delarik. Aldi berean, betekizun honetan jabearen hutsegitea, hutsegite larritzat joko da.

Egungo Zirkulazio Kodeko 278.2. atala, zalantzak sortzen zituena, desageratu egiten da. Honen arabera, Administraritzak, hutsegin duen ibilgailuaren gidaria ezagutzen ez zuenean arduraduntzat jabea jotzen zuen eta ondorioz honek ordaindu behar izaten zuen isuna. Hau da, Kodeak orain arte zioenaren arabera, ibilgailuaren gidariak erantzuten ez bazuen, jabeak erantzun behar zuen, eta beraz honek ordaindu behar zuen isuna gidaria identifikatu gabe geratzen bazen. Era honetan santzio-erantzukizuna eskualdatu egiten zen eta hori zuzenbide ikuspuntutik ez da zilegia zeren santzioaren pertsonalitate-erizpidearen aurka bait doa.

Hemendik aurrera, eta lehen ez bezala, bi hutsegite mota bereizten dira: bata, ibilgailuko gidariak abiadura bizkorregian gidatzearekin edo beste edozein hutsegitearekin burutzen duena, eta bestea, ibilgailuaren jabeak, gidaria identifikatzeko beharrezkoak diren datuak Administraritzari eskuratzen ez dizkionean. Praktikan gero, ibilgailuko gidariari eta ibilgailuaren jabeari jarriko zaizkien isunak desberdinak izango dira.

Bestalde, aurkeztu diren kexetatik ondorioztatzen denez, ibilgailu gidarien iritzi, abiadura handiegiagatik hutsegiten denean, autoritate agenteek ibilgailua gerarazi behar dutela berehala gidaria identifikatzeko, argudio hori ematerakoan, Epaitegi Konstituzionalaren azaroaren 22ko 219/1988 sententzia alegatzen dutelarik. Juridikoki egiten dena zera da, Administraritzak zigortze prozeduran zehar ondorio uka ezinera iristen da, alegia ibilgailuko gidaria hutsegiteko momentuan egiaz jabea bera zela, eta beraz ez da gidaria berehala eta hutsegiteko leku berean atxilotu behar.

Trafiko gaietan konpetentziak garatuta dauzkaten Udal ezberdinei, euskal Lurralde Autonomoan biztanle gehien dituztenei, eta noski, Eusko Jauriaritzako

